

•eus
Jakin252

herria kultura hizkuntza iraila-urria
2022

Euskal
Unibertsitatea
Auziak eta erronkak

ANE SARASUA
KEPA SARASOLA
IÑAKI GOIRIZELAIA
ROLDAN JIMENO
ENEKO BIDEGAIN
JONE GOIRIGOLZARRI

XABIER LANDABIDEA
MARI LUZ ESTEBAN
ANE LARRINAGA
EKAI TXAPARTEGI
ANJELES IZTUETA
KARMELE ARTETXE

EGUNEN GURPILEAN
MAIALEN AKIZU BIDEGAIN
IÑIGO MARTINEZ PEÑA

Jakin^{•eus}252

herria kultura hizkuntza iraila-urria
2022



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joanmari Larrarte

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi • Joxe Azurmendi • Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

ERREDAKZIOA

Haritz Azurmendi • Oihana Iguaran

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre • Xabier Eizagirre • Idurre Eskisabel
Patxi Juaristi • Joanmari Larrarte • Imanol Murua
Andoni Olariaga • Olatz Osa • Gexan Sors

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 Andoain
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus



*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Andoain. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

9

GAI NAGUSIA Euskal Unibertsitatea: auziak eta erronkak

13 Karlos Santamariaren bidetik urrats bat egiteko proposamena

Ane Sarasua Aranberri • Kepa Sarasola Gabiola

Azken 50 urteetan euskarak urrats nabarmenak egin ditu unibertsitatean, ezinezkotzat jotzen zena lortu dugu. 2022an Euskal Unibertsitatea eraikitze bidean, unibertsitateen arteko lankidetzan, urrats kualitatibo esanguratsua izan daiteke euskarazko online unibertsitatea sortzea.

25 Euskal Unibertsitatea ala Euskal Herriko Metabertsitatea?

Iñaki Goirizelaia Ordorika

Munduan zehar sortzen ari diren metarbertsitateek (*meta-verse + university = metaversity*) erabat aldatuko dute egungo unibertsitate eredua. Gure kezka nortasun digitala garatuko duten mundu osoko eta euskal gazteentzat unibertsitate eredu berri eta erakargarria sortzea izan behar da, *Euskal Herriko Metabertsitatea*, non euskarak unibertsitate mailako hizkuntza izaten jarraitu behar duen.

41 Euskal Unibertsitateaz hausnarketa bat Nafarroako periferiatik

Roldan Jimeno Aranguren

Nafar ikuspegi batetik, Euskal Unibertsitatearen helburua lortzeko gaur egun dauden arazoei buruzko hausnarketa egiten da, eta unibertsitate hori eraikitze bide posibleren bat aipatzen da.

51 Euskal Unibertsitatearen zutabeak
Eneko Bidegain

Euskal Unibertsitatea euskarazkoa, Euskal Herri osokoa eta euskal ikuspegiko edukiak ematen dituen izango dela adierazten da.

61 Euskal Unibertsitatea 2022: loreak arrakaletan
Jone Goirigolzarri Garaizar
Xabier Landabidea Urresti

Zertan gaude hurbilago eta zertan urrunago UEUk Euskal Unibertsitatearen hipotesia duela mende erdi formulatu zuenetik? Iragana, oraina eta geroa elkar lotuta aztertzen dira artikuluan, hipotesia eguneratzeko aukeraren alde egiteko.

71 Unibertsitatea, feminismoa eta ‘belar txarren’
eredua
Mari Luz Esteban

Unibertsitatearen eta feminismoaren arteko harremanei buruzko gogoeta egiten da, bi norabidetan: batetik, indarrean diren praktika zehatzak aztertzen dira, hau da, berdintasun-politiken eta irakaskuntza eta ikerkuntza arloan bultzatzen ari diren egitasmoak; bigarrenik, unibertsitatearen eta politikaren inguruko imajinarioekin zerikusia duen bestelako ikuspegi bat defendatzen da: ‘belar txarren’ eredua, egungo planteamendu ekologista batzuetan oinarrituta.

81 Unibertsitateen doikuntza neoliberalismoaren
garaian
Ane Larrinaga Renteria

Orain hamarkada batzuk Udako Euskal Unibertsitateak aldarrikatu zituen helburuen harira, harrez geroztik unibertsitateek –bereziki publikoek– bizi izandako zenbait aldaketaren inguruko gogoeta egiten da. Arreta berezia jartzen da ezagutzaren ekonomiak eta unibertsitateen nazioartekotzeak eragindako ezagutzaren pribatizazio prozesuetan.

97 Errealitate krisiei aurre egiteko unibertsitatea
Ekai Txapartegi Zumeta

Unibertsitaterik gabeko herria duela gutxira arte, Euskal Herriaren ahultasun epistemikoak ondorio kezagarriak ekarri dizkigunez, unibertsitatearen ikuspegi dinamikoa eta funtzionala proposatzen da, hortik irudikatzeko XXI. mendeko erreallitate krisiei herri gisa aurre egiteko zein unibertsitate-modu litzaigukeen desiragarrien.

111 Euskal Unibertsitate Sistema: legea, erronkak
eta etorkizuna
Anjeles Iztueta Azkue

Ibilbide pertsonalak emandako eskarmentutik, 3/2004 Euskal Unibertsitate Sistemaren Legea aztertzen da, onartu zenetik ia bi hamarkada pasatu ondoren.

127 Euskal Unibertsitatea behe-lainotan
Karmele Artetxe Sanchez

Euskal Unibertsitatearen aldeko proiektua 70eko hamarkadan egituratu zenetik bost hamarkada iragan eta gero, proiektuaren agortze zantzuak antzematen dira. Egoera hori aztertu eta proiektua gaurkotzeko zenbait klabe seinalatzen dira.

EGUNEN GURPILEAN

139 Kultura
Maialen Akizu Bidegain

145 Glocalia
Iñigo Martinez Peña

KONTRAZALA Dom Campistron

BASQUE UNIVERSITY: DEBATES AND CHALLENGES

A proposal for making advances based on Karlos Santamaria

Ane Sarasua Aranberri, general secretary of the Basque Summer University (UEU), and Kepa Sarasola Gabiola, director of UEU, reflect on the steps taken by the Basque language in the university over the last 50 years, and add that the setting-up of an online university in the Basque language may entail a qualitative leap towards construction of the Basque University. **Ane Sarasua Aranberri • Kepa Sarasola Gabiola**

Basque University or Metaversity of the Basque Country?

Iñaki Goirizelaia Ordorika, ex-rector of the University of the UPV/EHU and professor of Telematic Engineering, points out that the metaversities (*metaverse + university = metaversity*) which are being set up around the world are going to completely change the current university model. The author highlights the need for a new, appealing university model for young Basques and everyone to develop a digital identity: the *Metaversity of the Basque Country*. **Iñaki Goirizelaia Ordorika**

Reflection on the Basque University from the Navarre perspective

The Law lecturer, Roldan Jimeno Aranguren, reflects on current problems involved in achieving the objectives set out by the Basque University from a Navarre perspective, and also mentions some possible way to construct it. **Roldan Jimeno Aranguren**

The basic principles of the Basque University

The writer and Humanities lecturer, Eneko Bidegain, states that the Basque University will need to become a Basque language university for the whole of the Basque Country, and that the contents to be developed will need to be from a Basque perspective. **Eneko Bidegain**

Basque University 2022: painting over the cracks

Jone Goirigolzarri Garaizar and Xabier Landabidea Urresti, lecturers of Social and Human Sciences, analyse the past, present and future of the hypothesis of the Basque University put forward half a century ago by UEU, being in favour of updating this situation. **Jone Goirigolzarri Garaizar • Xabier Landabidea Urresti**

University, feminism and the 'weed' model

The Social Anthropology lecturer, Mari Luz Esteban, reflects on relations between the university and feminism in two senses: on the one hand, she analyses specific practices, i.e. the teaching and research projects and policies regarding equality; on the other, she defends a new standpoint based on imagery about the university and policy. [Mari Luz Esteban](#)

The university in neo-liberal times

The Sociology lecturer, Ane Larrinaga Renteria, reflects on the changes that have occurred in universities –especially state-run ones– since UEU set out its objectives several decades ago, paying special attention to knowledge privatization processes brought about by the knowledge economy and the internationalization of universities. [Ane Larrinaga Renteria](#)

The university in view of a reality crisis

The Philosophy lecturer, Ekai Txapartegi Zumeta, highlights the worrying consequences caused by epistemic weaknesses in the Basque Country –a country without university until very recent times– and proposes a dynamic, functional standpoint of the university with a view to devising the most desirable university model, to enable it to face the 21st century reality crisis as a country. [Ekai Txapartegi Zumeta](#)

Basque University System: law, challenges and future

Anjeles Iztueta Azkue, ex-Minister for Education, Universities and Research of the Basque Government, analyses Act 3/2004 governing the Basque University System. [Anjeles Iztueta Azkue](#)

The Basque University in the fog

The ex-director of UEU and historian, Karmele Artetxe Sanchez, points out that, in the five decades since the project in favour of the Basque University was first set in motion, symptoms of its exhaustion are now being perceived. The author puts forward a range of keys to analysing the situation and updating the project. [Karmele Artetxe Sanchez](#)

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture and globalization matters. This section draws on various specialists: Maialen Akizu Bidegain and Iñigo Martinez Peña. [Various authors](#)

Nazionala, herritarra, euskalduna. Horrela definitu zen Euskal Unibertsitatea UEUren batzar nagusian 1975ean Durangon. Geroztik, gorabeherekin eta grina gehiagoz edo gutxiagoz, sarritan azaleratu den eztabaida izan da, bai behintzat JAKIN aldizkarian, Euskal Unibertsitatearen gaia auzi nagusietakoa baita Jakinentzat. Horren adierazgarri, zazpi urteko zentsura eta gero eta aldizkaria sortu zela hogeitaz betetzen zirela, 1977an berriro argitaratzen hasi zenean, lehen zenbakia bera Euskal Unibertsitatearen gaineko monografia bat izan zela. Bertan, Jakin Taldeak idatzitako sarreran, zera esaten da: «Euskal Herriak bere kinka historiko larrietan, bere nortasunari eusteko eta bere etorkizuna irekitzeko, bere Unibertsitatearen premia nabari du». Alegia, ez Jakinek bere jakintza, kultura eta eztabaida zabaltzeko misioa eta ez Euskal Herriak kulturalki burujabe izateko helburua ezin bete daitezkeela unibertsitate propiorik gabe.

Ehun zenbaki eta hogeitaz betetzen den monografia osatu zuen Jakinek. Ordurako EHU eta NUP sortuak zirela, «hegoaldean bederen, euskaldunen nahitaezko emigrazio intelektuala» bukatua zela zioen sarrera testuak, ondoren honako hau gehitzeko: «Euskal Herriko Unibertsitate honi, dagoen bezala egonda hiru Administrazio-esparrutan zatitua eta orekagabe eredu elebidun nekagarrian oinarrituta, oinarritzkoen artean oinarritzkoena falta zaio oraindik: benetan nazionala eta euskalduna izatea. Egiazko Euskal Unibertsitateak, lurralde nazional osoan hedatua (era batera edo bestera: derrigor Unibertsitate bakarra izan gabe agian), euskal kulturaren murgildua eta hizkuntza ere benetan euskalduna izatea inplikatzeko du». Auziak bere horretan jarraitzen zuela. Bost urte geroago, Jakinen 130/131 zenbaki bikoitzak berriro helduko dio gaiari. Artikulu interesgarri ugari daude bertan; bat aipatze aldera, Txillardegik herrialde eleanizetan unibertsitate mailako irakaskuntzan hizkuntzaren aukeraketaz egindako azterketa. Ondorioa garbia zen: geure egoera soziolinguistikoko bertsuan dauden Europako beste herrialdeetan ez da inon unibertsitate elebidunik, denak dira elebakarrak. Auziak hortxe segitzen zuen, beraz: nazionala, herritarra eta euskalduna izan behar zuen edo ez.

Azken aldikoz, 2015ean, JAKINEN 207. zenbakian, Bolognak ekarritako unibertsitatearen nazioartekotzeak irakasle euskaldunen hizkuntza jarreretan euskararen hautua zailtzea ekarri zuelako ideia eta azterketa argitaratu zuten Ane Larrinagak eta Mila Amurriok, eta Karmele Artetxek euskarazko ikerketa marko berrian bigarren mailakotzat hartzen dela ondorioztatzen zuen. Denak gai beraren gaineko bariazioak. Oraingo honetan ere bai. Baina aldiro galderak aniztu egiten dira, besteak beste, eta erabaki jakinen ondorioz, errealitatea bera aldatuz doalako. Gaur egun galderak hortxe daude, dinosauroa nola: unibertsitate (sistema) nazionala lortu da? Herritarra da unibertsitatea? Euskalduna?

Baina galderak daude galderen barnean: zer da egun, 2022an, nazionala, herritarra eta euskalduna izatea? Zer da nazionala izatea globalizazio eta nazioartekotze garaiotan? Zer herritarra, kapitalismo berantiarraren garaiotan unibertsitatea enpresen beharretara (ere) makurtu behar denean? Zer euskalduna, eleaniztasunean? Zer da eleaniztasuna eta noren eleaniztasuna? Eta gehiago: zer da unibertsitatea? Zertan da funtzio kritiko eta eraldatzailea? Zertan gizarteari transferentzia? Gizartearekin elkarlana? Feminista ote da unibertsitatea, eta zer da unibertsitate feminista izatea?

UEUK lehen uda ikastaroa antolatu zuenetik 50 urte bete dituen honetan, Jakinekin lankidetzan osatutako monografikoa da honako hau. Euskal Unibertsitatea gaur zertan den ezagutzeko, non eta nola gauden galdetu diegu hamabi aditu hauei: Ane Sarasua, Kepa Sarasola, Iñaki Goirizelaia, Roldan Jimeno, Eneko Bidegain, Jone Goirigolzarri, Xabier Landabidea, Mari Luz Esteban, Ane Larrinaga, Ekai Txapartegi, Angeles Iztueta eta Karmele Artetxe.

Gertuago edo urrunago gauden izan da galdera. Auziak eta erronkak zein diren. Loreak eta arrakalak aipatu dituzte Jone Goirigolzarrik eta Xabier Landabideak eta belar txarren alde egin du Mari Luz Estebanek. Ea larre motzeko izateari uzten segitzeko bidea den zenbaki honetan ereiten dena. Dom Campistronek, kontrazalean, sinpleago dio Baigorriko bere talaiaitik: euskaraz ikasi nahi dut.

Egunen gurpilean sailean, agur esan beharrean gaude Iñigo Martínez Peñari. Bi urteren ondoren, eta hainbat artikuluko zoli eta iradokitzaile idatzi eta gero, haxe du azken artikulua, ikusezin izatearen aldeko aldarria dakarrena. Mila esker eta ikusi arte, beraz, Iñigo. Maialen Akizuk, berriz, hemen jarraitzen du, desioa eta nostalgia, besteak beste, hartu eta barrenean zer duten arakatzen.

EUSKAL UNIBERTSITATEA: AUZIAK ETA ERRONKAK

- 13** Karlos Santamariaren bidetik urrats bat egiteko proposamena
Ane Sarasua Aranberri • Kepa Sarasola Gabiola
- 25** Euskal Unibertsitatea ala Euskal Herriko Metabertsitatea?
Iñaki Goirizelaia Ordorika
- 41** Euskal Unibertsitateaz hausnarketa bat Nafarroako periferiatik
Roldan Jimeno Aranguren
- 51** Euskal Unibertsitatearen zutabeak
Eneko Bidegain
- 61** Euskal Unibertsitatea 2022: loreak arrakaletan
Jone Goirigolzarri Garaizar • Xabier Landabidea Urresti
- 71** Unibertsitatea, feminismoa eta 'belar txarren' eredua
Mari Luz Esteban
- 81** Unibertsitateen doikuntza neoliberalismoaren garaian
Ane Larrinaga Renteria
- 97** Errealitate krisiei aurre egiteko unibertsitatea
Ekai Txapartegi Zumeta
- 111** Euskal Unibertsitate Sistema: legea, erronkak eta etorkizuna
Anjeles Iztueta Azkue
- 127** Euskal Unibertsitatea behe-lainotan
Karmele Artetxe Sanchez

Karlos Santamariaren bidetik urrats bat egiteko proposamena

Ane Sarasua Aranberri

UEUko idazkari nagusia

Kepa Sarasola Gabiola

*UEUko zuzendaria eta UPV/EHUko Lengoaia
eta Sistema Informatikoak Saileko irakaslea*

Helburua: Euskal Unibertsitatea

Euskal Unibertsitatearen beharra oso nabarmena zen orain dela 50 urte. Behar hori aldarrikatu zuen JAKIN al-
dizkariak 1977an argitaratu zuen ale berezian:

Euskal Herriak bere kinka historiko larrienetan, bere nortasuna-
ri eusteko eta bere etorkizuna irekitzeko, bere Unibertsitatearen
premia nabari du, eta aurrez-aurre ipini izan du Unibertsitatea-
ren jabe izateko gogoia eta asmoa. Ukatu egin zaio! [...] piztu eta
itzali, agertu eta ezkutatu egiten den izar batekin alderatu [da]
Euskal Herriak historian zehar daraman bere Unibertsitatearen
ametsa, gogoia eta asmoa: behin piztu eta indartu, gero itzali eta
moteldu, handik urte batzutara berriz ere biziago sortzeko. Baina
honek badu bere azalpena: nahiz eta inork kanpotik eta gainetik
itzali eta estali Euskal Herriaren Unibertsitatearekiko ametsa eta
gogoia, errauspean bizirik dirau asmo berberak. Euskal Herriak
erabaki du bere Unibertsitatea behar duela. ('Euskal Unibertsita-
tearen izarra', JAKIN 1, 1977, 8. or.)

Gizarteak bi ardatzetan behar du unibertsitatea. Batetik,
herritarrak kualifikatzeko, titulu homologatuak banatuko di-
tuen erakundea behar du, eta, bestetik, gizartearen funtziona-
menduan azaltzen diren galderak identifikatu eta jakintzaren

aldetik erantzunak bilatzeko, kulturaren eta jakintzaren katalizadorea izanik. Unibertsitatea ez da titulu-fabrika hutsa, gizarte eragilea ere bada. Karlos Santamariak azken helburu hori aldarrikatu zuen 1977an:

Bi eginkizun diferente dago uste dudanez, gure Unibertsitatea-
ren alorrean. Batari 'Euskal Unibertsitatea' dei lekiok; besteari,
berriz, 'Euskal Herriko Unibertsitatea' izena emango nioke nik,
bion arteko desberdintasuna ongi azaltzeko [...] Euskal Herrian
dauden eta egongo diren unibertsitate eta sasi-unibertsitate mul-
tzoari 'Euskal Herriko Unibertsitatea' izena emango diogu. Al-
diz, uste honek utopia itxura badu ere, nere terminologiaz 'Eus-
kal Unibertsitatea' euskal kultura eta hizkuntzaren 'alma mater'
izan beharko litzatekeen euskerazko unibertsitatea da. (Karlos
Santamaria: 'Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Uniberti-
sitatea ez dira bat', *Zeruko Argia* 708, 1977-10-17, 12. or.)

1936 pasatuta, Euskal Unibertsitatearen izarra berriro piztu zen 1973an, eta indartsu gainera. Artean euskara ez zen ba-
tere erabiltzen unibertsitatean. Orduan utopia moduan ikus-
ten zen euskara etorkizunean arlo guztietara naturaltasunez
zabaldut ahal izango zela. Gaur egunean, ordea, gauza gara
unibertsitateko edozein gai euskaraz azaltzeko. Berriki Jose
Ramon Etxebarriari eman diote Manuel Lekuona saria, «uto-
pia hura errealitate bihurtu duen mugimenduaren motibatzaile
eta dinamizatzaile nagusietako bat izan delako». Orduan
piztu zen dinamika hari esker, belaunaldi gazte berriek orain
naturaltasun osoz ikasten dute fisika euskaraz 2022an, eta
gure hizkuntza goi mailako formakuntzaraino heldu da. Askok
aurreratu da, bai, baina oraindik lan-munduarekin gehiago
uztartzeko beharra dago, baita ikerkuntzarekin ere. Gainera,
joera berri batzuk kezkagarriak dira unibertsitatean: ingele-
sak eremu batzuetan hartu duen erabateko nagusitasuna, edo
'globalizazioa' / 'uniformizazioa' / 'pribatizazioa' kontzeptuen
presentzia gero eta handiagoa, besteak beste. Gogoeta egin
nahi dugu euskarak unibertsitatean dituen erronkei buruz.

1980ko hamarkadan, EAEn, Nafarroan eta Lapurdin uni-
bertsitate berriak diseinatu zirenean, ez zen apusturik egin
guztiz euskaraz arituko zen unibertsitate baten alde. Orain

arte ez ditugu baliatu euskarazko unibertsitate batek ireki litzakeen aukerak. Hala ere, ikaragarria da 50 urteotan euskararekin unibertsitatean lortu dena. Hasieran ezinezkoa zena posible bilakatu da denborarekin. Askok uste zuten euskara ezin izango zela erabili unibertsitatean, baina Euskal Herriko unibertsitateek frogatu dute posible dela; askok uste zuten euskara unibertsitatara eramateko irakasle nahikorik ez zela egongo, baina, urtetako lanaren bidez, irakasle andana trebatzea lortu genuen. Horrela, ezinezkoa zirudiena denen

artean lortu genuen. Jendearen ilusioa, kemena eta lagun-giro ona funtsezkoak izan dira egin den horretan guztian.

UPV/EHUn ia gradu guztiak ikas daitezke euskaraz, Mondragon Unibertsitatean eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan gradu batzuk egin daitezke. Hori lortu da, bai, eta lorpen handia da. Baina etsipen-giro bat sumatzen da unibertsitateko ikerketan, masterretan eta graduondokoetan. Boloniako prozesuaren aldaketekin, gainera, graduak bost urtetik laura jaitsi ziren ikasketa gehienetan, eta kendu den urtearen ordezkodiren master gehienetan, euskara baztertuta geratu da (lanbiderako gaitasuna zuzenean ematen dutenetan izan ezik).

Plan berezirik gabe, eta Santamariak aurreikusten zuen 'Euskal Unibertsitatea' barik, gure oraingo unibertsitateetan 'ahal dena' bakarrik egiten dugu euskararekin, eta, sarritan, aldi berean euskara eta erdara landu behar dutenez, azkenean indar gehienak erdarazko jarduera sendotzearen alde inbertitzen dira ekonomia eta eraginkortasunaren izenean.

Bestalde, Euskal Herri mailan epe ertain eta luze batean euskararen ezagutza unibertsala lortu ahal izateko plan bat noizbait irekiko bagenu, horretan euskarazko unibertsitate

1980ko hamarkadan, EAEn, Nafarroan eta Lapurdin unibertsitate berriak diseinatu zirenean, ez zen apusturik egin guztiz euskaraz arituko zen unibertsitate baten alde

bat («euskal kultura eta hizkuntzaren ‘alma mater’») izugarrizko baliabide eta eragilea litzateke.

2022ra arte egindako bidea, UEUren ekarpena

Karlos Santamariak definitu zuen moduko Euskal Unibertsitatea lortzeko baldintzak ez dira berak orain eta orain dela 50 urte. Azaldu diren faktore berriak hurrengo atalean aztertuko ditugu. Ikus ditzagun lehenago Santamariak markatutako norabidean egin ditugun ahalegin nagusiak:

1. 1981ean, UPV/EHU sortu zenean, euskal lerroetako bul-tzatzaile eta zutarri izan ziren hainbat UEUkide (irakas-letzaren formazioa, materialgintza...).
2. 1995ean ‘Barandiaran Euskal Unibertsitatearen’ aldeko Patronatua eta 1999an HUHEZ Irekin batera ‘Ikasgu Nagusia’ proiektua osatu genituen.
3. 2003an, unibertsitateko graduak online eskaintzeko proiektu bat landu genuen Eusko Jaurlaritzaren, Kata-luniako Unibertsitate Irekiaren (UOC) eta UEUren ar-tean, geroago 2005ean burutzeko puntuan egon ginena. 2003an, lehen hitzarmen bat prestatu zen, baina azkenean proiektua ez zen gauzatu (garai hartan UNED eta Eusko Ikaskuntza ere aritu ziren antzeko helburuekin).
4. 2007an ‘Euskal Unibertsitatearen sustapen batzordea’ eta 2008an ‘Euskal Unibertsitatea sortzeko Fundazioa’ eratu genituen, baita 2010ean ‘Euskal Unibertsitaterako curriculum’ eta hizkuntza-proiektua proposatu ere.
5. 2016an, online graduak sortzeko bideragarritasuna aztertu genuen, eta argi ondorioztatu genuen zenbait gradu eta master emateko masa kritikoa bazegoela. Geroago gradu-ko tituluak sortzea ez da posible izan, baina hortik sortu zen 2019an *Goi-mailako Online Institutua (GOI)*, ikerketa eta online unibertsitate ikasketak sustatzeko helburuare-kin. Bide horretan, UPV/EHUrekin hitzarmena sinatu da, GOI institutua ikastegi atxiki bihurtuz. Lankidetza horretatik, 2020-2021 ikasturtetik aurrera, *Derrigorrezko*

Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Masterra elkarrekin eskaintzen dute UPV/EHUK eta GOI institutuak, lehenak aurrez aurreko modalitatean eta GOIk online modalitatean.

6. GOI ikastegiaren asmo nagusiak dira, batetik, Europako testuinguruan goi mailako ikasketen etengabeko berrikuntza bultzatzea, eta, bestetik, titulu berriak eskaintzea.

Luzea eta nahiko etsigarria izan da euskarazko unibertsitate sistemaren barruan Santamariaren *euskal kultura eta hizkuntzaren 'alma mater'* ideia hori bideratzeko ibilbidea. Baina lehen kume bat sortu dugu. Euskaraz dabilen instituzio txiki bat sortu dugu 2019an UEU eta UPV/EHUn artean: GOI ikastegia.

50 urte horietan UEU lan eta lan ibili da modu aktiboan oinarriak prestatzen. Komunitatea hazi da, 2022an 1.400 bazkide gara UEUn. Lukuru asmorik gabeko elkarteak gara, onura publikoko aintzatespena duena, eta giza talde horrek ilusioari eusten dio *euskal kultura eta hizkuntzaren 'alma mater'* bat unibertsitateak zabaltzeko. Horrela, bederatzi hauek dira Euskal Unibertsitatea sortzeko gure jarduera nagusiak: 1) *udako ikastaroak* (1973tik orain arte, 1.600 ikastaro); 2) *liburuak* (1975etik, 458 guztira); 3) *aldizkari zientifikoak* (*Uztaro* 1990, *Kondaira* 2003, *Aldiri* 2009 eta *Osagaiz* 2017); 4) *profesionalen bilkurak* (1996tik, 50 baino gehiago: Informatika, Natur Zientziak, Hizkuntzalaritza, Arkitektura...); 5) *berezko tituluak eta graduondokoak* UPV/EHUREkin (2001etik, 17 titulu eta 270tik gora tituludun); 6) *irakasleentzako formakuntza* hezkuntza-komunitatearekin lankidetzan (2001etik, Ulibarri, Prest Gara eta Haurreskolak); 7) *online metodologia* definitu eta ikastaroak antolatzea (2003tik, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz 2012tik); 8) *euskarazko ikerkuntzaren sustapena* (2015etik Ikergazte, Txiolesia eta ikerketa-bekak); eta, azkenik, esan bezala, 9) *GOI ikastegi atxikia eta Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Masterra* online (2019, UPV/EHUREkin).

Bide horretan, unibertsitate guztiekin aritu izan gara lankidetzan, batez ere UPV/EHUREkin. UEUK egitura arina duenez,

erraz ekiten die erronka berriei; emaitza onak lortu izan ditu bide berriak irekitzen, goian aipatutako bederatzi jarduera horietan, esaterako. Behin jarduera horiek euskaraz duten bideragarritasuna frogatuta, beste unibertsitateetara ere zabaldu ahal izan dira jarduera horiek. Lankidetzaren emaitza dira urrats horiek.

Hainbat alorretan aitzindari-lana egiten gabiltza etenik gabe euskara unibertsitatearekin uztartzeko bidean. *Unibertsitateen arteko lankidetz*a sustatzen ibili gara, lankidetzarako esparruak zabaltzen saiatzen.

Euskal Herrian
unibertsitate sistema
zabal eta aniztuna dugu
orain, baina zoritxarrez
euskara ez da sistema
horren ardatz bat. Horixe
da UEUK bere buruari
jartzen dion erronka

Hitzarmenak sinatu ditugu hainbat unibertsitate eta erakunderekin (UPV/EHU, NUP, Deustu, Mondragon, UOC, Euskaltzaindia, I2Basque...), baita administrazioarekin ere (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde Publikoa, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia).

Unibertsitateez gain, euskal kulturako beste erakunde batzuekin ere aritu izan gara, formalki mundu akademikoan ez daudenak, baina bai praktikan: Jakin, Elhuyar, Soziolinguistika Klusterra, Eusko Ikaskuntza...

Udalekin ere bai, gero eta elkarlan handiagoa dugu udalekin, batez ere bizialdi osoko trebakuntzaren eta herri-zientziaren testuinguruan: Eibar, Errearteria, Usurbil, Azpeitia, Iruñea, Donostia, Bilbo, Baiona, Gasteiz... Hor ere UEUren zeregina gero eta garrantzitsuagoa izango dela uste dugu.

xxi. mendeko jokaleku berriak gizartean

Berrogeita hamar urteotan gure herrian aldaketa handiak egon dira, eta unibertsitateena izan da handietako bat. Euskal Herrian unibertsitate sistema zabal eta aniztuna dugu orain,

baina zoritxarrez euskara ez da sistema horren ardatz bat. Hauxe da UEUK bere buruari jartzen dion erronka: euskara ardatz edukiko duen unibertsitate sistema baten alde bultzatzea eta gauzatzen laguntzea. Gainera, gertatu diren aldaketa sozial eta teknologikoak kontuan hartuta egin behar dugu hori. Eta zein dira gure gizarteak izan dituen aldaketa sozial eta teknologiko horiek?

Euskarak frogatu du goi mailako formazio akademikorako baliagarria dela. 1977an, Adolfo Suárezek berak ezinezkotzat jotzen zuen fisika edo kimika unibertsitatean erabiltzea. 2022an, ia gradu eta titulazio guztiak euskaraz egin daitezke, ez unibertsitate guztietan baina. Amets hutsa zen hori orain dela 50 urte. Euskara batuaren definizioarekin abiatuta, belaunaldi dinamiko eta indartsu batek, instituzioen laguntzarekin, mirari bat sortu zuen, eta unibertsitate mailara heldu da bertako hizkuntza. Oraindik ez dago erabat sendo, baina etengabe gabilta aurrerapausoak ematen.

Baliabide tekniko ahaltsu berriak agertu dira teknologiaren aldetik. Berrikuntza horiek aukera berriak eta jokaleku berriak ekarri dizkigute. UEUn badakigu, jakin, aldaketa horiek onerako edo txarrerako izan daitezkeela euskal unibertsitatea eraikitzeko bidean. Aukera berri horien aurrean motel bagabiltza, eremua galduko dugu, gure proiektua ahulduko delako; baina bizkor eta osagai positibo berriekin jokatzen badugu, euskaraz biziko den unibertsitate bat errazago lor dezakegu.

Unibertsitate berri asko sortu dira azken 50 urteetan. Duela 50 urte Euskal Herrian ez zegoen apenas unibertsitate publikorik, eta, jakina, guztiz ezinezkoa zen karrera bat euskaraz ikastea. Hasieran sortu ziren unibertsitateak publikoak ziren: Eusko Jaurlaritzak UPV/EHU sortu zuen (1981), Bidarteko ESTIA Ingeniari Eskola Baionako Merkataritza Ganberak (1985) eta NUP/UPNA unibertsitatea Nafarroako Gobernuak (1987). Gero, Mondragon Unibertsitatea sortu zen, unibertsitate kooperatibo gisa, irabazi-asmorik gabea, eta onura publikokoa; hasieran, UPV/EHUn ikastegi atxikia izan zen 1997ra arte.

Harrezkero, eta azkenaldian batez ere, unibertsitate pribatu ugari sortu dira helburu komertzial hutsekin. Horrela, Euskal Herriko ikasle askok online ikasi du Valentzia edo Errioxako unibertsitateetan. Eta globalizazioaren erraldoia den Google bere online titulazio berriak hasi da zabaltzen munduan zehar.

Unibertsitate pribatuen ugaltze hori eta mundu mailako korporazio handiak bultzatzen ari diren heziketa-ereduak berdintasunaren eta kultur aniztasunaren aurka etor daitezke. Hausnarketa egin behar da mehatxu horretaz. Bestalde, harrigarria bada ere, pribatizazio-joera horren erdian, Araban kezkatuta omen zeuden unibertsitate pribaturik ez zeukatelako, eta 2021ean Eusko Jaurlaritzak ez du arazorik izan unibertsitate pribatu bat di-da batean onartzeko. Diru publikoak ere mugituko omen dira horretan epe laburrean. Bitxia da hori, bai, batez ere jakinda 20 urte direla euskarazko online titulazioak emango dituen aukera bat zabaltzeko proposatzen ari garela eta ezinezkotzat jo izan dela proiektu berriak sortzea, nahiz eta askoz merkeago aurrera atera zitezkeen proposamenak izan. Bilbo inguruan ere, Zorrotzaurren unibertsitate-oinarria duen proiektu urbanistiko handi bat plazaratu denean, tamalez ez da jarri mahai gainean Bilbo euskalduntzeko bizigarri izan daitekeen proiektu akademiko ilusionagarririk; ingelesa omen da horrelako proiektuentzako ‘bizigarri’ nagusia eta bakarra. Eta Bilbo makrohiria euskalduna izatea erronka estrategikoa da XXI. mendeko euskararentzat. Imajinazio handia eta proiektu estrategiko kolektibo eta ilusionagarriak behar ditugu Bilbo makrohiria dinamizatzeko eta euskalduntzeko. Euskararen inguruko kulturaren lortzen ari garen berreskuratzeko-prozesua beste hizkuntzetarako ere eredu baliagarri izan daitekeela zabaldu beharko genuke mundu mailan, eta antzeko egoeran dauden beste herrialdeekin sinergiak abiarazi.

Ikerkuntzak pisu handia hartu du unibertsitateetako aurrekontuetan eta irakasleen jardunean. Ikerketa-oinarririk ez zegoen orain dela 50 urte, baina orain ikerketa egunero jarduna da hainbat zentrotan eta hainbat pertsonarentzat. Ekonomiaren sektore primariotik abiatuta, *ezagutzaren*

gainean dabilen gizartea antolatzen ari gara orain. Gainera, gazte ikerlari ‘ikergazte’ asko ditugu gure artean, euskara ere mundu horretan hasi baita kokatzen. Dagoeneko ez bat eta ez bi, 851 doktorego-tesi irakurri dira euskaraz, eta unibertsitateko alor guztien artean nahiko homogeneoki banatuta (ikus Tesiker datu-basea: www.euskadi.eus/tesiak). Pozgarria da hori, pentsaezina baitzen orain dela 50 urte maila honetara helduko zela. Kezkagarria izan daiteke, baina, kultura txikiei ez ikusiarena egiten dieten irizpide automatikoak erabiltzen direla ikerketan arrakasta neurtzeko. Bikaintasuna bultzatu behar da, bai, baina elitismoan erori gabe eta herrigintzaren beharretatik aldendu gabe. Ikerkuntza pribatizatzeko joera dagoela ikustea ere kezkagarria da. Baina, beste aldetik, oso pozgarria da ikustea inoizko ikertzaile gazte formatuenak ditugula, eta, Ikergazte bezalako bilkurak antolatu direnean, giro ezin hobea sortzen dela ikerkuntzaz hitz egiteko eta proiektu berrietarako diziplinarteko ideiak agertzeko.

Bizialdi osoan zeharreko formakuntzan aldaketa nabarmenak gertatu dira lan-munduan. Lanpostu batean aritzeko beharrezkoa den formazioa ez da bukatzen 25 urte bete-tzean; bizialdi osoan ibili behar da ikasten orain. 2022ko errealitatean, lehen eta bigarren sektoreak ez dira ekonomiaren motorra, eta *prestakuntzaren* beharra egunero dago presente alor gehienetan. Lan-ohituretan eta moduetan ikusten dugun eboluzio azkar hori formazio-bide berrien eskutik etorriko da; edo, bestela, lehiakortasun-parametroetan galera handia izango dugu. *Unibertsitate eta enpresaren* arteko hurbilketa etorriko da. Testuinguru horretan zenbait urrats egin dira euskarari begira, baina oraindik asko falta da euskara enpresen dinamikan ondo sartzeko. Unibertsitateko azken mailetan, graduondoko eta masterretan zein etengabeko formazioan, euskararen presentzia oso urria da. Gainera, euskara enpresetan sartzeara oztopatzen duen gupil zoro moduko bat gertatzen ari da: enpresek euskara eskatzen ez dutenez, euskaraz ikasteko eskaera txikiagoa da; baina, gero, ikasle gutxi dagoenez, euskara planetan-eta sartzaren diren

enpresetan aditu euskaldunak aurkitzea zaila da. Bi mundu horien arteko zubi-lanak eraiki beharko dira.

Digitalizazioa iraultzen ari da gizartea. *Hezkuntza formal* zein *ez-formalean* joka dezakeen rola aztertu behar dugu, etorkizuneko gizartearen eraikuntzan euskarazko online ikasketak maila guztietan proposatu daitezke. Europak Next proiektuetarako markatzen dituen lerro nagusiak bi dira: *berrikuntza* eta *etengabeko formazioa*. Eta biekin oso lotuta daude guk darabiltzagun gaiak: unibertsitatea, ikerkuntza, transferentzia enpresara egitea, udalerrien etorkizuna, euskararen ikaskuntzarako tresnak... Etengabeko formazioa landu beharko dugu teknologia berriekin, jakina, baina unibertsitate-graduak online eta euskaraz sortzeari ere ekin beharko genioke. Euskal Unibertsitatea eraikitzeko bidean, urrats kualitatibo esanguratsua izan liteke *euskarazko online unibertsitatea*. Gainera, proiektu ezin hobea da lankidetzaz garatzeko, unibertsitate sistemaren onerako, gainera. Etsipenez ikusten dugu aukera historiko bat galtzen ari garela bide hori bazterrean utzita. Inbidiaz ikusten dugu katalanek UOC unibertsitatearekin lortu dutena. EADTU sarearen arabera (*European Association of Distance Teaching Universities*: <https://eadtu.eu/about-eadt/about-eadt>), European unibertsitateetako ikasleen %24 online aritzen dira. Espainian eta Euskal Herrian %16ra ere ez dira ailegatzen. Katalunian oraindik urruti badaude ere, UOCi esker, 2019an %21era heldu ziren.

Hazkuntza-joera nabarmena dute ikasketa ez-presentzialek eta online modukoek. Gure demografiaren bilakaerak indartuko du joera hori; unibertsitateko ikasleen artean gero eta gehiago izango dira 25 urtetik gorakoak, European horrela gertatzen da orain. Graduak online-titulazioetako ikaslea ez da unibertsitate presentzialetako ohiko ikaslea (18-25 urteko ikaslea), baizik eta horietara bertaratzeko arazoak dituen, baita ikasketa-prozesua bere bizi-erritmora egokitze aukera behar duen oro ere. Gauzak horrela, online modalitatean eta ikasketa presentzialean ikaslearen erritmoa eta metodologia desberdinak direnez, *eredu pedagogiko desberdin bati*

jarraitu behar zaio online modalitatean. Ez da tribiala eredu batetik bestera pasatzeko prozesua.

Gure inguruan UNEDek mantentzen ditu bere kopuruak, baina UOCek eta beste online unibertsitate pribatuek gorako joera nabarmena dute. Salbuespenak salbuespen, halako ikasketak, batez ere graduak, ezin dira gaur egun euskaraz ikasi. Beraz, hutsune hori betetzea derrigorrezkoa da. Gainera, halako egitasmo bat oso ondo kokatzen da Europak pandemia garairako markatu dituen lerro nagusiekin: digitalizazioa eta berrikuntza. Horrez gain, Euskal Herriko unibertsitate eta administrazio desberdinen arteko lankidetzarako esparru interesgarria da. Gainera, aukera bat izan daiteke lan-munduan euskara hobeto txertatu eta irakaskuntza duala indartzeko.

Proposamena

Agian bada beste aukerarik, baina, besterik ezean, UEUtik proposamen bat plazaratzen dugu Karlos Santamariaren bidetik urrats bat egiteko, *euskal kultura eta hizkuntzaren 'alma mater'* izan beharko lukeen euskarazko unibertsitatea sortzeko.

Besterik ezean, UEUtik ikusten dugu kostu handiegirik gabe euskarazko online graduak eskaintzeko gune aitzindari bat sor dezakegula. Online irakaskuntzaren eskaeraren joera gorakorra den une honetan, garai egokian gaude erronka horri ekiteko; egin ditugun aurreazterketek ziurtatzen dute gizartean eskaera nahikoa badagoela, eta baita eskaintza bideratzeko irakasleak ere.

Ez dugu eskatzen unibertsitate berri oso bat adreiluekin fisikoki eraikitzea. *Low cost*-ean bidera daitekeen euskal gune unibertsitario 'merke' eta emankorra sortzea proposatzen dugu. Posible da.

UEUtik proposamen bat plazaratzen dugu Karlos Santamariaren bidetik urrats bat egiteko, *euskal kultura eta hizkuntzaren 'alma mater'* izan beharko lukeen euskarazko unibertsitatea sortzeko

Noski, unibertsitateen arteko lankidetzan oinarritu beharko da. Instituzioetatik eta gizarte militantziazatik eraiki behar da, biak ala biak dira beharrezkoak. Kontsentsurik gabe ez dugu lortuko. Lankidetzarako esparru ezin hobea izan daiteke, baita administrazio publikoarekin (Eusko Jaurlaritzarekin hasieran, gero Nafarroako Gobernuarekin zein Euskal Hirigune Elkar-goarekin) eta bestelako eragileekin ere (enpresak, udalak...).

UEU izan daiteke Euskal Unibertsitate Sistemako *agente horien guztien arteko eragile eta bilgunea*, baina badira *elkar-lan hori ofizialki bideratzeko beste aukera batzuk*. Adibidez, hiru aukera posible izan daitezke hauek: 1) zentro atxiki bat antola liteke UPV/EHUrekin, eta hortik lankidetzan aritu beste hainbat unibertsitatearekin; 2) egun unibertsitateen arteko G9 Taldean erabiltzen den lege-egitura erabil liteke unibertsitateen arteko ‘campus birtual bat’ koordinatzeko; edo 3) administrazioak definitutako kontratu-programa baten barruan hainbat unibertsitate koordina daitezke.

UEUk, 50. urteurrenean, urrats kualitatibo baten beharra ikusten du euskal unibertsitate sistema eraikitze bidean, inertziatzeko normalizazio-prozesu motelez harago joango dena, gizartearen, kulturaren, ikerkuntzaren eta jakintza unibertsalaren katalizatzailea izango dena euskaratik.

Administrazioetik edo akademiatik horretarako beste go-goeta eta proiektu nagusirik aurkezten ez bada, UEUtik bide horretan urrats posibilista eta txiki bat proposatzen dugu: azkenaldian sortutako teknologia berriak baliatuta, ekonomikoki ‘merkea’ eta sozialki bideragarria den proiektu bat.

UEUn, betiere, jarraituko dugu komunitate zientifiko intelektuala elikatzen; betiere, jarraituko dugu argitalpenak, dibulgazioa, ikerketa eta goi mailako online irakaskuntza sustatzen; baina urrats kualitatibo sendo baten beharra ikusten dugu... Gizarteari eta administrazioei apustu horri lankidetzan ekiteko deitzen diegu. Berrikuntzaren eskutik, Euskal Herria egituratzeko aukera eskaintzen duen proiektu berritzaile garrantzitsua sor dezakegu. Bide batez, gizartearen digitalizazio-prozesuan lagundu eta euskara erdigunera ekarriko dugu. 🌸

Euskal Unibertsitatea ala Euskal Herriko Metabertsitatea?

Iñaki Goirizelaia Ordorika

*UPV/EHUko errektore ohia eta Ingeniaritza Telematikoan
katedraduna*

JAKINEK, Euskal Unibertsitatearen inguruko iritziak eskatzeko deialdian, «Euskal Unibertsitatea definitzean, 1975ean, UEUko batzar nagusiak ezaugarri hauek proposatu zituen: nazionala, herritarra eta euskalduna» gogorarazten zigun.

Zoritxarrez, Euskal Herriaren historian zehar ez da egon unibertsitate tradiziorik, eta ausartzen naiz esatera oraindik ez daukagula. Unibertsitate tradizio handia daukaten herrietako unibertsitateen ezaugarriak aztertuz gero, UEUko batzar hartan proposatu ziren ezaugarri horiek ez dira agertuko lehentasunen artean. Horregatik, tradizio horren faltak, zalantzarik gabe, ezaugarri horien proposamena baldintzatu zuen erabat. Gaur egun, unibertsitate-jarduera oro gidatu behar duen giltzarri gisa jakintza ez planteatzea guztiz onartezina litzateke. Ezaugarri horiek proposatu zirenean, agian, unibertsitatearen zeregina zein zen ez zegoen oso argi.

Bestalde, egia da mundu mailan eragin handiena izan duten unibertsitate horiek erabiltzen duten hizkuntza ez dagoela arriskuan, gurea zegoen eta dagoen bezala. Beraz, ez dute, eta ez dute inoiz izan, guk garai hartan geneukan beharra,

hau da, euskara unibertsitate-mailako hizkuntza bihurtzea. Bere hizkuntza unibertsitate mailako hizkuntza izatea lortzen ez duen herri batek oso zaila izango du, ezinezkoa ez bada, naziotzat onartzea nazioarteko testuinguruan.

Unibertsitategintzan ari garen gehienok oso ondo dakigu jakintza dela gure helburua, jakintza sortzea eta jakintza zabaltzea, eman ta zabal zazu. Gainera, gehienok ere onartzen dugu jakintzak ez daukala ez naziorik, ez jabetzarik. Ikerketak taldeetan sortzen dugun jakintza denon esku ipini behar dugu, horretarako egokiak diren baliabideak erabiliz; hau da, aldizkari zientifikoak, kongresuak, liburuak, ikerketaren emaitzen dibulgazioa...

Argi dago gure herri honek ez zeukala, eta agian oraindik ere ez, unibertsitate tradizioz, eta horrek erabat baldintzatu zuen ezaugarri horien proposamena. Pandemiak gutxienez eragin positiboren bat izan du. Azken urteetan nabarmen ikusi da unibertsitategintzan gaudenok oso ondo dakigun zerbait. Unibertsitatearen funtsezko zereginak ez du zerikusi handirik hizkuntza edo nazio batekin, baizik eta, funtsean, ezagutza sortzearen bidez pertsonen ongizatearekin du zerikusia, eta etorkizuneko erronkei erantzun egokia eman ahal izateko pertsona horiei goi mailako formakuntza ematearekin.

Sarrerarekin jarraitzeko, argi adierazi nahi dut Euskal Unibertsitatea vs Euskal Herriko Unibertsitatea zentzurik gabeko dilema iruditzen zaidala. Batzuetan aurrez aurreko kontzeptu gisa aurkezten dira, nire ustez oinarririk gabe eta datuetan oinarritu barik. Ematen du, UEUk zehaztutako parametro horien arabera, Euskal Herriko Unibertsitatea ez dela Euskal Unibertsitatea; baina, gaur egun, ausartzen naiz esatera ez dagoela Euskal Herri osoan Euskal Herriko Unibertsitatea baino euskaldunago, herritarrago eta nazionalagorik. Baina ezaugarri horien bila joan behar dugu? Ala jadanik lortuta daude?

Euskal Unibertsitateaz aritzea proposatzen diguten unean, metabertsitateak (*metaverse* + *university* = *metaversity*) sortzen ari dira munduan zehar. Hori bai da kezkatzen nauen gaia. Jarraian azalduko dudana bezala, Euskal Unibertsitatearen

ezaugarri horiek guztiz garatuta daude gaur egun UPV/EHUn. Alde horretatik ez dago kezkatzeko arazorik.

Gaur egungo unibertsitate-ereduak badu bere iraungitze-data. Ez naiz ausartzen zenbat denbora falta den esatera, baina, zalantzarik gabe, metabertsitatearen kontzeptuak bizitza akademikoaren garapen osorako gaitasun eta aukera berriak eskainiko ditu, nire ustez laster egungo ereduarekin amaituko dutenak. Metabertsioak eta batez ere metabertsitateak gure gazteengan eta gure etorkizunean izango duten eraginak kezkatzen nau, hori bai da eztabaidatzeko gaia. Zoritxarrez, gai hori oraindik ez dago inoren agendan.

Zertarako balio behar du unibertsitate publikoak?

Beti irudikatzen dut Baskoniaren etorkizuna *Jakintza*ren *Euskal Komunitate Kulture* gisa. Komunitate hitza aipatzen dudanean, oso zentzu zabalean ulertzen dut, muga fisikorik gabe, non kultura eta atxikimendua komunitate horren parte sentitzeko oinarriak diren. Komunitate horri buruz pentsatzen dudanean, Euskal Herriko biztanleak, diaspora eta ziberespazioan daudenak ditut buruan.

Jakintza eta euskal kultura gure oinarriak dira. Zutabe bi horien gainean edozein berrikuntza, edozein proiektu eraiki dezakegu. Baina horiek barik ez dugu aukera askorik. Zerbait berria lortzeko, zerbait desberdina egiteko, berritzaileak izateko, munduko plazan gure tokia izateko, jakintza eta euskal kultura behar ditugu.

Jakintza eta kultura era desberdinetan lortzeko aukera dago; baina, gure kasuan, agian, unibertsitatea da helburu hori lortzeko daukagun tresnarik garrantzizkoenetarikoa.

Argi adierazi nahi dut
Euskal Unibertsitatea
vs Euskal Herriko
Unibertsitatea zentzurik
gabeko dilemma iruditzen
zaidala. Batzuetan aurrez
aurreko kontzeptu gisa
aurkezten dira, nire ustez
oinarririk gabe

Euskal Herriko unibertsitate publikoak pertsonen ongizatea ahalbidetzeko behar den jakintza sortu behar du, pertsona kultu eta kritikoak hezi behar ditu, gizarte aldakorraren erronkei erantzuteko behar den eskaintza akademikoa eman behar du, herritar guztiengana iritsi behar du zientzia-dibulgazioaren bidez, jakintzaren transferentziaren bidez edozein tokitara heldu behar du, berrikuntza industrialak zein sozialak ahalbidetuz, eta, garrantzizkoena dena, meritu akademikoak dituzten pertsona guztien aukera-berdintasuna bermatu behar du.

Beraz, niretzat Euskal Unibertsitatearen ezaugarriak hauek izan behar dute: pertsonen ongizatea helburutzat hartzea, euskal kulturaren babesle eta sustatzailea, ikertzailea, pertsona kritiko eta kultuen hezitzailea, zientzia-dibulgatzailea, jakintzaren transferentziaren bidez gizartearen eraldatzen duena, feminista eta aukera-berdintasunaren bermatzailea.

Gainera, funtsezkotzat jotzen dut gure unibertsitatearen ezaugarri horiek guztiak nazioarteko ikuspegiarekin gartztea, munduari begira, munduan ezagutaraziz gure gaitasun zientifikoa, hezitzailea eta jakintza sortzeko ahalmena. Beraz, nazioartean ere erakargarriak izan behar dugu. Ikertzaile onenek, ikasle onenek gure unibertsitatara etorri nahi izan beharko lukete.

Nola hezi behar ditugu gure ikasleak?

Onespen zabala duen heziketa prozesu batekin asmatzea konplexua da. Jakina, ikasleek hautatu duten lanbidean beharko dituzten jakintza eta konpetentziak landuz, heziketa sakona eman behar diegu.

Ikasleak bizitza osoan zehar lan egiteko gai izan daitezen hezi behar ditugu, eta, horretarako, pertsona jantziak hezi beharra dugu. Gure ikasleei jakin eta ikasteko grina piztu behar diegu, ulertzeko gogoak, jakintzarekiko pasioa, lanarekiko konpromisoa... Egungo interpretazioak ezbaian jar ditzaten, jarrera kritikoak izan dezaten, argumentatzen ikas dezaten egin behar du lan unibertsitate publikoak.

Taldean lan egiten, ekimenean, berdintasunaren defentsa aktiboan eta ingurumenaren babesean irakatsi behar diegu, bai eta kultur aniztasuna eta inklusioa gizartearen funtsezko balioak direla ere.

Herri baten ondorengoak direla irakatsi behar diegu, berezko kultura eta hizkuntza dituen, normaltasunez erabili behar duguna arlo guztietan. Hori guzti hori, ahaztu barik munduan egon beharra dugula; garena, egiten duguna zein izan nahi duguna komunikatzen jakin behar dugu hemen zein nazioarteko testuinguruan. Gure sustraiak non dauden jakinik, nazioarteko presentzia areagotzeko kultura sustatu behar dugu.

Bestalde, hezkuntza praktikoa da ezinbesteko osagaia ikasleen prestakuntzan, eta, helburu hori lortzeko, euskal gizarteak eskaintzen dituen aukera guztiak erabili behar ditu unibertsitate publikoak. Hezkuntza duala da adibide horietako bat, baina ez da bakarra.

Unibertsitate publikoak bere berezko heziketa-eredu malgua eduki behar du, autonomia osoarekin diseinatuta, inolako eredu eta egitura uniformatzailearen mende egon gabe. Ondoren ikusiko dugunez, egiten dugun planteamendu hori guztiz baldintzatuta dago garapen teknologikoaren bidez. Beraz, planteamendu hori ingurune birtualetan egokitzen jakin behar dugu.

Ba al du zentzurik unibertsitate bat hizkuntza batekin lotzeak? Hau da, ba al du zentzurik unibertsitate euskaldunari buruz hitz egiteak?


Unibertsitate euskalduna izatearen ezaugarria proposatu zenean, unibertsitatearen zeregin nagusia, hau da, jakintza, alboratu zela iruditzen zait. Unibertsitateetan hizkuntza desberdinak erabili behar dira normaltasun osoz egunero. Euskaraz bakarrik hitz egiten duen unibertsitateak ez zeukan zentzurik 1975ean, eta ez dauka zentzurik XXI. mendean. Hori esanda, hil ala bizikoa zen euskarak unibertsitatean behar zuen presentzia duina lortzea. Zalantzarik ez daukat,

gure unibertsitatean euskarak lehen aukera izan behar du. Arestian esan dudan bezala, ez dago modurik munduan aintzatetsiak izateko, euskara ez bada unibertsitate-mailako hizkuntza. Hori ezin da inoiz ahaztu, eta hori da, hain zuzen, gure unibertsitatearen benetako eginkizuna: *euskara unibertsitate-mailako hizkuntza izatea* inolako arazo barik, inolako diskriminaziorik gabe.

Gaur egun, Euskal Herriko Unibertsitateak helburu hori lortu du jadanik. Neurri handi batean, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileei esker, euskara unibertsitate-mailako hizkuntza bihurtu da. Edozein gairi buruz ikas daiteke euskaraz. Ikerketa talde askotan komunikatzeko hizkuntza euskara da. Gainera, euskarazko liburu zientifikoan, testuliburuaren edo artikuluko zientifikoaren ekoizpenak muga guztiak gainditu ditu. Horrez gain, ikertzaileek zientziaren dibulgazioa euskaraz egiten dute normaltasun osoz.

Unibertsitate euskalduna lortu dugula frogatzeko, hainbat datu interesgarri daude. Adibidez, UPV/EHUn euskaraz matrikulatzen den ikasle kopurua etengabe handitu da. Gaur egun, gutxi gorabehera %60 dira. Duela hogeita hamar urteko datuekin alderatuz gero, izandako hazkundea ikaragarria da (ikus 1. grafikoa).


1. grafikoa. 1. mailan euskaraz matrikulatutakoak



Gaur egun, graduatan dagoen derrigorrezko irakasgaien eskaintza oso esanguratsua da. %99 lortu da (ikus 2. grafikoa). Orain dela 20 urteko eskaintza %52 zela ikusita, benetan pauso onak eman dira. Graduondokoetan euskarak duen presentzia ez da hain handia, baina, nire ustez, graduondokoetan euskarazko eskaintzak beste hizkuntzez egiten denarekin batera joan behar du. Ez da egokia graduondokoak euskaraz bakarrik eskaintzea. Hemen salbuespen bakarra egon daiteke: graduondoko profesionalak, nire ustez horiek euskaraz ere eman behar direlako.

Baina bilakaera hori itzela da. Egindako ahaleginaren ondorioz eta estrategia egokia jarraituz, UPV/EHUn urtero 275.000 ordu ematen dira euskaraz; hau da, egunero (oporrak kenduta) 920 ordu. Zenbaki izugarri handiak dira, hori bai da benetako eskaintza euskalduna.

2. grafikoa. Graduko derrigorrezko irakasgaiak




Ikerketari dagokionez, nire ustez, ezin da esan ikerketa frantsesez edo espainolez egiten denik. Hau askotan entzuten da: ikerketa euskaraz egin behar da. Horrek ez du ez hankarik ez bururik. Ikerketa metodo zientifikoa erabiliz egiten da. Beste gauza bat da ikertzaileen arteko harremanak euskaraz gauzatzea ala txineraz. Eta beste gauza bat da lortutako

ikerketaren emaitza munduan zabaltzeko zein hizkuntza erabili behar den. Zoritxarrez, ingelesa da nazioarteko komunitate zientifikoak aukeratu duen ikerketaren emaitzak zabaltzeko hizkuntza. Onartu ala ez, hori da gure dilema; baina, herri gisa munduan egon nahi badugu, ingelesa erabiltzea onartu behar dugu nahitaez. Nire iritzia oso argi utzi nahi dut: *ikerketak ez du hizkuntzarik*. Ez dezagun galdu denbora eztabaida honetan.

Baina, arlo honetan ere, UPV/EHUK berebiziko eginkizuna dauka: *euskarazko doktorego-tesien ekoizpena*. Egun, 60 tesi baino gehiago idatzi eta defenditzen dira euskaraz urtero. Hori bai da guri dagokigun eginkizuna, guk ez badugu hori egiten, inork ez baitu egingo munduan.

3. grafikoa. Euskarazko doktorego-tesiak




Gaur egun, euskararen unibertsitatea badaukagula harro esan dezakegu, eta hori Euskal Herriko Unibertsitatea da. Datuak besterik ez dira ikusi behar. Lortu duguna izugarria da, 275.000 ordu baino gehiago irakasten dira euskaraz urtero eta 60 doktorego-tesi baino gehiago defenditzen dira euskaraz (ikus 3. grafikoa). 1975ean, unibertsitate euskaldun bati buruz eztabaidatzean, norbaitek esan izan balu euskararen egoera honetara iritsiko ginela unibertsitate publikoan 2022an, inork ez zuen sinetsiko.

Harrotasunez esan dezakegu euskarak lortu duela unibertsitate-mailako hizkuntza izatea UPV/EHUn jadanik; hau da, unibertsitatean «behar zuen tornua» eman diogu. Arazoa da komunitate akademikoan euskara normaltasun osoz erabiltzea. Tamalez, hori oraindik ez dugu lortu, eta ziur aski ez dugu inoiz lortuko. Zoritxarrez, hori ez da unibertsitatean bakarrik gertatzen. Gazteen arteko harremana euskaraz izatea lortu barik dago ikastoletan, eskoletan, ikastetxeetan, herriko kaleetan, lantegietan, tabernetan... Unibertsitateko nire ikasleek ikasgelatik irten bezain laster gaztelaniaz hitz egiten dute beren artean. Hori da gure benetako erronka, ez unibertsitatean bakarrik, baita gizarte osoan ere.

Hau askotan entzuten da: ikerketa euskaraz egin behar da. Horrek ez du ez hankarik ez bururik. *Ikerketak ez du hizkuntzarik.* Ez dezagun galdu denbora eztabaida honetan

4. grafikoa. Euskara eskakizuna duten irakasle eta ikertzaileen lanpostuak



Baina, hori dena egia izateko, administrazio eta zerbitzuetako langile, irakasle eta ikertzaile euskaldunak behar dira. Egun, euskara-eskakizuna duten irakasle-ikertzaile plazez

geroz eta proportzio handiagoa dute, eta gora egin du eten-gabe azkeneko 20 urteetan (ikus 4. grafikoa). Horri esker, posible izan da euskarazko eskaintza akademikoa nabarmen handitzea.

Atal honetan egin dudan galderari erantzuna ematen auzartuko naiz jarraian. Ez, ez du zentzurik unibertsitate bat hizkuntza bakar batekin lotzeak. Baina, aldiz, badu zentzua hizkuntza gutxituek unibertsitateko hizkuntza-maila lortzeak, herri gisa izango dugun etorkizunerako funtsezkoa delako. Beraz, niretzat kontzeptu hau, ‘unibertsitate euskalduna’, hau da, euskaraz bakarrik jarduten duen unibertsitatea, ez da egokia. Unibertsitate euskalduna da euskara unibertsitate-mailako hizkuntza dela onartzen duen unibertsitatea, edozein jarduera akademikotan euskara normaltasun osoz erabiltzen duen unibertsitatea. Baina unibertsitate horretan aritzen direnek munduko edozein tokitan lan egiteko gai izan behar dute, edozein erronka teknologiko edo soziali soluzioak emateko gai izan behar dute; horretarako, hizkuntzak tresna egokiak dira, behar-beharrezkoak. Beraz, gaur egun, unibertsitate euskaldunaren kontzeptua zabaltzea egoki ikusten dut: hau da, euskara unibertsitate-mailako hizkuntza duena, eta beste hizkuntzak ere erabiltzen dituen batez ere graduondokoetan eta ikerketan.

Unibertsitateetan erabiltzen diren hizkuntzei dagokienez, teknologia da berebiziko garrantzia duen beste gai bat. Teknologiarik esker, etorkizun hurbilean hizkuntza ez da izango arazoa unibertsitateetan. Ez da egongo inolako arazorik irakasle batek euskaraz eskolak emateko eta ikasle bakoitzak aukeratzen duen hizkuntzaz entzuteko. Interpretazio automatikoa egunero erabiltzen dugun zerbeit izango da, eta, beraz, teknologiak unibertsitate euskaldunaren kontzeptua erabat baldintzatuko du.

Teknologiaren ibilbide zirrargarri horretan, ezinezkoa da hurrengo urteetan zer gertatuko den asmatzea. Ez dakit noiz gertatuko den, baina hizkuntzen arteko interpretazio-sistema automatikoei esker, baliteke laster munduko unibertsitate

guztiak eleaniztunak izatea. Menderatzen duten hizkuntza edozein dela ere, irakasle eta ikertzaile onenen jakintzaz baliatzeko aukera izango dugu. Teknologiak egoera berri hori ahalbidetuko balu, Euskal Herriko unibertsitate publikoak beti izango luke erantzukizun handi bat: euskara unibertsitate-mailako hizkuntza izatearen bermatzailea izatea. Estrategia berria diseinatzen hasteko une egokia da.

Ba al du zentzurik unibertsitate bat nazionala bakarrik izateak?

Munduan zehar asko dira nazional izenondoa erabiltzen duten unibertsitateak. Ez dakit argi zer esan nahi duten izenondo hori erabiliz. Agian, nazioaren lurralde osoan jarduten ari direla bakarrik; baina hori unibertsitatearen kontzeptuaren beraren aurka doa. Unibertsitateek ez dute muga fisikorik, jakintzak ez du mugarik; ondorioz, unibertsitateetan beti egon behar dugu prest munduan zehar erakargarriak izateko.

Unibertsitate nazionalaren kontzeptuaren bidez euskararen lurraldean unibertsitateak presentzia eduki behar duela ulertzen bada, zalantzarik gabe hori lortuta dago jadanik UPV/EHUn. UPV/EHuko ikasleak euskararen edozein lurraldetatik datoz, eta ikerketa taldeen eragina euskararen lurralde guztietan nabarmentzen da.

Argi dago euskararen lurraldea dela gure unibertsitatearen helburua, baina ahaztu barik munduan egon behar dugula, erakargarriak izan behar dugula munduko edozein tokitan, bai ikasleentzat, baita ikertzaileentzat ere. Hau da, nazioren

Ez du zentzurik
unibertsitate bat
hizkuntza bakar batekin
lotzeak. Baina, aldiz,
badu zentzua hizkuntza
gutxituek unibertsitateko
hizkuntza-maila lortzeak,
herri gisa izango
dugun etorkizunerako
funtsezkoa delako

batean egon behar bada, gure unibertsitateak jakintzaren nazioan egon behar du.

‘Nazional’ kontzeptuari dagokionez, mugaz gaindiko campusen ideia aipatu behar da. Unibertsitateek aliantza egokiak behar dituzte beren helburuak hobeto lortu ahal izateko, eta, bide horretan, *mugaz gaindiko campusak* tresna egokiak dira. Adibidez, UPV/EHUK, kontzeptu hori erabiliz, Bordeleko Unibertsitatearekin mugaz gaindiko campusa sortu du, eta Euskampus¹ proiektua da horren adibidea.

Unibertsitate gehienek partekatzen dute graduak eta graduondokoak munduko beste unibertsitateekin lankidetzan eskaintzeko helburua, hezkuntza globala ahalbidetuz. Gainera, nazioarteko lankidetzak funtsezkoa da ikerketan. Doktorego-tesien zuzendariak bi unibertsitate desberdinetakoak izatea interesgarria eta aberasgarria izaten da ikertzailearentzat. Gaur egun, inork ez du ulertzen ikerketa pertsona batek bere bulegoan edo laborategian egindako gertaera isolatutzat. Gure ikasleen prestakuntza praktikoa ere hobeagoa izango da beste unibertsitate batzuekiko balizko trukeei esker. Gainera, gure kasuan, euskal diasporaren presentzia nabarmena den lurraldeetan, *ozeanoz gaindiko campusen* ideia sustatzeko apustua egin beharko genuke: Boisen, Renon, Buenos Airesen, Santa Barbaran...

Nire ustez, unibertsitate nazionalaren kontzeptua erabat zahartu da eta, gaur egun, ez du zentzurik. Gure apustua mugaz gaindiko edo ozeanoz gaindiko campusek izan behar dute, eta, noski, teknologiaren garapenak helburu hori lortzea asko erraztuko du. Gure sustraian oinarrituta, nazioarteko lankidetzak bultzatu behar dugu esparru akademiko guztietan. Nazioartean erakargarriak izan behar dugu. Horrenbestez, edozein ikaslek edo ikertzailek, nazioarteko egonaldi akademikoa egin nahi duenean, gure unibertsitatea aukera paregabe gisa ikusi behar du. Hori ez da lortzen gure zilborrari begira, hori ez da lortzen unibertsitate nazionala izaten bakarrik.

Ba al du zentzurik unibertsitatea herritarra izateak?

Unibertsitateak ez du izan behar leku isolatua. Herritarrek unibertsitatea bere eguneroko kezketatik, erronka politiko, kultural eta sozial garaikideetatik hurbil dagoela sentitu behar dute. Unibertsitateak ez du izan behar gizartetik kanpo dagoen jakintzaren gotorleku isolatua. Unibertsitateak herritarren erdian egon behar du eta herritarrek unibertsitatearen erdian.² Unibertsitateak herritar guztientzako leku irekia izan behar du, kontuan hartu barik herritarren estatusa, hezkuntza-maila, klase soziala, arraza, erlijioa, adina edo generoa.

Hori lortzeko helburuz, hainbat ekimen jarri dira abian, baina oraindik asko daukagu egiteke. Adibidez, uda ikastaroak, kongresuak, kultur ekitaldiak, ehuGune bezalako debaterako foroak, kultura zientifikoko katedra, hedabideetan irakasleen presentzia, jakintzaren transferentzia, esperientzia gelak...

Herritar guztiek unibertsitatean sortzen den jakintza eta pentsamendu kritikoa eskuratzeko aukera izan beharko lukete, bakoitzak bere neurrira. Oraindik bide luzea daukagu.

Etorkizunari begira zer? *Metaversity* (*metaverse* + *university*), hau da, metabertsitatea

Aurreko ataletan aipatu dudan bezala, nire ustez, Euskal Herriko Unibertsitateak aurrerapauso itzelak eman ditu azken urteotan. Batzuentzat ezinezkoa zen pentsatzea lorpen horiek hain denbora laburrean gerta zitezkeenik. 1975ean ezarritako proposamenak aise gainditu dira. Bide onean gindoazen, bai, baina teknologiaren bilakaerak mundu berriak ekarriko dizkigu. 20 urte barru gertatuko dena asmatzerik ez dago, baina argi dago unibertsitatearen kontzeptua erabat aldatuko dela. Etorkizuneko unibertsitatea diseinatzen hasteko momentua da. *Euskal Herriko Metabertsitatearen* jaiotzaren aurrean gaude. Espero dezagun beranduegi ez izatea eta sa-soiz ibiltzea erronka berri horri erantzun egokia emateko.

Gure bizitzako alderdi guztietan eragin izugarria duen digitalizazioak inoiz ikusi den eraldaketa sozialik handiena ekarri

du azken urteotan. Sare sozialak, Gauzen Interneta (IoT), metabertsoa, ingurune birtualak... gurekin gelditzeko etorri dira, eta etorkizun hurbilean unibertsitatearen lan egiteko modu tradizionala guztiz aldatuko dute.

Gazteen nortasunaren garapena erabat aldatuko du teknologiak, eta nortasun digitalari buruz hitz egiten hasi da jadanik. Nola ikasiko du nortasun digitala duen gazte batek?

*Euskal Herriko
Metabertsitatean
bermatu beharko dugu
euskarak metabertsitate
maila duela. Gaur hasi
behar da estrategia
egokia lantzen. Ezin dugu
denborarik galdu. Hemen
dugu erronka berria*

Ba al da euskal nortasun digitala? Hau da, gazte euskaldun batek, metabertsoan euskal identitate digital bat garatzen duenak, zergatik ikasi nahiko du unibertsitate tradizional batean?

Metabertsoaren eragina unibertsitateen kontzeptuan ikus-teke dago, baina, irudimentsu jartzen bagara, pentsa dezakegu metabertsitateak unibertsitate-prestakuntzako ingurune birtual erakargarriak eskainiko dituela, gure ikasgela tradizionaletan nekez lor daitezkeen elementu praktikoko birtualekin.

Metabertsitatea unibertsitateko ingurune digitala da, erreallitate birtuala eta erreallitate areagotua uztartzen dituen, campus fisiko baten biki digitala, non ikasleek eta irakasleek beren artean elkarreragin dezaketen beren biki digitalaren bidez, beren buruaren irudikapen digitalaren bidez. Metabertsitatearen ikuspegiak unibertsitatei mundu osoko milaka milioiri irakasteko aukera emango die, etekin akademiko guztiak eskainiz, baina ikasteko tasak nabarmen txikituz. Metabertsitateak sare ahaltsua eskatzen du, eta 5G teknologiak berebiziko rola jokatuko du metabertsitatearen kontzeptua ahalbidetzeko.

Metabertsitatea erreallitate birtualeko plataforma murgiltzailea da, non urrutiko irakasleek eta ikasleek erreallitate

birtualeko kaskoak jartzen dituzten eta, campus fisiko batean egingo luketen bezala, sinkronikoki biltzen diren. Campus birtuala benetako campus fisikoaren kopia digitala izan daiteke. Ikasleek eta irakasleek aukera berriak dituzte ikasketa prozesuan. Adibidez, ikasleek, biriketako minbizia duen paziente baten diagnostikoa egiteko, birika hartu, handitu eta barruan sar daitezke irakaslearekin batera. Horrela, minbizia nolakoa den, non dagoen eta zer-nolako eragina izaten ari den ikus dezakete birikaren barrutik.

Interpretazio-sistema automatikoei esker, ikasleen eta irakaslearen arteko harremana edozein hizkuntzatan egingo da, eta pertsona bakoitzak komunikazio-hizkuntza hautatuko du, bai igortzeko, bai jasotzeko. Unibertsitateko administrazioarekiko harremana ere edozein hizkuntzatan egingo da. Beraz, Euskal Herriko Metabertsitatea euskalduna, ingelesduna, txineraduna ala zer den asmatzea ez da izango erraza. Horregatik, *Euskal Herriko Metabertsitatean bermatu beharko dugu euskarak metabertsitate maila duela*. Gaur hasi behar da estrategia egokia lantzen. Ezin dugu denborarik galdu. Hemen dugu erronka berria.

Ikerketa egiteko ereduak ere erabat aldatuko dira. Ikerketa kolaboratiboa gauzatzeko tresna asko garatuko dira eta ikertzaileen lan egiteko era optimizatuko da. Adibidez, metabertsitateko ekipamendu zientifikoaren urrutiko erabilpenari esker, Stanforden dagoen ikertzaile batek UPV/EHU n dagoen ekipamendua erabiltzeko aukera izango du, bertan egongo balitz bezala, euskal ikertzaileekin lankidetzan estuan laborategi birtualean murgilduta.

Horrek ere ekarriko du naziotasun kontzeptuak oraindik indar eta interes gutxiago izatea. Metabertsitateak ez dauka muga fisikorik. Aukera berriak sortuko dira nazioarteko ikasleak eta irakasleak bereganatzeko. Nazioarteko irakasle ospetsuenek eskolak eman ditzakete aldi berean metabertsitate desberdinetan, abatar birtualen bidez edo biki digitalaren bidez.

Gure kasuan, berebiziko garrantzia izango du Euskal Herriko Metabertsitatea erakargarria izateak euskal nortasun

digitala garatzen duten gazteentzat. Gazteek mundu berri bat izango dute, non mila aukera egongo diren. Nola erakarriko ditugu gure Euskal Herriko Metabertsitatara?

Ondorioak

Euskalduna, nazionala, herritarra... Zalantza barik, hori lortuta dago UPV/EHUn. Urtero 275.000 ordu euskaraz ematen direnean, gure ikasleak euskararen lurralde osotik datozenean, eta UPV/EHU gizartean egoteko eta gizartea UPV/EHUn egoteko mila ahalegin eta aukera eskaini ondoren, autokonplazentziarik gabe, pozik egoteko arrazoiak baditugu. Ibilbide akademiko oso ona egin du UPV/EHUK, eta txalotzekoa da; baina, orain, berriz, abiapuntuan gaude.

Metabertsitatea laster izango dugu gure artean, eta gure gazteek eta ikertzaileek aukera berriak izango dituzte, orain arte ezagutu ez ditugunak eta asmatu ezin ditugunak. Hizkuntza, nazioa edo herria ez dira izango haientzat gakoak. Formakuntza eredu digitala, laborategi birtualak, nazioarteko lankidetzak kolaboratiboa, irakasle digital edo abatar ospetsuen lezioak, metabertsitateen arteko kredituen errekonozimendua, titulazio bikoitz digitalak... Horiexek izango dira gakoak, nire ustez, eta estrategia egokia eskatzen dute.

Euskal Herriko Metabertsitatean erronka horiei aurre egin beharko diegu, bai. Baina, azaldu den bezala, gure erronkarik garrantzizkoenetarikoa euskara metabertsitate-mailako hizkuntza izaten jarraitzea izango da. Horretarako behar den teknologia garatu behar da, eta gure metabertsitatea euskal nortasun digitala duten gazteentzat erakargarri bihurtu. Guk egiten ez badugu, ez du inork egingo.

Unibertsitatea, metabertsitatea nola, Euskal Herria hala. 🍷

Oharrak

1. <https://euskampus.eus/eu/front-page>
2. 2022-2023 ikasturtearen inaugurazio ekitaldian Eva Ferreira errektoreak emandako hitzalditik hartuta.

Euskal Unibertsitateaz hausnarketa bat Nafarroako periferiatik

■ Roldan Jimeno Aranguren
NUPeKo Zuzenbidea Saileko irakaslea

Jean-Louis Davant zuberotarrak dio Nafarroak eta Iparraldeak osatzen duten Euskal Herriko ardatz historikoa gaur egun euskal periferia dela, eta periferia historikoak, berriz, Euskal Herriaren ardatz egituratzaila osatzen duela. Euskal Autonomia Erkidegotik Euskal Unibertsitateari buruz idaztea zaila bada, are zailagoa dugu Nafarroatik edo Iparraldetik egiten badugu; izan ere, helburu hori, gure ertz geografikoetatik, gero eta urrunago dagoela dirudi.

Argi dago UEUko Batzar Nagusiak 1975ean egindako Euskal Unibertsitatearen helburu definitzaileak ez duela fruiturik eman, UEUk berak izan duen ibilbide arrakastatsutik harago, nahiz eta unibertsitate *sui generis* bat izan. Errealitatea agerikoa da: ez dago Euskal Unibertsitaterik, ez baitago unibertsitate nazional herritarrik, ezta %100 euskalduna denik ere, edo, behintzat, ikasketa guztiak euskaraz egin ahal izatea bermatzen duenik. Azken horri dagokionez, EHU da helburu horretara gehien hurbiltzen den unibertsitatea.

Jakinetik Euskal Unibertsitatea 2022an hurbilago ala urrunago dagoen galdetu zaigu. Zoritxarrez, ezkorra naiz. Nire erantzuna argia da: urrunago. Nire ustez, azken urteotan ez

da urrats positiborik eman, guztiz kontrakoa baizik, helburua hurbiltzen lagunduko luketen aukerak ere galduz. Errealitatea ezkortasunak markatuta dagoela ahaztu gabe, Euskal Unibertsitatea eraikitzen laguntzeko aukeraren bat ikusten dut.

Itzul gaitezen hasierara. 1975ean UEUK Euskal Unibertsitate nazionala, herritarra eta euskalduna planteatu zuenean, ez zen ameskeria bat. Ilusioz beteriko aurrekariak zeuden, hala nola 1918an Eusko Ikaskuntzaren sorrera, Euskal Unibertsitatea eraikitzeko oinarria izateko jaioa. Francoren diktadurarekin, Espainiako unibertsitatea zentralizatu egin zen, eta Hezkuntza Ministerioak gogor kontrolatu zuen. Ministerio horrek unibertsitate hezkuntzaren esparru orokorra arautzen zuen, eta erabateko esku-sartzea erakusten zuen bere kudeaketa-, antolaketa- eta gobernu-prozesuen gainean. Trantsizioaren lehen fasean, lurraldetasunari buruzko eztabaida indarberritu zen. Bigarren Errepublikan gertatu zen bezala, Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia autonomia bat izateko aukera planteatu zen. Eztabaida horien erdian, euskal unibertsitate publiko bat eraikitzeko aukerak aztertzen hasi ziren, Hegoaldeari zegokioenez behintzat. Baina, urteak igaro ahala, errealtate instituzional bat sendotzen joan zen, eraikuntza nazional horri bizkarra eman ziona. 1978ko Konstituzioak bi errealtate autonomiko bereizi ekarri zituen: Euskal Autonomia Erkidegoa, Gernikako Estatutuarekin, eta Nafarroako Foru Erkidegoa, Foru Hobe-kuntzarekin. Bien bitartean, Euskal Herriko Unibertsitatea sortu zen. Izena Gregorio Monrealek zuzendutako errektor-taldearen apustua izan zen, etorkizunean Nafarroan ere proiektatzea amesten zuena. Laster konturatu ziren ez zuela ibilbiderik izango. Nafarroako garapen instituzionalak eta Foru Komunitatea zuzendu zuten indar politikoek eragotzi egin zuten, eta urte batzuk geroago Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu zen. Euskal Autonomia Erkidegoari erreferentzia egiteko 'Euskadi' edo 'Euskal Herria' izen mugatuek eragin suntsitzailea izan dute Nafarroan urtetan zehar, Nafarroa Euskal Herria ez dela diotenen argudioak indartuz; eta, unibertsitatearen arloan, 'Universidad del País Vasco/Euskal

Herriko Unibertsitatea' izenak irudi hori areagotu egin du, unibertsitate hori Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publikoa baita, ez Nafarroakoa.

Iragan hurbila ezagutu, Euskal Unibertsitatetik urruntzen gaituen oraina ulertzeko

Europako Kontseiluak, 2000ko Lisboako estrategiaren helburuak definitzerakoan, hezkuntza eta prestakuntzari garrantzi handia eman zion. Hezkuntza eta prestakuntza ezinbestekoak dira gure ekonomia munduko ekonomia dinamiko eta lehiakorrenen artean kokatzeko gai izan dadin. Ordutik, unibertsitateen estrategiarako joera bikaintasun-politikari lotuta geratu zen.

Bikaintasun-politika horren helburuak lortzeko, Alderdi Popularraren gobernuak 2001ean Unibertsitateen Lege Organikoa (LOU, gaztelaniaz) bultzatu zuen, Espainiako unibertsitate sistemaren modernizazio-prozesuan aurrera egiteko. Bi erronka nagusi zeuden: alde batetik, unibertsitatea gizartera zabaltzea, inguruko eskaerei eraginkortasunez erantzuteko eta haren kontu-ematea areagotzeko. Eta, bestetik, Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparru berriaren harmonizazioa, Europako konbergentzia-prozesu mailakatua eskatzen zuena. Unibertsitateko lege horrek hainbat aldaketa eragin zituen eremu garrantzitsuetan, hala nola irakasleen hautaketan eta sustapenean, emaitza akademikoen ebaluazioan eta unibertsitate gobernuaren sisteman. Unibertsitatearen kalitatea hobetzeko, Kalitatea

1975ean UEUk Euskal Unibertsitate nazionala, herritarra eta euskalduna planteatu zuenean, ez zen ameskeria bat. Ilusioz beteriko aurrekariak zeuden, hala nola 1918an Eusko Ikaskuntzaren sorrera, Euskal Unibertsitatea eraikitzeko oinarria izateko jaioa

Ebaluatzeko eta Egiatzatzeko Agentzia Nazionala (ANECA, gaztelaniaz) sortu zuen legeak, unibertsitate irakaskuntzak, unibertsitateen zerbitzuak eta programak eta ikerketa-, irakaskuntza- eta kudeaketa-jarduerak modu independentean ebaluatzeko. Beste aldaketa garrantzitsu bat irakasleak hautatzeko eta kontratatzeko sistema izan zen, unibertsitate publiko eta pribatuetan irakaskuntza-kalitatea bermatzeko. Irakasleak hautatzeko sistema 2007an aldatu zen, LOMLOUrekin. Egiatzapen-sistema berri bat ezarri zen funtzionarioiko eta laneko maila akademikoetarako.

Araudi berriak aukera eman zien autonomia erkidegoei beren unibertsitate arloko araudiak eta kontratazio-tresna espezifikoak garatzeko, eta Eusko Jaurlaritzak esparru horretan dituen eskuduntzak garatzeko baliatu zuen. Nafarroako Gobernuak ez zuen egin. Horrela sortu zen gaur egun aurkitzen dugun egiturazko arazoa; izan ere, Hego Euskal Herrian bi errealitate kontrajarri aurkitzen ditugu irakasleen arloan, EHUtik NUPera edo NUPetik EHUra irakasleak modu naturalean aldatzea eragozten dutenak. Hori, agian, etorkizunean konpondu ahal izango da LOSUrekin. Nafarroak estatuaren berezko kontratu eta funtzionario-figurak ditu, eta estatu mailako egiaztapen-sistema bati lotuta dago, ANECA; Euskal Autonomia Erkidegoak, berriz, 2012tik bere kontratu-figura propioak eta Unibasq egiaztapen-agentzia propioa garatu ditu.

Bestalde, 2000ko hamarkadaren amaieran, Espainiako Estatuko Hezkuntza Ministerioak 'Nazioarteko Bikaintasun Campus' zigilua lortzeko aukera eman zuen. Banaka edo beste unibertsitate batzuekin batera lor zitekeen. Hor Euskal Unibertsitatea eraikitzeke aukera paregabea izan zen, baina, tamalez, ez zen Nazioarteko Bikaintasun Campus bat sortzearen aldeko apusturik egin EHUren eta NUPen artean. Baldintza egokiak zeuden, bi unibertsitateek harreman estua baitzuten lankidetzeta-hitzarmen ugariengatik eta biek Unibertsitateen G9 Taldean parte hartzeagatik.

EHUk, bere erdigunetik, proiektuarekin bat egin zezakeen periferiarik ez zegoela ikusteko itsutasuna izan zuen. Hiru

campus handitan banatutako unibertsitate handi bat zela sinetsita, bakarkako bideari ekitea erabaki zuen, eta 2010ean ministeriotik Nazioarteko Bikaintasun Campusa zigilua lortu zuen, Euskampus izeneko proiektu batekin, «Unibertsitate bat, Herrialde bat [sic], Campus bat» leloarekin aurkeztu zena. Leloa ezin desagokiagoa zen Euskal Unibertsitatearen helburuaren ikuspegitik. Antzeko zerbait gertatu zen Kataluniako unibertsitate publikoekin, Lleidako Unibertsitatea bakarrik geratzearaino. Gauzak horrela, Lleida, Errioxa eta NUPeko hiru unibertsitate txikik, desiratutako campus bikainaren helburua lortzetik urrun, Zaragozako Unibertsitatearekin bat egin zuten, lurralde campus bat osatuz, Campus Iberus izeneko.

Horrek ondorioak izan zituen Iparraldean ere, bai EHUK bai Iberus Campusek lotura estua baitute Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatearekin (UPPA). EHUren eta NUPen artean Nazioarteko Bikaintasun Campus bakar bat osatuz gero, UPPAekin euskal unibertsitate ekosistema bat osa zitekeen zalantzarik gabe, Baiona-Angelu-Miarritzeko campusari buruzko balizko hitzarmen baten bidez. Baina, orain, banandurik, helburu hori lortzeko aukerak ezinezkoak dira.

Are gehiago, errealitate zatitu hori areagotu egin da Europako unibertsitate partzuergoak eratzeke fasean. Berriz ere urrezko aukera bat galdu dugu. Mendebaldeko munduan bizitzen ari den unibertsitate hezkuntzaren funtsezko eraldaketetako bat nazioartekotzea da. Ikasleek eta enplegatzaileek gero eta gehiago eskatzen dituzte nazioarteko osagai handia duten unibertsitate hezkuntzako tituluak, bai ikasketa-plannen edukiari dagokionez, baita kulturen arteko trebetasunak eta gaitasunak garatzen laguntzen duten kultura harremanekiko espazioari dagokionez ere. Ikasleen eta irakasleen mugikortasuna, argi eta garbi, unibertsitate hezkuntzaren nazioartekotzearen alderdirik gehigarriena den arren, gaur egun aliantzen edo partzuergoen bidez bideratzen hasten da. Zehazki, 2017az geroztik, Europako estatuek Europako unibertsitateen arteko aliantzak egiteko esparru bat ezarri zuten, Europako Batasun osoan goi mailako irakaskuntzako

erakundeen arteko elkarte estrategikoak indartzeko eta, aldi berean, Europako unibertsitateen eratze prozesua sustatzeko.

Europako unibertsitateen partzuergoak Europako Batasun osoko unibertsitateen saretzat hartzen dira, kontinentean goi mailako irakaskuntzaren kalitatea eta lehiakortasuna susta-

tzeko. Unibertsitate horiek epe luzerako egiturazko lankidetza garatzen duten goi mailako hezkuntza-erakundeen nazioz gaindiko aliantza gisa definitzen dira; besteak beste, proposamen hauek eskaintzen dituzte: unibertsitate kolektibo guztientzako mugikortasun sistematikoa, partzuergoaren unibertsitateetako ikaskuntza-aldien onarpena, ikasketa-plan osagarriak eta titulu bateratuak. Europako unibertsitateen

Europako unibertsitate
partzuergoak eratzeko
fasean, EHUK, NUPEK
eta UPPAK aukera
paregabea utzi dute,
berriro ere, Euskal
Unibertsitate baten
ernamuina izan zitekeen
zerbait sortzeko

helburua, azken batean, europar belaunaldi berrien garapena sustatzea da, elkarlanaren eta sormenaren bidez XXI. mendeko erronka sozial eta politiko handiei aurre egin ahal izateko, kultura- eta hizkuntza-desberdintasunak oztupo izan gabe.

Testuinguru horretan, EHUK, NUPEK eta UPPAK, esan bezala, aukera paregabea utzi dute, berriro ere, Euskal Unibertsitate baten ernamuina izan zitekeen zerbait sortzeko. 2019an EHUK Europako unibertsitateen Enlight partzuergoko kide izatea erabaki zuen. Partzuergo hori honako unibertsitateek osatzen dute: Bordeleko (Frantzia), Ganteko (Belgika), Groningeko (Herbehereak), Göttingeneko (Alemania), Uppsala (Suedia), Tartuko (Estonia) eta Comenius-Bratislavako (Eslovakia) unibertsitateek, Galway-Irlandako Unibertsitate Nazionalak (Irlanda) eta EHUK. Enlight unibertsitate europarraren proiektua Europako Batzordeak 2020ko uztailan onartu zuen. Ordutik, Enlight unibertsitate sistema integratu baten oinarriak ezartzen ari da, ikasleen eta langileen fluxu

askea ahalbidetuko duena, baliabide akademikoak eta administratiboak, kalitatea bermatzeko mekanismoak, nazioarteko konexioak eta konpromiso globala bateratuz, irismen handiko ikerketa-azpiegiturak eratu arte.

UPPAk beste bide bat hartu zuen, eta UNITA Universitas Montium unibertsitate europarraren proiektuarekin lotu zen. Proiektu hori ere 2020an hautatu zuen Europako Batzordeak finantzatua izateko. UPPAz gain, Turingo (Italia), Zaragozako (Espainia), Savoia Mont Blanceko (Frantzia), Timisoarako (Errumania) eta Barne Beirako (Portugal) unibertsitateek osatzen dute. Hor euskarak abiaburuko arazo larri bat dauka. Aliantzaren izenak italierazko *unità* ('batasuna') hitza gogorarazten du, sei erakundeak lotzen dituzten loturak eta integrazio handiagoa lortzeko borondatea azpimarratzen dituen. Azpтитuluak ('mendietako unibertsitatea', latinez), alde batetik, aliantzaren izaera erromantzea eta hizkuntza horiek ingelesaren alternatiba eta osagarri gisa garatzeko nahia dela adierazten du; bestetik, amerikar eta afrikar ikasleentzako erakarpén-faktorea izan nahi du. Landa-eremuen garapenarekin eta, bereziki, horiek kokatzen diren mendialdeekin eta mugaz gaindikoekin duten konpromisoa ere irudikatu nahi du.

NUP bakarrik geratu zen berriro ere, eta partzuergo horietako batekin bat egiteko premian, modu posibilistan jardun zuen, Iberus Campusen aterkira joanez, Zaragozako Unibertsitatearen bitartekaritzaren eskutik. UNITAri atxiki zitzaion 2021ean. NUPek UNITAn eleaniztasuna sustatzeko eta hizkuntza erromantzeak erabiliz inklusioa bultzatzeko ildo estrategikoarekin bat egin behar izan zuen. Egoera horretan, gure unibertsitateak daukan erronketako bat euskara UNITAn sartzea da, eta hori UPPAren landu beharko du nahitaez, hizkuntza erromantzea ez den hizkuntza bat lantzeko estrategia, hizkuntza erromantzeak sustatzeko helburu orokorrean.

Gaiak ez die ikasleei bakarrik eragiten, partzuergo horiek, neurri handi batean, unibertsitateetako ikerketa-ildo nagusietako batzuk eta irakasleen mugikortasuna ere baldintzatzen baitituzte. UNITAk, gutxienez, NUPen eta UPPAren

arteko lotura bultzatuko du, Euskal Herriko unibertsitate periferien lotura, alegia.

Laburbilduz, gaur egun, estatu esparruei erreparatzen badiogu, hiru foku aurkituko ditugu: EHU bere nazioarteko bikaintasun campus bakartian dago; NUP nazioarteko bikaintasun campus zabalago batean dago Errioxa, Zaragoza eta Lleidarekin; eta Aturrialdeko campusak (Baiona, Angelu, Miarritze) Paueko periferia osatzen jarraitzen du. Eta, Europako esparruan, Euskal Herriko unibertsitate publikoak bi partzuergoetan banaturik daude: alde batetik, EHU Enlight aliantzan dago, eta, bestetik, NUP eta UPPA UNITAn daude.

Irtenbide posible bat: Euskal Unibertsitate publiko birtuala artikulatzea

Euskal Unibertsitatea lortzeko lankidetza-bide bat online irakaskuntza izango litzateke, batez ere euskarari erreparatzen badiogu. Koronabirusaren pandemiaren ondorioz, unibertsitate guztiok asko aurreratu dugu bideokonferentzien bidez irakas-teko teknologian. Hiru unibertsitate publikoen artean akordio bat egin liteke euskarazko irakasgaien kredituak eskaintzeko eta horiek guztiak euskaraz eskainitako titulazio jakin batzuk osatzeko. Irakaskuntza hori graduako irakaskuntzetan zein, batez ere, graduondoko irakaskuntza arautuetan (master ofizialak) eman liteke, baina baita arautu gabeko guztietan (master ez-ofizialak, titulu propioak, espezialistak eta adituak) eta etengabeko prestakuntza ikastaroetan ere, azken urteotan eskaera esponentzialki hazten ari baita. Graduek konplikazio gehiago izan ditzakete Euskal Unibertsitate publiko birtual bat artikulatzeko (besteak beste, EHUKo gradu gehienak jadanik euskaraz eskaintzen baitira), baina ez graduondokoek.

Erronka hori ez da erraza. Beharrezkoa litzateke estrategia errealista bat izatea, karrera edo master jakin batzuk lehenesten ausartuko litzatekeena (zerbait zehatzarekin hasi eta pixkanaka eskaintza zabalduz joan beharko litzateke). Unibertsitateen arteko sinergiak aprobetxatu beharko lirateke

eta baliabide pertsonal eta ekonomikoak jarri beharko lirateke. Era berean, operatiboak izateko, errektore taldeen, fakultateen eta departamentuen arteko koordinazio egonkor batek egon beharko luke. Ezin dugu ahaztu, bestalde, osagai politikoa; izan ere, EHUrentzat eta NUPentzat behintzat, helburu horretara bideratutako jarduera orok Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren babesak izan beharko lukete, hurrenez hurren.

Euskal Unibertsitate birtual hori hezkuntza arlokoak ez diren beste eremu batzuetara zabal liteke, ezagutzaren euskal *networking* bat izan bailiteke, non teknologiek parte-hartzaile guztien sare-lana erraztuko bailukete. Jakina, irakasleek irakaskuntzarekin, ikerkuntzarekin eta ezagutzaren transferentziarekin lotutako gaietan izandako lankidetzaz ari naiz.

Online unibertsitate horrek balio bakarra eta bereizgarria eman diezaioke XXI. mendeko euskal gizarteari. Lehenik eta behin, unibertsitateak bakarrik eskain ditzakeelako punta-

-puntako ikerketan oinarritutako edukiak; bigarrenik, unibertsitateak mendeak daramatzalako ezagutzak transmititzeko modurik onenari buruz hausnartzen, eta, azkenik, unibertsitateak bakarrik eman daitekeelako goi mailako prestakuntza kualifikatua, gaur egun hain beharrezkoa dena gure garaiko erronka handiei aurre egiteko. Helburu hori lortzeko, erakundeen laguntza ezinbestekoa da egitura, pizgarri eta politika berriak sortu ahal izateko, uni-

bertsitateen eta kanpoko eragileen arteko lankidetz-fluxuak errazteko. Unibertsitateen praktikak antolatzen dituzten enpresak eta erakundeak ere kontuan hartu beharko dira. Horrek ere herrialdea egiten lagunduko luke.

Euskal Unibertsitatea
lortzeko lankidetzabide
bat online irakaskuntza
izango litzateke,
batez ere euskarari
erreparatzen badiogu.
Graduko irakaskuntzetan
zein graduondoko
irakaskuntza arautuetan
eman liteke

Ondorioak

Aurreko orrietan azaldutako guztiagatik, ez naiz baikorra euskal unibertsitate publikoen artean epe labur eta ertainera Euskal Unibertsitatea lortzeko urratsak egin ahal izateaz. Azken urteotan, unibertsitate politikak aipatu ditugun egitura garrantzitsuegiak sortu dituzte, hurrengo hamarkadetako unibertsitatearen inguruko politikak baldintzatuko dituztenak. Etorkizunari begira ikusten dudan irtenbide bideragarri bakarra, eta beti ere hainbat arazo dituen, Euskal Unibertsitate birtuala sortzea da.

Euskal Unibertsitate publiko batean zentratu naiz, baina beste aukera bat litzateke aztertu ez ditudan beste bide batzuk jorratzea. Lehenik eta behin, UEU benetako unibertsitate bihurtzea, behin baino gehiagotan aztertu den aukera. Egon badago beste alternatiba bat: unibertsitate pribatu bat euskal lurralde guztietara zabaltzea, Euskal Unibertsitate bat sortzeko helburuarekin. Egun ditugun unibertsitate pribatuen artean, Mondragon Unibertsitatea izango litzateke helburu hori bere gain har lezakeen bakarra. Nik dakidala, ez dute beren proiektua Iparraldera eta Nafarroara zabaltzeko asmorik.

Edozein aukera konplexua da. Ez dago formula sinplerik Euskal Unibertsitatea sortzeko. Antolaketa-eredu moderno, originala eta ausarta sortu behar dugu, erakargarria eta lehiakorra izango dena.

Erronka horrek aukera handiak dakarzkio unibertsitate osoari eta komunitateko kide bakoitzari: irakasleei, ikasleei, ikertzaileei, enplegatzaileei. Enpresek eta sare publikoak ondo baloratzen duten proiektu bat sortu behar dugu. Zalantzarik gabe, euskara izango litzateke balio erantsi handia gainerako eskaintzekin alderatuta, baina ingelesa eta beste hizkuntza posible batzuk uztartzeko modua ikusi beharko litzateke. Lana nekeza da, erakunde finkatuetan aldaketak egitea dakarrelako, batzuetan malgutasun gutxiko egiturekin eta beti horrelako zerbaiten alde egingo ez duten borondate politikoeekin. Hala ere, egungo errealitateak ezkortasuna eragiten duen arren, badago baikortasun moderaturako espazio bat. 🍷

Euskal Unibertsitatearen zutabeak

Eneko Bidegain

*Idazlea eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI
Fakultateko irakaslea*

Euskal Unibertsitateaz ari garenean, denok gauza bera ulertzen ote dugu? Zer da euskal unibertsitatea? Euskal Herriko unibertsitate eskaintzaren sistema osoa? Euskarazko unibertsitatea? Euskal Unibertsitate nazionala? Hiru zutabe horiek dira, hain segur, euskal unibertsitatearen oinarriak. Galdera da zer sendotasun duten zutabe horiek...

Unibertsitatearen egitura fragmentatua

Lehen zutabeari dagokionez, Euskal Herriko unibertsitate eskaintza aski zabala da: UPPAren Baionako eta Angeluko campusak (Paueko Unibertsitatearenak), Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea. Horri gehitu behar zaizkio UNEDek Bergaran, Bilbon eta Gasteizen dituen ordezkariak eta Gasteizen ireki asmo duten Euneiz Unibertsitatea. Eta horien guztien erdian, gainean edo azpian dago Udako Euskal Unibertsitatea. Hots, eskaintza zabala dago, baina fragmentatuegia sistema batez hitz egiteko.

Batetik, Euskal Herriko Unibertsitatea ez da Euskal Herrikoa. Euskal Autonomia Erkidegokoa da, eta ez dauka campusik Euskal Herriko beste lekuetan. Unibertsitate autonomikoa bat da, eta Espainiako araudiaren menpe dagoena, Hego Euskal Herriko beste unibertsitateak bezala eta Lapurdikoak Frantziaren pean dauden gisa berean.

Bestetik, Euskal Herriko lurralde zatiketa administratiboaren ondorioak ikasleek ere pairatzen dituzte. Azkenaldian egoera hobetzen ari bada ere, Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako ikasleek hainbat traba administratibori aurre egin behar izaten diete Hego Euskal Herrian eta euskaraz ikasten jarraitu nahi badute. Eta askok ez dute lortzen sarbiderik, eta Frantziara joan behar izaten dute ikastera.

Horrek euskal unibertsitatearen bigarren zutabera garamatza. Ba al dago euskarazko unibertsitatetik Euskal Herrian? Ukaezina da eskaintza badagoela, eta zabala dela. Graduetan bereziki –baina ez da egia euskarazko graduen eskaintza handirik badenik EAEtik kanpo–; gauzak anitz makurtzen dira, ordea, masterrera pasatzean. Eta azpimarratzekoa da gehienetan tesiak ez direla euskaraz izaten eta ikerketaren zabalakunde hizkuntza ere gutxitan dela euskara (besteak beste, euskarazko aldizkari zientifikoak ez direlako asko puntuatzen dutenak, ikerlari baten ibilbide akademikoa ebaluatzeko orduan). Beraz, Euskal Herriko unibertsitate sistema –zatikatua eta sistema itxurarik ez duena– ez da euskalduna. Lurraldearen zati batean baizik ez badago euskarazko unibertsitatetik, nekez mintza gaitezke Euskal Unibertsitateaz.

Ba ote dago, beraz, Euskal Unibertsitate nazionalik? Orain aipatu muga horiek garbi erakusten dute ezetz, baina irakasten diren edukietara so eginez gero ere nekez erantzun daiteke baietz. Unibertsitateen arabera, graduen arabera eta irakasle-ikerlarien arabera, edukien interes eta izaera nazionala kontuan hartzen da gehiago ala gutxiago; baina, estrukturaliki, erran ote dezakegu Euskal Herrian dauden unibertsitateek Euskal Herriaren beharrei erantzuten dietela?

Udako Euskal Unibertsitatearen muina da Euskal Unibertsitatea izatea, Euskal Herri osoan eskaintzea ikastaroak eta euskarazko eskolak ematea, Euskal Herrian pentsaturik eta herria aintzat harturik. Baina UEUren lana goraipatzekoa den eta eskaintza akademiko batzuk badituen arren, dituen baliabideek ezin diete erantzun urteroko milaka ikasleen beharrei.

Euskal Unibertsitatearen behar material eta administratiboak

Euskal Unibertsitatea oraindik sortzekoa bada ere, herri gisa iraun, biziberritu eta garatu nahi badugu, ezinbestekoa izanen da lan horri lotzea. Unibertsitate horrek Euskal Herri osokoa izan beharko du. Erran nahi baita, alde batetik, Euskal Herri osoko ikasleak berdintasunez tratatuko dituen, akrobazia administratiboak egiten ibili behar izan gabe. Bestetik, eta horrekin lotuta, EAEn erroldatua izatea ez litzateke privilegio bat izanen Euskal Herriko beste ikasleekiko, beka bat lortu ahal izateko. Azkenik, ikasketa bideak Euskal Herri osoan eskainiko ditu: campus euskaldunak izanen dira Euskal Herri osoan.

Alabaina, Euskal Unibertsitateak gure buruetako eskemetatik kenduko luke euskaraz ikasteko derrigorrezkoa dela EAera joatea. Baina, hori baino garrantzitsuagoa, pentsa dezagun zer eragin izan lezakeen Iruñean edo Baionan euskarazko campusak edukitzeak, hiri haietako giroa euskalduntzeari begira. Halaber, Euskal Unibertsitatea Euskal Herri osoan eskaintzeak eragiten luke euskal ikasleak Euskal Herri osoan ibiltzea. Etekin

Euskal Herriko
unibertsitate sistema
ez da euskalduna.
Lurraldearen zati
batean baizik ez
badago euskarazko
unibertsitaterik, nekez
mintza gaitezke Euskal
Unibertsitateaz

handia izango litzateke euskal kontzientzia nazionala, lurralde ikuspegia eta Euskal Herriaren aniztasunaren ezagutza aberasteari begira.

Euskal Unibertsitatearen edukiak

Antolaketa Euskal Unibertsitate nazionalerako hezurdura den arren, hezurrekin bakarrik ez zaio bizirik ematen gorputz bati. Edukiak lirateke gorputz horren organoak eta odola. Hain zuzen, Euskal Unibertsitatea ez da soilik ezagutza euskaraz sortzea eta irakastea (dagoeneko frogatuta dago egin daitekeela). Euskaraz erreproduzitu daitezke diskurtso hegemonikoak, Euskal Herriaren nazio ukapenari hauspoa ematen diotenak (euskal nazio ikuspegia duten historialarien lana gutxietsiz edo baliogabetuz, adibidez), marko administratibo espainolean edo frantsesean oinarritzen diren eta, ondorioz, marko hori indartzen duten ikerketak eginez...

Unibertsitate batek eragina dauka herri baten eraikuntzan eta gizartean, sortzen duen jakintzarekin eta jakintza hori sozializatuz herriari oinarri garrantzitsuak ematen dizkiolako eta etorkizuneko langileak (irakasleak, kazetariak, funtzionarioak, teknikariak, ingeniariak...) formatzen dituelako. Horregatik, Euskal Unibertsitateak landu, ikertu eta irakatsi behar dituen edukiez eta eduki horien ikuspegiez hausnartzea ere bada hurrengo urteetako zeregina.

Etorkizuneko profesional horiek euskal ikuspegi batetik formatzea da hurrengo hilabete eta urteetako erronka. Adibide batzuk emateagatik, herrigintzaren zenbait zutabe (gehiago ere badiren arren) aipatuko dira hurrengo lerroetan.

Euskararen arloan, esate baterako, gero eta garbiago gelditzen ari da euskararen konpetentzia instrumentala transmititze hutsak ez duela balio izan herritar euskaldunak sortzeko. Estatistikoki euskal hiztunak dira Euskal Herriko zati bateko gazte gehienak, baina euskararekiko atxikimendurik ez dute. Euskararen garapena hezkuntza arlotik anitzez harago ere landu behar dela jakitun, hezkuntzan ere badago zer

aldatua. Euskara zuzen irakasteaz aparte, bere testuingurua azaldu behar da. Eta hor sartzen dira, besteak beste, kultura, gai soziolinguistikoak (zein da euskararen egoera?, zergatik dago egoera horretan?, zein dira hizkuntzen arteko indar harremanak?) eta herriaren eta hizkuntzaren arteko loturak.

Unibertsitateetan arlo horretan ikertzen ari den jendea badela ukatu gabe, lan horiek ez daude erdigunean eta ez dago horretan ari diren guztien (eta ariko liratekeen) arteko harreman handirik eta harreman hori egituratuko lukeen elkarlanerako tresnarik; are gehiago, ildo hori ez da ageri instituzionalki (arlo linguistikoak gaina hartzen dio arlo kulturalari eta soziolinguistikoari). Horra hor Euskal Unibertsitatearen zutabe bat.

Euskara biziko da baldin eta herri hizkuntza bat bada, eta ez hizkuntza instrumental bat (eskolarako edo lanerako bakarrik). Herriak euskaraz bizi badira iraunen du euskarak, eta herriak euskaraz biziko dira baldin eta herri kultura bizirik badago, herrigintza aktibo badago, aisialdia eta euskara/euskal kultura elkarri eskutik helduta baldin badoaz. Haatik, euskal kultura ikasketen (hor sartuta euskal kultura, kulturgintza, kultura eragiletza, herri kultura...) eskaintza izugarri urria da.

Euskal kultura (oraino ere askok gutxiesten dutena!) zein zabala, aberatsa, ibilbide luzekoa eta estrategikoa den ikusirik, hainbatek kezka bizi ditu kultura horren transmisioak dituen zailtasunak. Euskal kulturak eta kultura horrek duen eragin sozialak ez dute merezi eta behar duten bezainbat ikerketa lanik izan. Ez dira behar bezainbat lantzen ikastetxeetan eta hedabide nagusietan. Herri kultura bizirik dago, baina euskarak ustez indar handiena duen lekuetan kultura profesionalak hartu dio gaina. Beharrezkoa da hori ere, baina kontsumo kulturarekin bakarrik ez da biziko arriskuan dagoen hizkuntza. Herri kulturak lotuko du komunitatea egituratzea euskararen inguruan eta, ondorioz, euskalduntzea.

Herri honek ezinbestekoa du euskal kultura (zentzu zabalean –alegia, ez bakarrik literatura, musika, bertsolaritza, antzerkia edo beste kultura adierazpenetan, baizik eta herri

Euskal Herrian gehien
zabaltzen eta irakasten
diren eduki historikoak
Frantziak eta Espainiak
finkatutakoak dira.
Euskal Unibertsitatearen
hirugarren zutabe bat
litzateke euskal
historia nazionala

bat bizitzeko modu gisa ulertuta–) sakonki aztertu, irakatsi eta ikertuz kultura horretan eraginen duen zutabe sendo bat. Euskal Unibertsitatearen erronketako bat da zutabe hori eraikitzea.

Kultura erreka bizia da, eta, euskal kulturaz ari garenean, bizirik dagoen zerbaitez ari gara (nahiz eta euskara eta euskal kulturaren adierazpenak hildako zerbaiten gisan ikertzen dituzten ikerlari asko egon). Baina oraingo kultura bizi eta biharkoa elikatu behar dugun bezala, kultura horren ondarea ere ikertu eta

transmititu behar dugu, herriak eta herritarrek ezagutza hori ere behar dutelako, eta ezagutza hori gabe nekez uler daitekeelako orainaldia.

Historiaren erabilera politikoa –Euskal Herrian– askok gaitzesten duten garai honetan, unibertsitate horren beste funtsezko zutabe bat da historia. Nazio guztiek dute eta kontatzen dute beren historia, eta –nazio aske diren heinean– beren ikuspegitik. Euskal Herrian gehien zabaltzen eta irakasten diren eduki historikoak Frantziak eta Espainiak finkatutakoak dira. Duela hamarkada gutxira arte, herri honen historiaren bertsio bakarra herri hori menderatu zuten estatuek kontatutakoa izan da. Zorionez, aitzineko mendeetan izan dira euskal ikuspegitik landu zuten bakar batzuk, eta horien lanari esker baditugu oinarri batzuk. Dena den, oraindik ere, historiaren bertsio hegemonikoa eta ofiziala Frantziak eta Espainiak idatzitakoak eta kontatutakoak izaten jarraitzen du. Eta ez hori bakarrik, beti daude historia euskal nazio ikuspegitik lantzen duten historialarien lanak seriotzat hartzen ez dituztenak (haienak bide dira lan ideologizatuak, ez espainolenak eta frantsesenak...).

Euskal Unibertsitatearen hirugarren zutabe bat litzateke euskal historia nazionala. Historia hori ez litzateke eskaileren azpiko gelatxoan landuko, orain arte bezala. Euskal Unibertsitatearen historia saileko areto nagusian sakonduko litzateke. Azken urteetan Euskal Herriaren historiaren (konkistak eta abar) bertsio ofizialak gezurtatu dituzten historialarien lanen aitortza, lan horiek erdigunean ezartzea, ezagutaraztea eta ildo horietatik ikertzen eta zabaltzen segitzea litzateke eginkizuna.

Zutabe gehiago ere izanen lituzke Euskal Unibertsitateak. Baina azken bat aipatzekotan, lurralde antolaketa iraunkorra eta herri kohesioa sustatuko lituzkeen diziplina bati (edo diziplinartekotasunari) buruzkoak izanen dira hurrengo leerroak. Garbi dago lurralde antolaketa zatikatu bat (Euskal Herria ukatzen eta desegituratzen duen antolaketa administratiboaren arabera) dagoela, gaur egun. Garraioa, osasuna, hezkuntza, kultura politikak, ekonomiaren antolaketa eta beste arlo anitzetan nabaritzen da herri kohesio falta.

‘Herri kohesiogintza’ gisako izen bat lukeen gradu, master eta ikerketa lerro bat behar du herri honek. Diziplinarteko lerro bat litzateke, bistan denez, eta ia arlo guztiekin lotura izanen lukeena eta horiengan eraginen lukeena. Praktika desegituratzaileak aztertu, praktika kohesionatzaileak azpimarratu eta proposamen berriak landuko lituzke.

Horrekin loturik, unibertsitatea bera ere izan liteke herri kohesio hori marraztuko lukeena, bere ekoizpenetan. Hots, ikerketaren esparrua Euskal Herria izanen litzateke (ez autonomia erkidego bat), Euskal Herriaren osotasunaren argazkiak aterako lituzke eta zatiketa administratiboari aurre eginen lioke. Gisa horretan ere, Euskal Herria nazio gisa marraztuko luke barnera eta kanpora begira.

Euskal Unibertsitatea munduan

Bestalde, unibertsitatea nazioartean kokatzen da, munduko beste unibertsitateekin izan behar du harremana; ikerlariak munduan gaindi ibiltzen dira, munduko beste ikerlariekin

gurutzatzen dira, ikerketa egonaldietan edo kongresuetan. Orain arte ere Euskal Herriko unibertsitarioek eta unibertsitateek badituzte loturak beste lekuetakoekin, baina hurrenkera honetan: eskualdea edo autonomia da behereko lauza, Espainia edo Frantzia erdikoa eta gero datoz Europa eta mundua. Hots, Euskal Herriko ikerlari bat, nazioartean, Espainiako edo Frantziako ikerlari gisa agertzen da. Horrez gain, ohikoagoa da 'estatu' mailako ikerketa proiektuak edo aliantzak agertzea. Euskal Unibertsitatea ez litzateke Espainiako edo Frantziako unibertsitate gisa agertuko, baizik horien pare.

Nola egin?

Hori guztia ederra da paperean, baina praktikara ekartzea pixka bat konplikatu da, bereziki oraingo sistemaren ordez Euskal Unibertsitatea martxan jartzea baldin bada kontua. Oraingoz, unibertsitatearen aldaketarik ez da aurreikusten, ez bederen euskal nazio ikuspegitik (bistan da artikulua honetan planteatutako guztia politikoa dela; baina hori bezain politikoa da oraingo antolaketa ere). Oraingo unibertsitateak dira irakasleak kontratatzen dituztenak eta ikasleak hartzen dituztenak. Irakaslerik eta ikaslerik gabe ez dago unibertsitaterik. Beraz, zer egin daiteke, dagoen horretatik abiatuta, Euskal Unibertsitatea sortzen hasteko?

Malguenetik eta errazenetik hasteko, unibertsitateetako irakasle eta ikerlarien arteko elkarlan jarraiki bati lotzea izan liteke bide bat. Hainbat aldiz, unibertsitate berean –baita fakultate berean ere– nekeza izaten da halako elkarlan batean hastea. Beraz, are zailagoa izaten da unibertsitateen arteko lana. Baina badira zenbait kasu. Hainbat jardunaldi edo kongresu ere eskertzeko uneak izaten dira besteak ezagutzeko, besteak zertan ari diren jakiteko eta elkarrekin mintzatu eta egin behar litzatekeenaz hausnartzeko. Eta ez gaudela bakarrik sentitzeko...

Zorigaitzez, eguneroko zurrunbiloak hartzen digu beti gaita, eta ez gara sekula heltzen elkarlan egituratu horretara.

Udako Euskal Unibertsitatea da elkarlan horretarako aukerak, guneak eta uneak eskaintzen dituen. Euskal Unibertsitatearen ideiarekin bat egiten duten irakasleak eta ikerlariak beren arlokoekin (diziplinartekotasunari ere atea irekirik) erregularki biltzeko eta elkarrekin ikertzeko bideak areagotzea izan liteke epe laburreko erronka. UEU da hori lideratu dezakeena, betiere unibertsitateek eta irakasleek dituzten behar akademiko edo 'administratiboei' erantzuteko aukera emanez.

Baina elkarlanean urrats ausartagoak ere egin litezke, irakasleen arteko elkarlanetik harago unibertsitateen arteko egiturazko harreman batzuk sustatuz. Kasu honetan ere UEU da lokailua. UEUk beste unibertsitateekin martxan jar ditzake (jadanik egin duen bezala) graduak edo masterrak. Gradu eta master horiek, dudarik gabe, Euskal Unibertsitatearen norabidekoak lirateke eta Euskal Unibertsitatearen helburuak beteko lituzkete.

Baina gradu edo master osoak elkarrekin egin gabe ere, ikasgaiak antola litezke. Kontua da, orain arte bederen, irakasleek aukera askeko kredituak egiteko aukera mugatuak ditzutela, bai kopuru aldetik, bai ikasgai motaren aldetik. Beste herrialde batzuetan, irakasleek, oinarritzko ikasgai batzuk salbu, ikasgaiak hautatzeko askatasun handia dute. Noizbait iritsiko ahal da Euskal Herrira ere halako sistema bat! Hala izatekotan, UEUk ikasgai katalogo mardula eskain dezake, eta Euskal Herriko unibertsitateek beren ikasleei aukera eman beharko liekete UEUko ikasgaietan matrikulatzeko eta han egindako kredituak aitortzeko.

Halaber, enpresak eta erakundeak ere sar litezke Euskal Unibertsitatearen eraikuntza horretan. Unibertsitate eta enpresen arteko harremanaren bitartez,

Elkarlanean urrats ausartagoak ere egin litezke, irakasleen arteko elkarlanetik harago unibertsitateen arteko egiturazko harreman batzuk sustatuz. Kasu honetan ere UEU da lokailua

aurrera atera litezke (edukiz eta diruz) herri honek behar dituen zenbait ikasgai, gradu, master edo doktorego programa.

Nazioarteko unibertsitate eta erakundeekiko harreman, elkarlan eta aliantzak ere bila litezke fase horretan. Antzeko gaietan dabilzan ikerketa taldeekin eta unibertsitateekin trukeak, egonaldiak, elkarrekin egindako ikerketak, jardunaldiak eta abar antolatzea Euskal Unibertsitate hori aberastea litzateke eta mundura zabaltzea. Hor daude euskal kultura eta Euskal Herria jakintza arlo gisa zabaltzeko eta ikertzen duten hainbat unibertsitate, munduan gaindi. Badira, halaber, Euskal Herriaren egoeran dauden beste nazio batzuetako unibertsitateak ere, antzeko arazoak dituztenak. Jakintza elkar aberasteko bideak urra daitezke elkarrekin.

Estrategiaren beharra

Euskal Unibertsitate batek behar lituzkeen arlo gehiago ere aipa litezke. Akreditazio eta ebaluazio sistema da horietako bat, giltzarria dena irakasleen eta ikerlarien jarduna edota eskaintzen diren gradu edo masterrak baldintzatzeko. Euskal Unibertsitatearen izpirituko akreditazio eta ebaluazio egitura bat izango bagenu, askatasunetik hurbilago ginateke. Edo herri aske bihurtu garelako izango genuke... Halakorik ez dagoen bitartean eta boterea Madrilen eta Parisen dagoen bitartean, dauden baliabideekin egin behar da aurrera.

Baina jakinez gero nora iritsi nahi dugun, zer den Euskal Unibertsitatea, hori eraikitzeko bidea pentsatzeari ekin behar diogu. Estrategia bat pentsatu, antolaketa bat marraztu eta lanean hasi. Herri honek badu jende jantzi asko. Hainbat talde txiki sortu dira herriaren egoerari lotutako kezkek gidatuta, eta zerbait egin nahian. Badirudi lurra ondua dela indarrak biltzeko eta antolatzeko. Unibertsitateari dagokionez, anbizio handiko proiektu bat sortzeko bezperan egon gintezke. 🐼

Euskal Unibertsitatea 2022: loreak arrakaletan

Jone Goirigolzarri Garaizar

Xabier Landabidea Urresti

*Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien
Fakultatea*

Arnasa hartu beharra dugu
eta ireki atea
arrainak ura eta euskarak
bere unibertsitatea.

Aspertu gara beti ibiltzen
suge narrastien gisan
hegada jaso eta nahi dugu
arrano libreak izan.

Euskal Unibertsitatea, Oskorri, 1979 (hitzak: Xabier Amuriza)

Euskal Unibertsitateaz

JAKIN aldizkaritik Euskal Unibertsitatetik hurbilago ala urrunago ote gauden pentsatzeko proposamena jaso genuenean, ezinbestean auziarekin lotutako eta auzitik eratorritako itaun-lerro gehiago etorri zitzaizkigun gogora. Finean, Uda-ko Euskal Unibertsitateak 1970eko hamarkadan hiru ardatz proposatu zituen Euskal Unibertsitatea definitzeko: nazionala, herritarra eta euskalduna. Lanerako definizio eraginkorra da (bai Euskal Unibertsitate hori eraikitze aldera, bai esku artean dugun auziari ekiteari begira), baina, aldi berean,

definizio proposamenak galdera berrietara bultzatzen gaitu berriro: zer da nazionala, herritarra eta euskalduna 2022an?

Nazionalak Euskal Herriko lurralde guztiak kontuan hartu eta batzeko gaitasuna, Euskal Herriaren existentzia bera aitortu eta Euskal Herria erreferentzia bezala hartuko dituela kontsidera genezake. Herritarrarekin, zenbait eliteren interesen zerbitzura baino, euskal herritarrenera egongo den goi mailako hezkuntza eta ikerketa erakundea irudika dezakegu. Euskalduna esaterakoan, euskaraz jardungo duen, euskarari ekarpena egingo dion eta euskaldunei bidea zabalduko dien unibertsitateaz aritu gaitezke. Baina hirurak, bai *nazional*, bai *herritar*, bai *euskaldun* izaerak, 1970eko hamarkadan existitzen ez ziren baldintza sozial, material eta historikoetatik pentsatu behar ditugu 2022tik.

Izan ere, egun, duela 50 urte bezala, Euskal Unibertsitatea pentsatzea unibertsitatea pentsatzea da, unibertsitatearen izaeraz eta egoeraz galdetzea, alegia. Unibertsitateak jasan dituen eta jasango dituen eraldaketek, desiratuek zein ez, hausnarketa horren parte izan behar dute.

JAKINEN zenbaki berezi honetan kokaleku askotarikoetatik idatzitako hausnarketa, analisi eta iritziak irakurri ahal izango ditu irakurleak, unibertsitate publiko eta pribatuetatik egindakoak, zentro eta periferiatik idatzitakoak, Euskal Unibertsitatearen kontzeptualizazio politikoaren garapenari dagozkionak... Deustuko Unibertsitateko langile izanik, gure apustua lehen pertsona eta pluralean pentsatutako lekukotza kokatuaren aldekoa izan da, iragan eta etorkizunari orainalditik begiratzeak merezi duelakoan. Ondoko lerro hauek, 2022tik ez ezik, Deustuko Unibertsitateko Bilboko campusetik eta Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatetik pentsatu eta idatzita daude. Bestelako eta are kontrajarritako begirada eta lekukotzak posible dira, noski.

Arrakalak eta loreak

Hirurogeita hamarreko hamarkada jada urrun hartan idatzi eta abestu zutenari erreparatuz gero, amestu zuten hori *ere*

bagara. Lore berriak jaio direla ukatzeak ez luke zentzurik. 2022an gutxi jarriko lukete zalantzan doktorego tesi bat euskaraz aurkez daitekeenik, medikuntza, antropologia, zuzenbidea edo informatika euskaraz ikas daitezkeenik edo humanitate digitalen inguruko online graduondoko berri-tzaileenak euskaraz eskain daitezkeenik. Guretzat ohikoa, posiblea eta *normal samarra* dena ameskeriatzat hartuko zuten askok, gehienek ez bada, duela berrogeita hamar urte.

Gurea ikasketa guztiak euskaraz egiteko aukera izan duen belaunaldia izan da. Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta unibertsitate ikasketak (gradu, graduondoko eta doktorego mailan) euskaraz egitea posible da kasu askotan egun. Esparru akademiko eta zientifiko guztietan ikerketa euskaraz diseinatu, egin eta argitaratzea ere gauza egingarria da. Egungo Euskal Herriko unibertsitateetan gertatu eta egiten diren gauzak dira, posibilitate eta gertakizun praktikoak, ez paper gainean marraztutako asmo eroak. Eta hori aitortzea garrantzitsua iruditzen zaigu, ez soilik egindako lan eta borrokei gorazarre egitearren, ametsak errealitate bihur daitezkeelako frogatik baitira bere horretan.

Irakurleak ondo dakien bezala, jarraian *baina* handi bat dator hala ere. Amestu zuten hori *ere* bagara. Ez amestu zuten hori guztia. Ez amestu zuten hori bakarrik.

Euskal Unibertsitatearen ideiak loreak eman ditu, bai, baina arrakaletan jaiotako landareetatik. Amuriza aitak abestutako ur, haize, lur eta tontorrak hartu ditugu, baina onenean ere modu konpartitu, badaezpadako eta etengabe probisionalean. Egia da euskarak sarbidea lortu duela goi mailako hezkuntza eta ikerketara, baina bere zalantzazko egoera,

Euskal Unibertsitatearen ideiak loreak eman ditu, baina arrakaletan jaiotako landareetatik. Egia da euskarak sarbidea lortu duela goi mailako hezkuntza eta ikerketara, baina bere zalantzazko egoera, bere prekaritatea urtez urte mantendu da

bere prekaritatea urtez urte mantendu da, prekaritate horrek hainbat izen eta tankera hartu dituen arren.

Guk baino askoz hobeto azaldu dute argitalpen honetan bertan zeinen auzi estrategikoa izan den (onerako zein txarrerako) Euskal Unibertsitatearentzat marko politiko, legal eta instituzionalean arrakalak sortzea. Urratutako bide, hartutako erabaki, irekitako lerro, egindako apustuek ahalbidetu dute gerora harri hutsezkoa zirudien errealtate antzua arrakalatzea, Euskal Unibertsitatearen hipotesiarentzat (batzuek gaur egun beharbada *hiperstizio* deituko genioke) etorkizunak landatzea.

UPV/EHUren eraikuntza da, agian, adibiderik esanguratsuena, Espainiako Estatuaren baitako sistema autonomikoa-ren aukerak baliatu baititu egun Euskal Herri osoan euskarazko unibertsitate mailako ikasketen eskaintzarik zabal eta sendoena osatzeko. Baina egon da adibide esanguratsu gehiago ere, plano sinbolikotik harago emaitza praktikoak ekarri dituen. Deustuko Unibertsitatean Gotzon Garate josulagunak 1976 hartan Euskal Filologia zabalduko zela egunkarian argitaratzea (horretarako oraindik baimenik edo ikaslerik izan gabe) ere izan zen arrakalagintzaren beste eredu eder bat, Bilboko eta Donostiako campusetan euskarazko (eta euskal gaiekin lotutako) ikasketa lerro gehiago ekarri zituen gerora, gradu eta graduondokoetan euskararen posibilitatea euskararen errealtate bihurtzeraino. Artikulu hau sinatzen dugunok, adibidez, gure doktorego tesiak euskaraz (eta ingelesez kasu batean, nazioarteko tesia baitzen) defendatu genituen Deustuko Unibertsitatean, bi doktorego programa ezberdinetan.

Lur sail propiorik ezean (unibertsitate nazionalaren perspektibara itzuliz), arrakalak irekitzea estrategikoa izan da Euskal Unibertsitatearentzako, behin harrian pitzadurak zabalduta loreak ernatzen hasi baitaitezke. Baina ez da estrategia bakarra izan.

Loreak landatzea izan daiteke hala ere harrian arrakalak sortzeko bide diferente bat. Kolpez kolpe harria zartatu beharrean, landareek bestelako indar bat erakusten dute hormak,

bideak eta arrokek leherrarazten dituztenean. Elikatzeko nahikoa ur, argi eta lur aurkitu duen zuhaitzak sarri asfaltoa bera moldatzeko indarra lortu ohi du, espazio faltara moldatu beharraz nekatzen denean. Bestelako arrakalagintza bat da hori, bizitzak (baita akademikoak ere) behar duen espazioa hartzen duenean.

Bigarren lerro honetan, baina lehenengoarekin lotuta, ikusi ditugu Eusko Ikaskuntza, Udako Euskal Unibertsitatea edo Jakin bera bezalako erakundeak urte luzez euskarazko goi mailako ezagutza lantzeko ikastaro, argitalpen, eztabaida, jardunaldi, plataforma, erakusketa, websail, hackathoi, kongresu eta topaketak antolatzen. Elkarre horietako egungo kideentzat ere zaila litzateke, ezinezkoa ez bada, 'Euskal Unibertsitatearen' formulazio hartatik (atzerago ez joatearren) egindako jardueren eta jarduera-esparruen zerrenda oso bat atontzea.

Euskal Unibertsitatearen botanika orokorraren perspektibatik azken berrogeita hamar urteotan ernaldu diren landare mota guztiak jaso, deskribatu eta sistematizatzea lan erraldoia litzateke. Horrek ere ematen digu egindako ahaleginaren eta lortutako emaitzaren neurria. Baina baita gure memoriaren laburraren eta egindako ahalak sarri urteen haizeak eramaten dituenaren oroigarria ere. Sarritan pertsonen memorian bakarrik gelditzen baitira esperientziak, baita erakundeen baitan ere, eta ez dugu tarterik hartzen egindakoa jakintza komun forman kristalizatzeko.

Zorionez, esan bezala, loreak badu harrian arrakalak sortzeko joera. Agian hor bizi gara egun: ernaldu zirela ere ahaztu dugun arren, loreek pitzatutako arrakalen artean. Beharbada hori dira arrakalak: harria pitzatuz ernaldu ziren loreen memoria.

Hurbilago eta urrunago gaude

Zein da baina egoera, 2022arekin alderatuta? Hurbilago al gaude desiratutako helburuetatik, ala urruntzen? Bi galderei baietz erantzun beharrean aurkitzen gara.

Hurbilago gaude, aurretik esan bezala, egia objektibo samarra baita duela berrogeita hamar urte eginezinak ziren zenbait unibertsitate-lan egun egingarriak direla. Unibertsitate mailan fisika nuklearra euskaraz irakasteko bi gauza jakin behar direla denok (edo ia denok) dakigu jada: fisika nuklearra eta euskara. UEUren Inguma Euskal Komunitate Zientifikoaren Interneteko atariak ia 800 defendatutako euskarazko doktorego tesi jasotzen ditu, eta horietatik gehienak eskura daude Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordetzaren Tesiker datu basean. Kopuruei erreparatuta, Ingumak berak zifra argigarri eta harrigarri batzuk ematen ditu: ia hamahiru mila autore, berrogeita bost mila dokumentutik gora, ia hamazortzi mila artikulua zientifiko... Baina, beharbada, jasotako corpusaren tamaina baino, corpusaren aberastasun, zabalatasun eta aniztasuna da ikusgarriena. Filosofia, hizkuntzalaritza, didaktika, soziolinguistika, natur zientziak, kimika, osasuna, historia, artea, zoologia, bertsolaritza, literatur kritika, komunikazioa, psikologia, fisika, astronomia, filologia... Bilatzaileari artikulua modu alfabetikoan aurkezteko eskatuta begirada bakarrean ikusteko moduko jakintza esparruak dira. Oskorrik abestutako Xabier Amurizaren hitzei arrazoi osoa ematen dioten ia hamazortzi mila idazki. Askotarikoak. Denetarikoak.

«Euskara ez zen mendi artean galdurik hiltzeko jaio».

Euskaraz egiteak ahalegin
militantea dakarrenez,
2022ko ikasle ez bereziki
militantearentzat zilegia
izan daiteke galdetzea
euskaraz egiteak zein
balio erantsi emango dion

Gai horietan guztietan ikeretzea eta ezagutza zabaltzea posible bada, posible da noski goi mailako irakaskuntza ere euskaraz gai horietan guztietan eta beste askotan. Euskal Herriko egungo unibertsitate publiko eta pribatuek (zenbaki honetan bertan aurki ditzake

irakurleak hurbilketa zehatzagoak) eskaintzen dituzte noski gradu eta graduondoko tituluak eta ikasgaiak euskaraz. Egoe-rak badu duela berrogeita hamar urte amestutakotik asko.

Errealitatea, ordea, gogorra da; eta, irakurleak ondo dakienez, ekinaren ekinez ezina egin den arren, arlo eta lerro askotan egungo unibertsitate-errealitateek gutxi daukate ametsetik. Badaude graduak euskaraz egiteko aukerak (batez ere EAEn, batez ere UPV/EHU), baina ohikoagoa da ikasgai batzuk espainieraz, frantsesez edo ingelesez hartu behar izatea. Karrera osoa hizkuntza normalizatu batean egitea naturalizatu dugun modu berean naturalizatu dugu gradu eta graduondokoak euskara ez beste hizkuntzetan kurtsatzea, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ez bezala. Egoera desiragarria izan daiteke ikasle eleanitzaren ikuspegitik, baina asimetriaren naturalizazioa ebidentea da... eta hazkorra.

Euskaraz irakatsi dugun unibertsitateko irakasle askok izan dugun esperientzia da ikasle euskaldunek galdetzea zer eskaintzen diegun ikasgaia, edo lana, edo gradu amaierako lana, edo masterreko proiektua edo... euskaraz egiteagatik. Merkatuaren logika basatietan, diglosiaren naturalizazioak euskaraz ikasi eta lan egitearen zentzua perspektiba instrumental zehatzetan bila dezake. Euskaraz egiteak ahalegin linguistikoa dakarrenez, 2022ko ikasle ez bereziki militantearentzat zilegia izan daiteke galdetzea euskaraz egiteak zein balio erantsi emango dion.

Eta galdera ona da, ez baita ikasleei erasaten dien zalantza bakarrik: gure ikerketa taldeetan, gure sail eta fakultateetan, ikertzaile nagusien eta gerenteen erabakietan, zalantza (edo beharbada ziurtasun) berberak ikusten ditugu islatuta: zertarako ikertu, argitaratu, egin ezer euskaraz? Akreditazio, seiurteko eta abarreko merituetan euskara oraindik ere diskriminazio positiboa jaso behar duen ahizpa txikia bezala tratatzen dugu kasurik onenean, eta balio zientifiko-merkantilik gabeko kapritxotzat okerrenean. Ingeleseztik publikatzea hobesten dugu, inpaktua ingelesezko literatura zientifikoa gertatzen omen baita.

Ikasleei euskaraz gaituta egotearen abantailak aipatzen diezkiegun artean, unibertsitate mailako erabakiek kontrako norantza markatzen dute: ikerketa eta formakuntzaren truke-balioa hizkuntza globalen txanponetan kalkulatu.

Harrigarriki, euskara zientzia eta humanitateen hizkuntza bihurtzetik inoiz baino hurbilago gauden garaiotan, euskarar sinesteari utzi diogu. Ez ateo edo heretikoen konbentzimendu suharretatik, baizik eta urruneko merkatuen gurgil astunen soinura ohituta amore eman duten laborari nekatugisa. Nekatu egin gara errentagarri suertatzen ez diren lanak egiteaz. Presio gehiegi dugu sistemaren baitan bertan, gure buruari gainera sistemaz kanpoko presio gehiago eragiteko.

Zenbakiek ez dute ematen. Curriculumak osatu behar da. Adierazleak aurkeztu behar dira. Kudeatzailearen logikak eta hizkuntzak barneratu ditugu ekinbide akademikoaren oinarri, eta merkatuaren mandamentupean, harrigarriki, euskara galtzaile atera zaigu berriro. Dela lehen mailako ikasleak unibertsitateko lehen lana hasi behar duenean, dela doktorego tesia zuzenduko dion espezialistaren bila dabilen doktoregaiaren kasuan, dela plaza lortze aldera Scopus eta JCR datu baseetako inpaktuko aldizkarietan publikatu behar duen irakasle-ikerlariaren kasuan, dela gradu edo graduondoko berri bat diseinatzeko ardura hartu duen (edo eman dioten) lan taldean, ideia-mamu bat dabil bueltaka: *euskaraz no renta*.

Beharbada sistemak irentsi gaitu, moldatu gaitu mailukadaz mailukada. Beharbada garaiko ezin haietara ohitu ginen, eta behin ezin haiek hala edo hola aseta, lasaitu egin gara. Beharbada inoiz baino hurbilago gaudelako gaude inoiz baino urrunago.

Aurrera begira: grinagintza

Zer behar dugu aurrera begira? Nondik egin bultza, edo tira, Euskal Unibertsitatearen hipotesiari 2022tik begiratuta? Tentagarria litzateke baldintza idealen segida bat zerrendatzea, euskal estatugintzari buruz teorizatzea edo Euskal Herriko gobernu-instituzioei politika zientifiko serio eta bateratu eta baterako deialdia egitea; baina artikulua hau lehenengo pertsona pluralean konjugatu dugunez, sintagma berean pentsatuko ditugu aurrera begirakoak.

Euskal Unibertsitatearen ideiak gaurkotze bat behar du. Gaurkotze bat, bai termino kontzeptualetan (zer da unibertsitatea bera, egun?, zein norabide hartu ditu, eta zein norantza?), bai teknikoetan (zer da unibertsitate ikasketak burutzea edo lan akademiko bat argitaratzea, adibidez Internet daukagun uneotan?). Baina, batez ere, Euskal Unibertsitatearen ideiak grina bilakatu behar ditu egun dituen ezinak. Egundugun aukerak pentsaezinak ziren duela berrogeita hamar urte, baina baita egundugun oztopoak ere. Pasiarik gabe, borrokatzeko arrazoirik gabe, nekez egingo dugu aurrera, baldintza objektiboek euskararen eta Euskal Herriaren kontra konspiratzen dutelako atsedunik gabe. Lorezaintza eta arrakalagintza berriak asmatu behar ditugu egungo eta biharko sistema unibertsitarioetan, baita estrategia eraginkorragoak ere; baina, batez ere, lan horietara grinaz batzeko arrazoi subjektiboak, kolektiboki subjektiboak eraikitzeko gai izan behar dugu.

Hein horretan uste dugu UEUk, 50 urte betetzen dituela ospatzen duen honetan, lan pozgarri honetara batzeko arrazoiak eraikitzen asmatu duela, eta sare zabal eta aberatsa josten Euskal Herriaren luze-zabalean. Unibertsitatean eta unibertsitatetik kanpo lanean eta ikasten ari diren eragile askotariko horien grinak artikulatzen eta sustatzen asmatu duen metaerakunde bat bilakatu da mende erdian. Hipotesi baten, behar baten gaurkotze konstanterako katalizatzaile.

Hemendik aurrera, oraindik aurrera, inoiz baino beharrezkoagoa izango dugu orain artekoa gogoratu eta aitortzeko gaitasuna eta ekarri nahi duguna irudikatu eta grina kolektiboz egingarri egiteko bokazioa izango duten eragileen sarea. 🍷

Unibertsitatea, feminismoa eta 'belar txarren' eredua

Mari Luz Esteban

UPV/EHUko Gizarte Antropologiako irakaslea eta AFIT Antropologia Feminista Ikerketa Taldearen koordinatzailea

Globalizazio neoliberalaren ondorioz unibertsitatean gertatzen ari diren aldaketak laburbildu ditu Carlos Berzosak¹ elkarriketa batean:

Unibertsitatean gero eta maizago erabiltzen diren hitzak (produktibitatea, lehiakortasuna, eraginkortasuna, batzuk aipatzearen) merkatuaren ekonomiatik datoz, merkantilizazioaren eta unibertsitatean merkatuaren indarrek duten boterearen sintoma. (Gutiérrez 2022: 22)

Esan du ere instituzio horretan eta hezkuntza-agintarien artean nagusituz joan diren enpresa-balioak unibertsitatearen funtsezko zutabea izan beharko litzatekeen pentsamendu kritikoaren kontra doazela zuzen-zuzenean (*ibid.*: 23), are gehiago gaur egun unibertsitate-sisteman iraun ahal izateko gainditu behar diren betekizunak (akreditazioak, argitaratze-beharra eta arauak...) kontuan hartuz. Hau da: oro har, lehian oinarritutako unibertsitatea dugu, ez gaitasunean edo sormenean. Horrekin batera, giza eta gizarte zientziak balioa galduz doaz eta «irakaskuntza debaluatu egiten da ikerketaren aurrean, eta infantilizatu egiten da prozedura burokratiko eta estandarizatuen bitartez» (Gómez 2022: 29-30). Horixe litzateke marko orokorra, nahiz eta desberdintasunak egon unibertsitateen artean.

Modu paraleloan, azken hamarkadotan ikuspegi eta praktika feminista bere eragina izaten ari da unibertsitatean, berdintasun-egitura eta politika desberdinak sorraraziz, gradu zein graduondoko eta doktoretza mailan ikasketa-programak ezarriz (giza eta gizarte zientzien arloan, batez ere) eta ikerkuntza feminista bultzatuz. Baina, lorpen horien garrantzia nabarmengarria izanik ere, dugun unibertsitatea urrun dago feminista izatetik. Izan ere, unibertsitate feminista baten definizio sinple bat emate aldera, esango nuke horrelako programa berezien beharrik ez lukeen instituzio bat izango litzatekeela, gizartean dauden pertsona-talde guztiek egiten dutena edo egin dezaketena aintzat hartuko bailuke, bai egituran, bai ezagutza sortzeko mekanismo zein produktuetan. Inozoa litzateke pentsatzea egoera hori berez sortuko dela edo gatazkarik gabe posiblea izango dela.

Hain zuzen, 2022ko udan, *Berria* egunkarian argitaratu den *Utopiarantz* Udako Seriean eskainitako elkarrizketa gehienetan, gatazka hitza izan da termino aipatuenetakoa. Esate baterako, Maite Asensiok Jule Goikoetxea eta Miren Aranguren i utopia feministaz egindako elkarrizketan, «gatazkarik gabeko paradisurik ez, baina bortxa gutxiagoko mundu hobe bat irudikatu dute».² Feminista izatea, beste gauza askoren artean, gatazka eragiten eta kudeatzen duen pertsona edo kolektibo bat izatea da, hori baita hesitzen gaituzten koordinatuak iraultzeko modu bakarra.

Testuinguru sozio-politiko-ekonomiko orokorra eraldatu gabe unibertsitate feminista bat gauzatzea ezinezkoa dela abiapuntutzat hartuta, zer-nolako jokaera(k) indartu edota lehenetsi beharko genituzke?

Artikulu honetan, galdera eta kezka horien inguruan jardungo dut. Hala ere, nire asmoa ez da formula edo analisi totalik eskaintzea, baizik eta ideia batzuk planteatzea oinak egungo errealitatean jarrita, eta dudan esperientzia kolektiboa (eta partziala) oinarri harturik, gizarte antropologia irakaslea eta EHUko ikerketa-talde feminista baten kidea naizen aldetik. Besterik ez.

Edozein kasutan, hemendik eta orainetik hitz egitea ez da bateraezina jarrera edo begiradetan aukera berriak bilatzea-rekin. Hain justu, nire gogoeta bi bidetatik joango da: lehenengoan, indarrean diren praktika zehatzez arituko naiz, hau da, berdintasun-politiken eta irakaskuntza eta ikerkuntzaren arloan bultzatzen ari diren egitasmoez; kasu honetan, ekimen eta proiektu horiek zaintzea eta zabaltzen jarraitzea azpimarraituko dut, betiere egindakoa sakonki ebaluatuz. Bigarrenean, beste norabide bat hartuko dut, unibertsitatearen eta politikaren inguruko imajinarioekin zerikusia duen bestelako ikuspegi bat defendatuz. Eta, horretarako, 'belar txarren eredua' deituko dudana proposatuko dut.

Bi alor edo jardute-eremu horiek batera uztartuta joan behar dutela pentsatu arren, artikulua honetan banan-banan jorratuko ditut.³

Testuinguru sozio-politiko-ekonomiko orokorra eraldatu gabe unibertsitate feminista bat gauzatzea ezinezkoa dela abiapuntutzat hartuta, zer-nolako jokaera(k) indartu edo lehenetsi beharko genituzke?

Indarrean dauden unibertsitate-egitasmo feministen argiak (eta ilunak)

Esan bezala, ikerkuntza eta ekoizpen feminista asko hazi da aurreko mendearen amaieratik hona. Horretarako, baliagarriak izan dira berariaz sortu diren ikerketa-taldeak eta lantaldeak, baina baita unibertsitate publiko zein pribatueta ezarri diren graduondoko ikasketa feministak eta inguruan garatu diren proiektuak ere.⁴ Nola neurtu ikasketa-programa feminista horiek unibertsitatean zein gizartean izaten ari diren funtzioa? Ez nuke optimistegia izan gura, eta alderdi positiboak zein zalantzazkoak aipatuko ditut, nahiz eta uste izan lehenengoak gehiago direla.

Positiboekin hasteko, nabarmenduko nuke irakaskuntza eta ikerkuntza feministak bateratzen dituzten ikasketetan, mota eta jatorri desberdinetako ikasleek prestakuntza feminista jasotzeko, ezagutza feminista ekoizteko eta enplegua sortzeko abagune paregabea dutela. Prestakuntza: teoria eta politikari buruzko formakuntza sistematizatu bat une historiko batean non ekoizpen feminista biderkatuta dagoen eta ezinezkoa den argitaratzen den guztia ezagutzea. Eta prozesu hori, gainera, modu kolektiboan egitea. Lan-irteerak: neska gazteentzako enplegua ahalbidetu eta, aldi berean, ikuspegi feminista sartu lan-eremuan. Horiexek lirateke, nire ustez, puntu positiborik argienak. Bi horiekin batera, hezkuntza-arloan eta gizartean dauden elkarte eta proiektu feministen arteko uztardura eta elkarren indartzea legoke, zeinak eguneroko politikan in-paktua izan dezakeen. Euskal Herrian, kontraesanak kontrae-san, badaude loturak mugimendu feministaren eta unibers-tsitatearen artean, zuzenak edo zeharkakoak (Esteban 2021). Hori bai, horietako asko lausoak edo pertsonalak dira, eta horrek zaildu egiten du horien ebaluaketa.

Ahulguneei dagokienez, zenbait aipa daitezke, hala nola epistemologia feministak sustatzen dituen printzipioen kon-tra doazen aspektuak. Adibidez, gune horien abiapuntuko baldintzetako bat 'dakitenen' (irakasle eta ikertzaileak) eta 'ez dakitenen' (ikasleak) arteko bereizketa egitea da (Esteban 2017: 44-46), feminismoan funtsezkoa den horizontaltasunaren aurka. Hala ere, gehituko nuke bertan inplikaturik gauden feministok saiatzen garela unibertsitateak 'berezko' aldarrikatzen duen 'ezagutza gizartera transmititzea' leloari kosk egiten, eta jakintzaren sorrera eta zirkulazioa norabide anizkoitzetan bideratzen.

Ikasketa-programez gain, badaude unibertsitatean propo-samen eta ekimen ugari eta interesgarriak 'berdintasunaren arloan', bai egiturari dagokionez (berdintasunerako zuzen-daritzak edo batzordeak), bai ekimenei dagokienez (ikerketa sariak, EHUko Akademe programa⁵ eta genero-indarkeriak prebenitzeko programak, hiru adibide ematearren). Nago

ikuspegi feministatik jorratzen diren ekimen guztiek ala guztiek merezi dutela analisi eta aitortpen zehatza.

Hainbat feministak, baina, kezka agertu dute administrazio eta arlo publikoko berdintasun-politiken esparruan, aukera-berdintasunaren eta genero-berdintasunaren artean, eta feminismoaren eta berdintasunaren artean, egiten diren transposizioengatik, horien emaitza zuzena aldarri feministen ezkutatze kontzeptual eta ideologikoa dela salatuz (Bustelo eta Lombardo 2007, Méndez 2007, Astellarra 2009, Fernandez-de-Labastida 2018). Unibertsitatean garatzen ari diren politikiei dagokienez, Lucía Gómez Unibertsitat de Valènciako gizarte-psikologia irakasle eta Colectivo Indocentia taldeko kideak irakurketa gazi-geza egin du: «Berdintasun-politikak unibertsitate-agendan sartzeak, ustekabeko aukera argi-ilunak dituen arren, askotan, horien karga antagonista galtzea eragin du» (Gómez 2022: 30).

Hiru lirateke autore horrentzat arriskurik handienak: (1) berdintasuna marka eta fetitxe bihurtzea, mobilizazioa ahulduz; (2) unibertsitate-dinamika orokorretatik isolaturik mantentzen diren jardunbideak bultzatzea, gatazka ekidinez; eta (3) genero-ikuspegia merkantilizatzea eta, beraz, despolitizatzea (*ibid.*). Aurrekoarekin loturik dagoen beste kezka alor bat ere aipatu du, bizipenei dagokiena, eta, bukatzeko, etorkizunerako egitekoak zein izan daitezkeen ere iradoki:

Ondoez haragiztatu horiek (matxismo normalizatuaren esperientzia, ezagutza merkantzia errentagarri bihurtzeari lotutako zentzurik eza edo ezintasuna, autosufizientziaren fikzio maskulinoak eragiten duen nekea) arrakala edo pitzadura gisa sartzen dira marka bihurtutako berdintasunaren ideia batean.

Nahiz eta transakzio hutsetik ihes egiten duten loturak sortzeko zailtasunak egon eta pentsamenduaren forma horizontal eta parte-hartzaileak urriak izan, nahiz eta teknologia ebaluatzaileak bilatzen duen autonomia indibidualaren ilusioan entrenatu, ondoez horiek onartzeak, horiei buruz hitz egiteak, beraiek kolektiboki irakurtzeak, politizatzeak, norbanakoaren sufrimendutik ezagutza neoliberalaren politika eta horren ondorioak erabat zailantzan jartzera igarotzeko aukera ematen digu. (*Ibid.*: 31)

Gómezek dituen zalantzekin bat etorri arren, zerbait gaineratuko nuke, lehenago aipaturiko ildo beretik: ekimen eta bizipen horien guztien lekuan lekuko analisi zehatzak egitea premiazkoa dela, arriskuak eta arazoak hautemanez, baina baita erresistentziak eta alternatibak ere, panorama osoa ahalik eta modu sakonenean aztertu ahal izateko. Azterketa orokorregiek joerak seinalatu bai, baina ez dira beti abiapuntu ona zer gertatzen den ulertzeko edota esku-hartzeak diseinatzeko. Izan ere, aberatsa izan baitaiteke politika feministen inguruan dagoen ondorez bital eta egiturazkoaren analisisa unibertsitate zehatz batean dauden bestelako ezaugarriekin eta baita unibertsitate kanpoko mugimendu feministaren osasunarekin ere ponderatzea.

‘Belar txarren’ irakaspenak

Aurreko atalean aipatu ditudan esperientzien ebaluaketa sakona egitea baina proiektu horiek aitortzea eta zaintzea ere baldintzetako bat da, nire ustez; baina hori zaila suertatzen da azkartasun- eta ze-

reginen anizkoiztasun-kultura neoliberalak erabat barneratuta dugunean, baita geure burua progresistatzat dugunok ere.

Atal honetan, beste bide bati ekingo diot, unibertsitateari berari eta kontrakotasun politikak ulertzeari bestelako begirada bat ematera gonbidatuz. Horretarako, paisaien, lorategien eta baratzeen eremuari dagokion ikuspegi bat ekarriko dut hona, zeina mundu

mailako komunitate anitzetan ingurugiroa babesteko (izan) dituzten praktiken oinarriak baino ez den. Ikuspegi horretan, landaretza espontaneoari eta belar txartzat ditugunoi

Unibertsitateari berari
eta kontrakotasun
politikak ulertzeari
bestelako begirada bat
ematera gonbidatuz,
paisaien, lorategien
eta baratzeen eremuari
dagokion ikuspegi bat
ekarriko dut hona

protagonismo osoa ematen zaie, eta filosofia hori, nire ustez, politika (feministaren) alorrean ere aplikagarria izan daiteke.

Paisaien planteamendu horren ordezkarietako bat den J. Ramón Gómez Fernández paisajista eta irakasleak hirien landaketa zurrunen, urtarokotasunik gabekoen, aurreikusgarrien eta estatikoen aurka doan mantentze iraunkorreko ereduak proposatu du.⁶ *El Asombrario & Co.* aldizkarian, 2022ko abuztuaren 15ean, Ana Llovetek Gómez Fernándezen lana goraiatu du, ‘Romped vuestro idilio con el césped y amad las ‘malas hierbas’ (Hauts ezazue zuen idilioa soropilarekin eta maita itzazue ‘belar txarrak’) artikuluan.⁸ Irakur dezagun testu horren zati bat:

*Moztu dezagun soropila,*⁸ hauts dezagun ‘berdegune’ kontzeptu bat, zeina, berez, lorategi estatiko eta egartsu bat besterik ez den, gure ikusmenari atsegin ematen diona, baina ura modu jasangaitzean kontsumitzen duena eta ia animalia-bizitzarik ez duena. Presazkoa da. Ramón Gómez Fernández paisajista eta botanikariarekin izandako solasaldi batek, zuzenean, *belar espontaneoan aktibista* bihurtzen zaitu. Hala ere, soropilezko belardiak dituzten hiri-lorategiak diseinatzeko saiatzen gara, eta etorkizuneko hiri-eremu berriak diseinatzeko jarraitzen dugu aberastasunaren, estatus sozialaren eta ingurunearen kontrolaren ikur horrekin. Egin gaituzten beste lorategi mota baten maitale, non belar espontaneo mespretxatuek eta ingurunera egokitutako espezieek protagonismo handiagoa izango duten. Askok oraindik ‘sastraka’ deitzen dioten horrek lagundu diezaguke klima-aldaketaren aurkako borrokan eta gure metropoli-
lietan hain beharrezkoa den biodibertsitatea sustatzen.⁹

Filosofia hori jarraitzen duten proiektu desberdinak jarri omen dira martxan Tucson (AEB) edo Berlin (Alemania) hirietan, eta Espainiako zenbait udaletan ‘biodibertsitate-uharteak’ izena daramaten guneak sortu dituzte, polinizazioa eta intsektuen ugalketa errazte aldera.

Nola aplikatu hori guztia feminismoaren (edo politika eraldatzailearen) arloari eta, zehazkiago, unibertsitate-jarduera feministari?

Nire planteamendua garatzeko, hasteko, feministok gizar-
tean eta unibertsitatean egiten dugunaren irakurketa

noiz-edo-noiz-hotsandikoari buelta eman nahi diot, gure errealitatea anplifikatu baino, daukan txikitasuna azpimarraz eta lehiari muzin eginez (posible denean), zeren, gainera, hortxe murgilduz gero taxuz neurtu behar baitira helburuak eta indarrak. Esaten duguna esaten dugula, feminismoa ez da ezinbestekoa gaur egungo unibertsitatean eta bizi garen kontsumo-sistema kapitalista, etnozentriko, arrazista, klasista, androzentriko, heterozentrikoan (eta gehitu nahi ditugun kalifikatzaile guztiak). Feminismoa ez da nahitaezkoa gaur egungo testuinguru zientifiko hegemonikoan (apaingarri gisa ez bada), non gainera zientzia teknologikoak eta esperimentalak lehenesten diren giza eta gizarte zientzien gainetik. Ez da nahitaezkoa ezta euskal gizartean ere, non industriarekin zerikusia duen guztiak lehentasun osoa daukan, eta kultur-gintzarekin edo pentsamenduarekin loturikoak, aldiz, ez.

Txikitasun hori onartzea (edo posizio hori hartzea) interesgarria izan daiteke, lehenik eta behin, egoera horrekin zer egin behar dugun aztertzeraz derrigortzen gaituelako, irakasle, ikertzaile eta herritar gisa, feminismoaren ekarpena funtsezkoa dela edo, hobe, funtsezkoa izan daitekeela ondo argudiatuta eta jakintzat eman gabe; eta, bigarrenik, gure ahulezia gure gotorlekua ere izan daitekeela pentsatzea ahalbidetzen baitigu. Indarra eta hauskortasuna beti batera doaz eta.

Eta hortxe ikusten dut nik 'belar txarren' ereduaren balioa politikarako. Izan ere, gure estrategia nagusiak ez luke izan behar indartsuekin neurtzeak, zientzia indartsuekin edo gizartean posizio boteretsuenetan daudenekin, ez beti, behintzat. Baizik eta edozein lekutan hazten diren 'belar txarrek' egiten duten bezala egitea. 'Belar txarrak' hortxe daude, leku ageriko edo ezkutuetan, ñimiñoak batzuetan, handiak eta ikusgarriak beste batzuetan. Errotik erauzten saiatzen gara, baina berriz ere hazten dira. Badirudi ez dutela inolako zereginik baratze, lorategi edo paisaia batean. Hortxe daude, paisaia 'itsusten' eta 'traba egiten'. Hori da ikasi duguna.

Defendatzen ari naizen ereduak imajinarioak aldatzeko aukera ematen digu, edo, gutxienez, ikuskera berriak eransteko,

begiradak zabaltzeko. Unibertsitate neoliberalak 'lorategi eder-
rra' litzateke, 'behin eta berriro mozturiko belardia', zeinak
disidentzia modu zuzen edo sofistikatuetan murrizten duen
eta desberdinkeriak betikotzen dituen. 'Belar txarrak', osterak,
feministok eta korrontearen kontra goazen guztiok ginatke,
'biodibertsitate-uharteak'. Izan ere, konturatu gabe, gu ere
'lorategi ederren' zaleak gara, horien parte izan nahi dugu,
ulertu barik ezinezkoa dela, 'lorategia desertu estatiko eta
egartsua' dela, bizitzaren aberastasuna agortzen eta pobretzen.
Bizitza ereiteko, bizitza zabaltzeko, bizitza bera eragozten den
guneetan ere, sasitza, landaretza menderakaitza egokiagoa da.

'Belar txarrek' asko dute guri irakasteko, irauteko eta kontra
egiteko duten ahalmenagatik. 🍄

Oharrak

1. Carlos Berzosa ekonomilaria da eta Madrilgo Unibertsitate Konplu-
tentseko errektore izandakoa.
2. www.berria.eus/udako_serieak2022/08/14/utopiarantz/feminismoa.htm
3. Eskerrak eman nahi dizkiet Edorta Arana Arrietari eta Miren Guilló
Arakistaini artikulu hau hobetzeko eman didaten laguntzagatik.
4. Hego Euskal Herrian baditugu programa desberdinak. EHUri dago-
kionez, 'Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna' masterra (2001ean
sortua), eta 'Ikasketa Feministak eta Generokoak' masterra eta izen
berekoko doktorego-programa (2008 eta 2009tik indarrean, hurrenez
hurren). Horiez gain, 2019-2020 ikasturtean, EHU eta UEUren la-
guntzaz, 'Euskal Kultur Sorkuntza eta Kritika Feminista' aditu titulua
eskaini zen. Nafarroako Unibertsitate Publikoari dagokionez, IPES
elkartearen eta Gizarte Langintza arloaren elkarlan luze eta emanko-
rraren ondorioz, eta 'Experta y Experto en Género' aditu titulua urte
luzez eskaini ondoren, 2022-2023 ikasturtean 'Master Universitario
en Género, Mujeres e Igualdad' eskaintzen hasi dira. Azkenik, Deus-
tuko Unibertsitateak 'Master Universitario en Intervención en Vio-
lencia contra las Mujeres' eskaintzen du 2003tik aurrera.
5. EHUk emakume akademikoen lidergoa bultzatzeko abian duen pro-
grama ([www.ehu.eus/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/](http://www.ehu.eus/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/akademe)
akademe).
6. www.lacasaencendida.es/encuentros/belleza-inesperada-13461
7. [https://elasombrario.publico.es/romped-vuestro-idilio-cesped-amad-
-malas-hierbas](https://elasombrario.publico.es/romped-vuestro-idilio-cesped-amad-malas-hierbas)

8. Azpimarrak kazetariarenak dira.
9. Gómez Fernández-en antzerako proposamenak eta testuak zabaldu dira azken denboran, hala nola Pia Peraren liburuak, zeinetatik bat nabarmenduko nukeen: *Al giardino ancora non l'ho detto* (Oraindik ez diot lorategiari esan) (2019). Perak, gaixotasun larri batek jota, Italiako Toscanan erositako lursail abandonatu batean pasatu zituen bere azken urteak. Inguratzen zuen berjera horretan ez zuen apenas esku hartu, lorategia haizeari eta txoriei esker bertaraino joaten ziren basa-belarrez betetzeraino. Batasun batean ikusten zituen lorategia eta baratzea, esperimentazio eta jolaserako leku eta baldintza guztietatik askatzeko gune. Baratzea bera gidari. Ildo beretik, ikus Jakoba Errekondok *Argia* aldizkarian argitaratu zuen artikulua (2004) eta Louise Glück-en *Belar gaiztoak* izenburuko poema (2021: 41).

Bibliografia

- Astelarra, Judith (2009): *Veinte años de políticas de igualdad*, Madril, Cátedra.
- Bustelo, María; Lombardo, Emanuela (2007): *Políticas de igualdad en España y Europa*, Madril, Cátedra.
- Errekondo, Jakoba (2004): 'Belar txarrak zainak luze', *Argia*, 2004-08-01 (www.argia.eus/argia-astekaria/1955/belar-txarrak-zainak-luze).
- Esteban, Mari Luz (2017): *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*, Zarratuz, Susa. *Lisipe* bilduma 2.
- (2021): 'Pentsamendua modu kolektiboan eta are anonimoan eraikitzen da', *Hariak. Recreando la educación emancipadora* 10 (Ezagutza despatriarkalizatzea zerbaki monografikoa), 12-19.
- Fernandez-de-Labastida Medina, Ixone (2018): 'Las políticas públicas para la igualdad desde una visión antropológica', in: Mari Luz Esteban eta Jone M. Hernández García (koordk.): *Etnografías feministas. Una mirada al siglo XXI desde la antropología vasca*, Bartzelona, Bellaterra, 209-224.
- Gómez, Lucía (2022): 'Universidad y neoliberalismo: Cuando la igualdad se convierte en marca', *Galde* 37 (*La universidad, entre un complejo presente y un incierto futuro* zerbaki monografikoa), 29-31.
- Glück, Louise (2021): *Basairisa*, Aduna, Elkar. Itzultzailea: Garazi Ugalde Pikabea.
- Gutiérrez, Jorge (2022): 'Entrevista a Carlos Berzosa: «Corren malos tiempos para el pensamiento crítico»', *Galde* 37 (*La universidad, entre un complejo presente y un incierto futuro* zerbaki monografikoa), 22-25.
- Méndez, Lourdes (2007): *Antropología feminista*, Madril, Síntesis.
- Pera, Pia (2019): *Al giardino ancora non l'ho detto*, Milan, Ponte alle Grazie.

Unibertsitateen doikuntza neoliberalismoaren garaian

Ane Larrinaga Renteria

*UEUko kidea eta UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte
Langintza Saileko irakaslea*

Uda honetan 50 urte bete ditu Udako Euskal Unibertsitateak. 1975. urtean egindako UEUren Batzar Nagusiak euskal unibertsitateak honako ezaugarri hauek behar zituela iradoki zuen: nazionala, herritarra eta euskalduna. Zein esanahi dute osagarri horiek geroztik Hego Euskal Herriko unibertsitate esparruan gertatu diren aldaketen argitan? Galdera horri erantzuteko egin beharreko eztabaidarako zenbait prozesuren berri ematea du xede zertzelada laburrez osatutako ondorengo testuak.

Publikotasunaren lorpenak eta haren mugak nazio ikuspegitik

Azken mende erdian egiturazko bi eraldaketa bizi izan ditu Mendebaldeko unibertsitateak. Lehenengoa, goi mailako hezkuntzaren demokratizazioak eragindakoa. Bigarrena, globalizazio ekonomikoak sortutakoa. Goi mailako hezkuntzaren demokratizazio unea unibertsitate publikoen sorreraren bitartez gauzatu zen Hego Euskal Herrian. UPV/EHUren (1980) eta UPNA/NUPen (1987) sorrerarekin batera, zabaldu

egin zen ordura arte EAEko eta Nafarroako eliteak prestatzeaz arduratzen ziren prestigiozko unibertsitate pribatuen eskaintza. Ildo horretan, unibertsitate publikoak berdintasunaren eta kohesio sozialaren eragile izan dira. Besteak beste, langile klaseko nahiz klase ertain apaletako gazteak unibertsitatara iristea ahalbidetu dute, baita lehenbiziko emakume kopuru esanguratsuek ere goi mailako hezkuntzan sarbidea izatea xx. mendearen azken herenean. Bestalde, arian-arian, eta sarritan erritmo motelean izan bada ere, euskara goi mailako hezkuntzako komunikazio hizkuntza bilakatzeko bidea ireki dute; horrenbestez, euskal hiztun diren ikasleak ere publikotasunaren onuradun izan dira, EAEn behinik behin; ez Nafarroan, ordea. Berdintasunezko eragin horren ondorioz, EAEko 25-65 urte bitarteko pertsonen artean %50 baino gehiago dira goi mailako ikasketadunak gaur egun. Hartara, unibertsitate horien agerpena aurrerapausotzat har daiteke hala publikotasunean –herritar zentzua esleitzen bazaio publikotasunari– nola euskararen aurrerapenean.

Haatik, nazio eraikuntzaren ikuspegitik, Hego Euskal Herriko unibertsitate publikoen garapenak bi muga nagusi izan ditu. Bata, lurraldeko unibertsitateen artikulazio eza sistema bakar batean. Bestea, euskararen bazterreko garapena, hala irakaskuntzan nola ikerkuntzan. Lehenengoari dagokionez, unibertsitate esparruen eraikuntzak erkidego autonomoen instituzionalizazioaren bide berberei jarraitu die. Horrela, estatuen eta erkidegoen muga juridiko-politikoek isla zuzena izan dute unibertsitate publikoen eraketan eta funtzionamenduan. 2004an EAEn Euskal Unibertsitate Sistema delako legea onartu zen arren, «euskal» horrek erkidegoko mugarren barruan dauden unibertsitate publikoak eta pribatuak baino ez ditu hartu barnean. Era berean, sistema batek, sistema izateko, bere funtzionamendurako beharko lukeen unibertsitateen arteko konexio instituzionalizaturik eta helburu partekaturik ez da sortu harrez gero –ekimen txiki batzuk alde batera utzita–. Beraz, elkarren arteko lehian dabiltzan EAEko unibertsitateen artean aurrekontuak banatzeko tresna

huts bilakatu da aipatu legea.¹ Horiek horrela, gaur egun ez dago kolaborazio instituzionalizatu sendorik ez Hego Euskal Herriko unibertsitate publikoen artean, ezta lurralde administratibo bakoitzeko unibertsitate publikoen eta pribatuen artean ere.

Beste aldetik, euskarak eta euskal kulturak ez dute osatzen Hego Euskal Herriko unibertsitateen muina, inondik ere. UPNA/NUPEk euskarari bizkar emanda egin du bere bilakaera. Eta euskara gehiago garatu den unibertsitatean ere, hau da, UPV/EHU, euskararen ezarpena motela izan da irakaskuntzan, eta, beste erdaren ondoan –gaztelania eta ingelesa– ez dio bazterreko hizkuntza izateari utzi. Izan ere, graduiko ikasketetan ahalegin instituzionalak eta aurrerakuntza handiak egin diren arren, oraindik gradu batzuetan ez dago ikasketak oso-osorik euskaraz egiteko aukerarik. Eta argazkia are okerragoa da master, argitalpen, ikerkuntza jarduera eta administrazio jarduerak aintzat hartzen baditugu.

Nazio eraikuntzaren
ikuspegitik, Hego Euskal
Herriko unibertsitate
publikoen garapenak bi
muga nagusi izan ditu:
lurraldeko unibertsitateen
artikulazio eza sistema
bakar batean eta
euskararen bazterreko
garapena

Ezagutzaren ekonomiaren sorrera eta unibertsitatearen ondoriozko doikuntza

Zer esan arestian aipatu dugun bigarren eraldaketaz? XXI. mendeko unibertsitateak nazioartekotze-prozesu bizian sartuta dabilta. Globalizazio ekonomikoaren eskakizunek eta ezagutzan oinarrituriko ekonomia kapitalistaren aginduek eragina izan dute Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan, munduan ezagutza-ekonomia lehiakor bihurtzeko helburu estrategikoa baitauka Europako Batasunak. Hartara,

ezagutza zientifikoa bera kapital globalaren oinarri den une honetan, unibertsitateen funtzioen aldaketa gauzatzen ari da, baita bizkor gauzatu ere. Eraldaketa-prozesu konplexu horrek dauzkan hainbat ertzen artean, nabarmentzekoak dira alderdi linguistikoak –ingelesaren sarrera progresiboa irakaskuntzan, eta erabatekoa ikerkuntzan– eta irakasle-ikertzaileen rol, nortasun eta hierarkietan gauzatutakoak. Azken ildo horretan, gaur egungo irakasle-ikertzaileek askotariko funtzionamendu-logikatan birkokatu behar izan dute beren burua, besteak beste logika kulturean eta gerentzian, tokikoan eta globalean, irakaskuntzan eta ikerkuntzan, balio instrumentaletan eta ohiko balio akademikoetan (unibertsitatea kokatuta dagoen gizarteari buruzko erantzukizun etikoak dituen instituzio gisa, gizarte horren ongizatea eta zuzentasuna xede dituen). Mudantza sakon horretan, esparru akademikoaren kanpoaldetik datozen eskakizunek ezartzen dituzte, gero eta gehiago, irakasle-ikertzaileen zereginak eta balioak.

Izan ere, logika ekonomikoa sakon barneratu da egungo unibertsitatean. Sektore pribatuan berezkoak ziren metodo burokratiko-gerentzialistak nagusitu dira haren kudeaketan: esaterako, helburuen arabera plangintzak ezartzea, giza baliabideak irizpide produktibisten arabera kudeatzea eta emaitzen kontua hartzea (*accountability* delakoa). Egiten diren askotariko rankingek erakusten duten legez, munduko unibertsitate guztiak ari dira elkarren arteko lehian, beren produkzio zientifikoaren emaitzak neurtzen, nazioartetik erakartzen dituzten ikasle kopuruak publiko egiten eta eskuraturiko baliabideak eta funtsak jakinarazten. Kontu-ikuskaritzaren kulturak eta *ethos* neoliberalak tentsioak eragin dituzte kudeaketa korporatibista horren eta ohiko balio akademikoen artean. Hala eta guztiz ere, sortutako ezinegonak gorabehera, unibertsitateko irakasle-ikertzaileen artean barneratzen joan da autorregulazioa eta eredu berri horrek eskaturiko doikuntza, halako moldez non lanbide-identitate lehiakor eta malguetan lehentasuna hartu duten sarituak diren eginkizunak, hau da, karrera akademikoaren

sustapenerako baliagarriak direnak: balio instrumentalak, ikerkuntza lehiakorra eta produktibitatearen aldeko jarrerak, batik bat. Aipatu prozesuok, gainera, hainbat eta indartsuago dira zenbat eta gazteagoa izan irakasle-ikertzaileen belaunaldia. Horrenbestez, gero eta merkantilizatuago dagoen mundu akademikoan hierarkia sinboliko berriak ezarri dira. Modu horretan, irakaskuntza debalatu egin da ikerkuntzaren aldean, STEM (*Science, Technology, Engineering and Mathematics*) multzoko diziplinak nagusitu dira giza eta gizarte zientzien ondoan, eta ingelesa gailentzen doa beste hizkuntzen artean irakaskuntza nahiz ikerkuntza lanetan. Ikus ditzagun banan-banan metamorfosi globalaren alderdiok.

Hizkuntza patroiaren, ikertzaile ereduaren eta ezagutza legítimoaren zedarritze prozesuak

Lehenik eta behin, belaunaldien ordezkapenarekin batera, ibilbide akademikoaren orientazio estrategikoa joan da areagotzen irakasle-ikertzaileen artean.² Hego Euskal Herriko unibertsitate publikoen sorreran parte hartu zuen euskaldunen lehen belaunaldiko aitzindariak hizkuntza jarrera integratzaileak edo parte-hartzaileak zituzten euskarari dagokionez; ondorengo belaunaldietan, aldiz, hizkuntza jarrera instrumentalagoak gailentzen joan dira. Zehatz adierazita, lehenengo belaunaldien hizkuntza praktikak euskal komunitatea eta haren hizkuntza interesak goi mailako hezkuntzan integratzera bideraturik zeuden. Irakasle elebidun horietako asko UEU¹ prestatutakoak izan dira, eta euskalgintzaren guneetan ibilitakoak. Beren lan motibazioetan hizkuntza komunitateari buruzko leialtasuna eta identitatea egon dira inplikaturik, eta horiek gidatu dituzte beren rol profesionalak ere, hizkuntza identitatea eta lan identitatea lotu-loturik baitaude irakasle-ikertzaile horien jardunean. Talde horren rol akademikoak osagai aktibista bat ere eduki du, nahiz eta alderdi hori modu eta neurri desberdinetan adierazi den. Aitzitik, arestian ahotan hartu ditugun orientazio instrumentalak

xede utilitario eta pragmatikoei loturik daude, hain zuzen ere irakasle-ikertzaile elebidunen lanpostuekin batera datozen estatus- eta lan-aukerei.

Bi jarrera mota horiek ez dute elkar baztertzen eta ez dugu binomio itxia erabili behar biak ulertzeko. Hortaz, ez ditugu belaunaldi gazteenak estigmatizatu nahi azaleko baieztapen sinplifikatzaileak erabilia. Halaz ere, nabarmen ikusi da egindako ikerketetan,³ aipatu bi motatako jarrerak mutur biko *continuum* batean kokaturik, batetik besterako trantsizioa gertatzen ari dela. Indibidualizazioaren garaian, non era askotako agertoki sozial eta ekintza logikak dauden, irakasle-ikertzaile gazte askorentzat euskara ikastea eta erabiltzea izaera estrategikoa duten hautu indibidualen, bizi-ikuspenen eta lan-proiektuen esparruan kokatzen da. Azken urteotan unibertsitatera iristen ari den ikasle askok bezala, hainbat irakaslek ere bigarren hizkuntza gisa ikasi du euskara hezkuntza sisteman, eta gaur egun lan esparruan, eta horretan nagusiki, ulertzen du haren erabilera. Ez handik kanpo. Aipaturiko irakasle-ikertzaileen kolektibo horiek ez dute modu berean aditzen gaur egungo ingelesaren sarrera progresiboa goi mailako irakaskuntzan eta ia erabatekoa ikerkuntzan. Ha-

Ikerkuntzari dagokionez,
euskaraz garatutako
eta komunikatutako
ikerketak ez du
pizgarririk jasotzen
unibertsitatean,
ingelesez egindakoak
bezala, eta bazterrekoa
da produkzio orokorra
aintzat hartuz gero

la, batzuentzat euskarak irabazitako espazioentzat arrisku izan daitekeena, besteek aukera modura ikusten dute.

Bigarrenik, ikerketaren jarduerak gero eta zentralitate handiagoa hartu du irakaskuntzaren jardueraren aldean. Izan ere, lehenengoak sari sinboliko eta material gehiago jasotzen du irakasle-ikertzaileen lan ibilbidean. Bestalde, irakasle-ikertzaile gazte askoren artean zabaltzen ari den ikuspegiaren arabera, euskara

dagoeneko finkatuta edo instituzionalizatuta hautematen da unibertsitate-irakaskuntzan, hala-hola bada ere, bereziki EAEko unibertsitate publikoan. Hartara, gero eta ohikoagoa den ikusmolde horren ondorioz, belaunaldi gazteetako hainbat akademikok alde batera utzi du goi mailako hezkuntzan euskaraz eskainitako irakaskuntzak oraindik gaur egun ere eskatzen duen ahalegin ezohikoa, norbanakoak aukeratuta bete beharrekoa: euskarazko materialak sortzea, itzulpenak egitea, terminologia espezializatua lantzea, euskaraz idaztea eta argitaratzea eta, oro har, euskararen erabilera sustatzeko lanak egitea. Eta, ibilbide akademiko –hastapenetan prekario–, meritukratiko, lehiakor eta luzea aurrean ikusita, kolektibo horrek ikerkuntzara bideratzen ditu energia guztiak, eta ez euskarazko irakaskuntzaren osagarritzko lanetara.

Ikerkuntzari dagokionez, euskaraz garatutako eta komunikatutako ikerketak ez du pizgarririk jasotzen unibertsitatean, ingelesez egindakoak bezala, eta bazterrekoa da produkzio orokorra aintzat hartuz gero. Batetik, meritukraziak ezaugarritutako sistemaren barruan, ikertzaileen ikerketa-lana kanpoko ebaluazio-agentzien esku dago, eta, horrenbestez, produkzio zientifikoa nazioarteko aldizkarietan neurtutako irizpide bibliometrikoen bidez arautzen da estatu bakoitzean. Halatan, diziplina jakin batzuetarako sortu zen inpaktuaren irizpidea gaur egun zientzia guztiei aplikatzen zaie, aintzat hartu gabe giza eta gizarte zientziek tokiko testuinguru sozialarekin duten lotura motak produkzio zientifikoaren beste lanketa- eta komunikazio-eredua eskatzen dutela, eta gizartean eragin daitekeen inpaktua ere ezin dela beti modu berean ulertu. Esan gabe doa bigarren mailakotzat jo diren azken diziplina horiek dutela unibertsitate barruan loturarik handiena euskararen sustapenarekin eta euskal gizarteari lotutako gaiekin. Eta, besteak beste, pentsamendu kritikoaren sorrerarako oinarri ezinbesteko direla, errealitate sozialaren gibelaldean dauden botere harremanak azaleratzeko tresnak eskaintzen dituztelako. Bestetik, baina, egitate eztabaidea ezina da diziplina askoren espezializazio mailak ez duela populazio

euskaldunean masa kritiko potentzialik bere produkzioaren hartzaile izateko, eta oso gutxi direla euskaraz argitaratzen diren aldizkariak. Faktore sistemiko horiek guztiek norbanakoaren esku utzi dute euskarazko produkzioa ikertzaileen lan ibilbidean.

Azkenik, teknologien eta zientzia esperimentalen diziplinei lotutako *ethos*-a nagusitu da gainerako diziplinen aurrean.⁴ Ezagutzaren ekonomiaren balioek eta horien ondorioz gailendutako zientzien eta teknologien logika zientifiko-positibistak ‘ez-produktibotzat’ jotako diziplinen balio sinbolikoaren galera eragin dute unibertsitate esparruan. Halatan, zientzia sozialak eta humanitateak diziplinen arteko hierarkien behealdean kokatu dira gaur egun, merkatu irizpideen arabera baliorik ez dutelako. Aipatu prozesuaren alderdi kognitiboari dagokionez, nagusitasun hori jakintza pragmatiko, estandarizatu eta unibertsala sortzeko asmoetan islatzen da, motibazio sozial eta humanoetatik eta produkzio-testuingurutik loturak hautsita agertzen dena gehienetan, eta ikuspegi nabarmenki androzentrikoa erabiltzen duena. Alderdi linguistikoa dagokionez, jakintza zientifikoaren komunikazioan –eta, gero eta gehiago, haren produkzioan ere– ingelesak duen monopolioan adierazten da, baita *lingua franca* horri esleitutako ustezko funtzio neutral eta instrumentalean ere. Horrenbestez, euskarak ez dauka legitimitate estatistik produkzio zientifikoan; dibulgazioari egotzitako espazioa geratu zaio zientzia dominanteen esparruan, eta azpiratutako diziplinen ‘bigarren mailako’ produkzioa giza eta gizarte zientzien arloan.

Ezagutza legitimoaren pribatizazio progresiboa

Balio erantsia sortzeko, lan sistema postfordistak unibertsitate-tituludun higikorrak eta egoera aldakorretarako doigarriak nola, halaxe eskatzen ditu egungo ezagutzaren produkzio sistemak ere bere langile egokiak. Orain arte esandakoaren haritik, ezagutzaren ekonomia globalak bere helburu-ildoetara

lerraturako ikerkuntza eta garapena behar ditu, azkar eta modu intentsiboan jorraturakoa, etengabeko aldaketa bizietara malgutasunez egokitzeko gauza dena eta lehiakortasunaren eta produktibitatearen logikan kokatua. Irakasle-ikertzailez osaturako kolektibo akademikoak eskakizun horietara makurtzen joan dira azken urteotan, nabarmen handitu da beren produktibitatea ikerkuntzan eta transferentzian eta, ondorioz, hautsi egin da, hein batean, unibertsitatean zegoen irakaskuntza/ikerkuntza bikoiztasunaren barne oreka, ikerketa lanaren alde. Hala, etengabeko baheketa funtzioa eginez sortzen ditu unibertsitateak ezagutzaren ekonomiak beharrezkoak dituen jakintzak, eta hautatzen ditu lehentsetako jakintza horien jorrocketan jardungo duten ikertzaile egokiak ere. Doikuntza lan horiek guztiek adierazten dute ezagutzaren pribatizazio dinamika argia gertatzen ari dela unibertsitate pribatuetan ez ezik –zeharka– publikoetan ere. Eta erakusten dute UEUren unibertsitate-proiektu herritarra, nazionala eta euskalduna modu oso partzialean baino ez dela bete egungo unibertsitate publikoetan.

Bestalde, unibertsitate barruko lan jardunaren lekualdatze hori nahikoa ez eta, apurka-apurka, bigarren prozesu bat ere gauzatzen ari da: hain zuzen ere, ikerkuntzaren eta ezagutza zientifikoaren pribatizazio ‘zuzena’ dei dezakeguna. Ildo horretan, unibertsitate publikoetan egun gertatzen ari den pribatizazioaren alderdirik indartsuenetakoa gizartearentzat oharkabea gauzatzen ari delakoan gaude. Bada, gaurko unibertsitateek ikerkuntza jardueraren zatirik handiena egiten jarraitzen duten arren –Hego Euskal Herrian UPV/EHU buru dela, haren giza baliabideak eta tamainak hala aginduta–, arian-arian, botere politikoak unibertsitate publikoak des-instituzionalizatzen eta, ondorioz, baliabideez husten ari dira. Prozesu horren goren-unea unibertsitate publikoen zeregin batzuen esternalizazio progresiboa izan da.

Arestian adierazi dugunez, dagoeneko lan zientifikoak nazioz gaindiko dimentsioa hartu du. Mundu globalizatua da ikerkuntzaren eta ezagutza zientifikoaren produkzioaren

harreman- eta lehia-esparru nagusia; zehatzago adierazita, nodo sare batez osaturiko zirkuitu kapitalista globaletan barrena ekoizten, komunikatzen eta trukatzen dira fluxu zientifikoak, modu gero eta azeleratuagoan. Horiek horrela, tokiko politika zientifikoek ere –estatukoek nahiz autonomikoek, gure kasuan– espazio eta logika hartara egokitu dute ikerkuntzaren eta produkzio zientifikoaren norabidea, unibertsitateak egitura zaharkitu eta zurrunegitzat hartuta. Prozesu horretan, politika zientifiko jakin batzuen bidez, agintari politikoek ‘bikaintasuneko ikerketa’ izendatu duten hori unibertsitatetik at atera dute geldi-geldi, bai antolakuntza instituzionalari dagokionez, bai jarraibide politikoei dagokienez. Ildo horretan, bikaintasuneko ikerketarako fundazio-, antolakunde- eta institutu-sorta handia eratzeari ekin diote azken hamarkadan, bereziki EAEn, baina baita Nafarroan ere, gehienetan unibertsitate publikoetan prestatutako giza baliabideak gune horietara transferituta.

Antolakunde horien sorrera ezagutzaren ekonomiaren premia bati loturik dago. Fase honetan, hain zuzen ere, ikerketa lanetan arduraldi osoz modu intentsibo, lehiakor eta pizgarrian arituko diren zientzialariak, konektaturiko nazioarteko sare malguetan antolatutak, higikorrak eta politikoki nahiz ekonomikoki lehenetsitako eta legitimaturiko jakintza arloetan jarduten dutenak behar dira. Horien lanaren intentsifikazioaren emaitzak irizpide metrikoen bidez neurtzen dira; ondorioz, gutxi batzuen lana biderkatu, metatu eta ikusarazi egiten da eta esparru zientifikoko erdi- edo behe-mailako ikertzaileen lanetik bereizi. Produkzioaren kalitatea ere –‘bikaintasunaren’ maila– parametro horietan izartzen da. Hala, ezagutza zientifiko desberdinen esparrua estratifikaturik agertzen zaigu hierarkizazio berrietan. Zehazki, zentro/periferia logikak zeharkatzen du haren dinamika, non, besteak beste, unibertsitatez kanpoko ikerketa-organismoetako mende-baldar elite maskulinoak, nagusiki teknologian edo zientzia ‘legitimo’ izendatutakoetan aritutakoak, osatzen duen erdiguneko kokapen sinbolikoa ezagutzaren sortzaileen artean.

Horrenbestez, esandakoaren haritik, Europako eta Mendebaldeko beste herrialde batzuetan abian jarritako jarraibideen arrastoak nabarmenak dira Hego Euskal Herrian azken urteetan ezarritako politika zientifikoetan. Besteak beste, bai EAEn bai Nafarroan indarrean dauden estrategiak ezinbesteko baldintza dira Europako funtsak eskuratzeko. Zalantza barik, politika horiek areagotu egin dute hala ezagutza zientifikoaren pribatizazioa nola unibertsitate publikoen desinstituzionalizazioa, baita ahuldu ere horien

ikerketa kapitala. Horrez gain, botere politikoen eta ekonomikoen menpe jarri dute lehenago unibertsitatearen balizko autonomiaren logikapean egin beharrekoa zen jarduera. Ildo horretan, sortutako zentro berriek⁵ fundazio edo institutuen izaera juridikoa hartu dute, eta agintari politikoek presentzia nabarmena dute horien patronatuetan; hainbat patronatuetan, enpresa handiek eta finantza erakundeek ere badaukate ordezkartza. Orobat, zentro horiek finantziario sistema propioa dute. Hartara, ez dituzte pairatu unibertsitate publikoek 2008tik aurrera izan dituzten murrizketak finantzaketan eta inbertsioetan.

Ikuspegi intersektorial batetik azterturik, esternalizaturiko eta pribatizaturiko sektore berri horrek birstortu ez ezik indartu ere egin ditu, ehunduta, unibertsitateetan lehenagotik zetozen desberdintze joerak; sexu-genero sistema (emakumea/gizona), irakaskuntza/ikerikuntza, gizarte/merkatua, babes politikoa/babesik eza, ezagutza legitimoak (merkatuarentzat errentagarriak)/baliogutxitutako diziplinak, tokikotasuna/nazioartekotzea eta antzeko kategoriak atzeman daitezke bazterkeria irizpide diren horien artean. Horiek horrela, datuek erakusten dute,⁶ lehenik, Hego Euskal Herriko

Hego Euskal Herrian
azken urteetan
ezarritako politika
zientifikoek areagotu
egin dute hala
ezagutza zientifikoaren
pribatizazioa nola
unibertsitate publikoen
desinstituzionalizazioa

ikerkuntza-ildo nagusietan diharduten bikaintasunezko eliteak segmentazio-eredu patriarkalaren arabera antolaturik daudela, eta emakumeak goi mailako produkzio zientifikotik eta produkzio horren erabakimenetik at geratu direla, beste behin ere. Bigarrenik, ikerkuntzan produkzio-modu intentsiboan aritzen direla taldeok. Hirugarrenik, nagusiki merkatu ekonomikoaren beharretara bideraturik jarduten dutela. Laugarrenik, politika zientifikoko globaletara lerraturiko kolektibo lehiakorrak direla. Bosgarrenik, diziplina eta ezagutza-arlo jakin batzuetan burutzen dela beren lana eta gauzatzen direla beren emaitzak, eta beste batzuk baztertuta geratu direla. Eta, azkenik, nazioartekotze-eredu hegemonikora bideratutako taldeak direla.

Ikerketa gune horietan egiten den lana oso baliotsua da, zalantzarik ez. Halaz ere, guneon norabidearen erabakimena dutenek eta bertan sortutako ezagutzaren subjektuek dituzten ezaugarriek mugarritu egiten dute eraiki dezaketen ezagutza zientifikokoaren nolakotasuna; besteak beste, androzentrikoa, merkantilizatua eta hierarkizatua izateko joera izan dezake ezagutza horrek. Baina baita baztertzaila ere. Batetik, egitura zientifikoko horiek ezagutza legitimoaren kategorizazio jakin bat ezartzen laguntzen dutelako, eta, bestetik, kontrol sozial argirik ezean, lehenetsitako ezagutza ildoetatik kanpo geratu diren hainbat sektore sozial eta komunitarioren interes eta premiak aintzat hartu gabe jardun dezaketelako.

Azken gogoeta

UEUk behinola aldarrikatu zuen unibertsitatearen herritar izaera hezurmamitu gura bada, publikotasuna beste modu batean birformulatu beharra dago gaur egun. Ohiko zirkulu kulturaletatik at, nago euskal gizartean ezagutza gutxi dagoela unibertsitateaz, haren funtzioez eta bizi dituen aldaketez. Eta horrek unibertsitate ereduaren inguruko eztabaida publiko eta parte hartzailea eragozten du. Era berean, instituzio preziatuak diren arren herritarren artean –hala erakusten

dute inkestek–, unibertsitate publikoek ez dute jakin goi mailako hezkuntzaz gain betetzen dituzten funtzioen berri zabala ematen gizartean. Egon badago unibertsitatetik gizarterako ezagutzaren transferentzia garrantzitsua, baina ez da oso ezaguna. Eta kontrako norabidea, gizartetik eta komunitatetik unibertsitaterakoa, eskas urratu dute modu instituzionalean unibertsitateek, nahiz eta irakasle-ikertzaile askok konpromiso hori jorratzen duten beren ohiko lanean. Horrela, herri kolektiboen, gizarte mugimenduen eta bestelako talde askoren interesek eta beharrianek ez dute oihartzun nahikorik jaso mundu akademikoan. Ildo horretan, gaur egun eragile askok hitz egiten du gizartearen izenean unibertsitatearen zereginei dagokienez. Hedabide hegemonikoetan, politikarien, gobernuen eta elite ekonomikoan adierazpenetan nagusitu den unibertsitateari buruzko diskurtso tekniko-ekonomikoan, adibidez, hitzetik hortzera erabili da unibertsitatearen, ikerkuntzaren eta gizartearen arteko alegiazko lotura hori. Baina, diskurtso horretan ‘gizartea’, ‘interes soziala’ eta antzeko kontzeptuak merkatuaren adierara murriztu dira frankotan.

Esan beharrik ez dago euskal gizarteak desafio handiak dituela aurrean, ez etorkizunean, oraintxe bertan baizik. Eta desafio horiek beren unibertsitateenak ere –bereziki publikoek– izan behar dute, nahitaez. Oraintsuko gertakari esanguratsu askok iragarri digute, baita modu larrian iragarri ere, jadanik borondatezko hautua ez ezik ezinbesteko eginbeharra dela jende guztiaren bizitza duinarekin, ongizatearekin eta berdintasunarekin, baita naturarekin ere, konprometitzea, zibilizazio paradigma berrirako trantsizioari ekiteko. Munduan eta tokian-tokian. Gurean ere bai, hortaz.

Trantsizio horretan talderik ahulenak suerta daitezke kalte-tuen egungo merkatu lehentasunek iraunez gero. Dagoeneko komunitate zientifikoak frogaturik baitauka orain arteko eredu ekonomikoa ez dela gehiengoaren bizitzarekin bateragarria, ezta iraunkorra ere. Horrenbestez, ez litzateke alferrikako ariketa izango unibertsitate publikoetan eginkizunen

eta lehentasunen inguruko eztabaida soziala hainbat arinen abian jartzea. Unibertsitate publikoek eraldaketa eta berrikuntza sozialerako espazio bihurtu nahi badute, ikuspegi kritikoetan oinarritutako hezkuntza emantzipatzailea eskaintzeaz gain, aipatu ditugun balioekin bat datozen interes sozialei erantzun behar diete ezagutzaren sorrerari dagokionez –ekitatea, kohesio soziala, bizitza duina eta iraunkortasuna, besteak beste–, eta horretarako tokiko ingurune sozialarekin harremanak estutu eta horrekin etengabeko berrelikaduran jardun orotariko premia sozialei erantzuteko. Asko dago, beraz, eztabaidatzeko. Eta egiteko. 🍷

Oharrak

1. Madinabeitia Ezkurra, Alba; Larrinaga Renteria, Ane; Martínez-Palacios, Jone; Amezaga Albizu, Josu; Saratxo Moro, Mikel; Odriozola Irizar, Onintza (2018): *Unibertsitate Sistemak euskal gizartearen eraldaketari egindako ekarpena*, Bilbo, Agirre Lehendakaria Center, EHU eta Euskampus (<https://addi.ehu.eus/handle/10810/30918?locale-attribute=es>).
2. Larrinaga Renteria, Ane; Amurrio Velez, Mila (2015): 'Internationalisation in higher education and its impact in multilingual contexts: redefining identities of Basque academics', *Language, Culture and Curriculum* 28(2), 158-169 (www.academia.edu/33036556/Internationalisation_in_higher_education_and_its_impact_in_multilingual_contexts_redefining_identities_of_Basque-speaking_academics).
3. *Ibid.*
4. Larrinaga Renteria, Ane (2016): 'Identidades académicas en cambio en el seno de la universidad multilingüe', *Papeles del CEIC*, 2016(2) [163 papera] (<https://core.ac.uk/download/pdf/326228914.pdf>).
5. Adibide gisa, honako hauek dira EAEko Jaurlaritzaren 2019-2022 *Unibertsitate Sistemaren Plana* delakoan unibertsitate ekosistemaen barruan dauden zentroak: BERC zentroak (Basque Excellence Research Centers, bederatzi zentro dira guztira: Basque Center for Neuroscience, Basque Center for Climate Change, Basque Center for Applied Mathematics, Basque Center on Cognition Brain and Language, Basque Center for Materials, Applications and Nanostructures, Donostia International Physics Center, Biofisika Bizkaia Fundazioa, Basque Center for Macromolecular Design and Engineering eta Materials Physics Center), Euskampus Fundazioa (EHU, Tecnalia Korporazioa eta Donostia International Physics Center), 4Gune Klusterra (Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologiako Unibertsitate Hezkuntzako Klusterra), Unibasq (kalitate agentzia) eta Ikerbasque-Basque Foundation for Science (tokiko nahiz atzerriko bikaintasuneko ikertzaileak erakartzeko fundazioa) (www.euskadi.eus/contenidos/plan_gubernamental/10_planest_xileg/eu_plang_10/adjuntos/Unibertsitate_Sistemaren_Plana.pdf).
6. Larrinaga Renteria, Ane (2021): 'Eliteak: unibertsitatea eta ikerketa', in Jon Diaz Egurbide (zuz.): *Hego Euskal Herriko Eliteak. Boterearen Azterketa*, Bilbo, Manu Robles Arangiz Fundazioa eta IparHegoa Fundazioa, 127-157 (www.plataformaeskolapublikoa.eus/wp-content/uploads/2022/01/HEGO-EUSKAL-HERRIKO-ELITEAK_web-1.pdf).

Errealitate krisiei aurre egiteko unibertsitatea

■ Ekai Txapartegi Zumeta

UEUko kidea eta UPV/EHUko Filosofia Saileko irakaslea

Singularrean, ez daukagu Euskal Herriko Unibertsitatekerik, ez euskal nazioari erantzuten dionik, ez lurraldeari erantzuten dionik, ez klabe subiranistan funtzionatzen duenik. Ez dut uste errealista denik pentsatzea Euskal Unibertsitate Nazionala zerotik jaioko denik edo dauzkagun unibertsitate egitura horietakoren baten garapenaren ondorioz etorkizun hurbilean Euskal Unibertsitate Nazionala gauzatuko denik. UEUren garapenetik ere ez. Baina unibertsitateak badauzkagu, pluralean, inoiz baino akademiko gehiago, inoiz baino ikasketadun gehiago, inoiz baino ikerketa talde gehiago, eta erakunde arteko sarea ere ari da eratzen. Inportantea da konstatazio hori.

Azken 40 urteetan asko erein da, jasotzen ere ari gara ereindakoa, eta, orain, ekimen akademikoen sareari begiratzen diogunean, nazioaren eta lurraldearen mugak agertzen hasten dira, euskararenak eta gure herri-gaitasun zein-beharrenak. Horregatik, egin zaigun galderari helduz, Euskal Unibertsitate Nazionaletik inoiz baino gertuago edo urrunago gauden, singularra albo batera utzi eta galdera funtzioen arabera erantzuten saiatuko naiz. Pluralean. Zein funtzio bete beharko lituzke Euskal Unibertsitateak XXI. mendean? Horiek betetzetik gertu gaude?

Ur gaineko txalupa

Hezkuntzaren ikuspegi liberala gailendu dela begi-bistakoa egiten zait. Ingurukoei galdetuz gero, ikasketak lanpostuak eskuratzeko dira, norbere merkatu-balioa igotzeko. Ez da gaurkoa, antzina ere hala izaten zen. Duela 3.300 urte Egipton *Sallier II* papiroa idatzi zuen Duajeti aitarentzat ere ikasketak «ur gaineko txalupa» ziren. Lanbide guztiek gorputza zigortzea eta bizimodu pobrea zekartenez, nagusiaren pean eta fustaren mehatxupean bizitzea, Pepi semeari eskribau ikasteko aholkatzen zion. Semea maite zuelako bidali zuen hegoaldeko «eskribauen eskolara», etxetik urrun. Gauzak ez dira gehiegi aldatu. Operatiboak izatea gurasoen eskaera legitimoa da, gurasoak lan-merkatuaren bozeramaile bihurtuta, jendarte mailakatueta hezkuntza den eskailera bila, ur azpitik ateratzeko.

Hezkuntzaren ikuspegi indibidualista edo berekoi horrek inbaterik, bigarren ideia liberala da, orokortua hau ere, hezkuntzak arazo orokor guztiak konpondu behar dizkigula, legez inor behartzeko aukerarik ez dagoenean. Pentsamendu liberalari erosi diogu markoa. Batetik daude problema partikularrak, edo lokalak edo puntualak, eta horiek merkatuak konpontzen ditu, edo ekimen militanteak, edo bihurtzen dira produktu, edo zerbitzu. Eta bestetik daude problema orokorrak guztioi eragiten digutenak eta konpontzeko guztion koordinazioa behar dutenak: jarrera biolento edo zabarrak, dogmatismoak, arrazakeria, matxismoa, kutsadura, aldaketak klimatikoak edo askapen nazionala. Eta horientzako, inor behartu ezin dugunez, legea indartzeak estatua indartzea dakarrelako, 'hezkuntza' omen daukagu. Hezkuntzak konpondu behar omen dizkigu egiturazko arazo kolektiboak: euskara salbatu behar digu, planeta salbatu behar digu, emakumeak salbatu behar ditu eta abar.

Ikuspegi liberal horrek ez du horrela funtzionatzen. Hezkuntza ez da hagaxka magikoa. Hezkuntzak izan behar du euskaldunagoa, feministagoa, inklusiboa, ekologistagoa, baina ez da gehiegi espero behar, ez dira ahaztu behar gainerako

sistemak eta egiturak eta, batez ere, ez da pentsatu behar hezkuntza sistemaren lehen egitekoa hori denik.

Unibertsitatearen fiaskoa

Ikuspegi liberal orokortuari gehitu behar zaio Euskal Herriaren zaleak, historikoki, ez direla bereziki zientziazaleak izan. Nabarmenki, XIX. mendean European positibismoa nagusitu zenean, ideologia burges eta liberal gisa, Euskal Herria kanpoan geratu zen. Unibertsitatea ez zen euskal lurraldera sartu, eta, ondorioz, euskarak ez zuen unibertsitaterako sarbiderik topatu. XIX. mendeak ez zizkigun euskara eta zientzia ezkondu.

Gure defentsan esan genezake Ilustrazioak kolpatu zuela lehendabizi. Frantziako Iraultzarekin eta Konbentzio Gerrekin abiatzen da euskal nazioa ezabatzeko programa liberala. Ilustrazio eta modernia frantsesak, eta espainiarrak deribazio ahulean, euskara eta Euskal Herria gutxietsi ditu, ia hasieratik. Unibertsaltasunaren eta progresu normatibo eta berdinzalearen izenean euskal legeak eta euskal partikulartasuna gainditzeko programa politikoak azpian harrapatu nahi izan zuen Euskal Herria. Horri erantzunez, euskal lurraldeek atzeraka eginez erreakzionatu zuten foruetan gotortuta, elizan eta monarkian, XVI. mende ederraren nostalgian. Iraganeko mundu zaharrean gotortu ziren, zientziekin ere haserre. Karlista batzuek, esaterako, jarri zuten antizientifiko hori bere egingo dute, euskal purutasun katolikoaren bandera antimoderno eta antiindustrial moduan, Mendebaldearen ustelkeria moralaren aurka bertakotasunaren defentsa egiteko.

XIX. mendean European positibismoa nagusitu zenean, ideologia burges eta liberal gisa, Euskal Herria kanpoan geratu zen. Unibertsitatea ez zen euskal lurraldera sartu, eta, ondorioz, euskarak ez zuen unibertsitaterako sarbiderik topatu

xviii. eta xix. mendeetan, zientzia eta teknologia mehatxagarri sentitu dira euskal lurraldeetan. Historia ezagun horrek badu sinplifikaziotik, salbuespenak esanguratsuak eta nabariak direlako, batez ere xviii. mendean (Azurmendi 2020: 161), baina hori da daukagun paradigma interpretatibo hoberena, indarrean dagoena, «humanismo laurdentxo» eta «Ilustrazio erditxoarena», eta horrela jarraituko du izaten kontrako ebidentziak topatzen ez ditugun bitartean: Euskal Herria ez da bereziki zientziazalea izan.¹

Jarrera orokor horri tradizio akademikoaren gabezia gehitzen zaio. Joxe Azurmendik aipatzen duen «unibertsitatearen fiaskoa» (*ibid.*: 158). Salbuespen ezaguna, Bergarako Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, meritu handikoa. Zoritxarrez, «oligarka eruditua» edo «jauntxo ilustratu» bakanen asmo horrek «ezjakintasun arruntena eta kontserbadorekeria hertsiena» erakutsi zuen hasieratik (*ibid.*: 165). Gainera, gauzak okertzeko, programa zientifikoa bultzatzen zuten oligarkak, aldi berean, politikoki, foruak defendatu beharrean, erregionalismo zentralizatzailearekin lagunkiro moldatzen ziren. Unibertsitatetxo horiek ere Ilustrazioaren marko programatikotik kanpo ibili dira, zientzia arrotz zaie-la, eta nazioaren eskema subalternoa ontzat emanez: nazio estatuaren zerumugarik gabe, euskara modernizatzeko asmorik gabe eta abar. Hortaz, Ilustrazio ezabatzailearen aurkako gotortze hori uler genezake tradizio faltagatik, marko politiko apropos faltagatik, edota saiatu zirenak sozialki elitistak eta politikoki erregionalistak izan zirelako, «foruekiko axolagabe».

Unibertsitatetik kanpoko loratze epistemikoa

Ilustrazio aurrean egoera ezberdina izan zen, zientzia-ezagutza ez zelako unibertsitatetan ekoizten. xv.-xvii. mendeetan, unibertsitateek programa aristoteliko-tomista jarraitzen zuten medikuntza baldarra, teologia eta legeak irakasteko, eta ezagutza enpirikoa, ezagutza protozientifikoa, unibertsitatetik

kanpo ekoizten zen, esaterako, margolari edo beilarien lantegietan, edo meategietan.

Lehen euskal unibertsitatea Oñatikoa da, 1540koa, latinez irakatsiko duena, guztiek bezala, Teologia, Zuzenbidea eta Medikuntza. Halako unibertsitatea ez da inoiz herri proiektua, katolikoa da, aita santuak sortzen du, erregearen laguntzarekin. Oraindik ehun urte beharko dituzte Europako unibertsitateek modernizatzen hasteko, autoritatea gertakarietan jartzeko (Biblia edo Aristotelesen beharrean). Bitartean, ikasien kasta sortzera bideratzen dira, elizaren eta koroaren zerbitzura jarrita. Hartu, esaterako, Francisco de Vitoria akademikoa, kolonialismoa zuritzen eta marko legal neurrikoa eraikitzen, bateragarri egiteko konkista eta balio kristauak. Euskaldunen artean ere, ikasienak Paris edo Salamancara joan ohi ziren, aintza bila eta gaur bezala sistema europarrean sartzeko.

Kontrastea Elkano bezalakoak dira, profesional trebeak zirenak. Dakigula, ez zuen unibertsitate ikasketarik, baina garaiko ezagutza enpirikoak bazituen, esaterako, kosmografiari edo astronomiari buruzkoak. Kartografiaren hastapen-hastapen haietan, ludia irudikatzeko globo bat egin zuen. Latinez ere irakurtzen zuen eta nabigazio abilezia paregabea frogatu zuen. Non ikasi zituen horiek guztiak? Ez dakigu. Baina bazekizkien. Agian Sevillako Kontratazio Etxean egin zituen ikasketak maisu gisa aritu ahal izateko? Ziur dakiguna da euskaldun konpetentea zela Elkano, egoerarik aldakor eta ezezagunenei aurre egiteko gai.

Garai hartan oinarritzko hezkuntza herrigintzarekin lotuta agertzen da, herri bakoitzak ordaintzen baitu herriko irakaslea. Udalak ekartzen du herrira eta herria da lantegi horien kokalekua ere (Rossi 1998), ezagutza enpirikoa eta praktikoa han ari delako ekoizten. Hortaz, XVI. mendea parentesi edo salbuespen gisa uler genezake; ezagutza enpirikoaren ekoizpen eta zabalkundean unibertsitateek pisu gutxi zuten garaian, jabetuntza epistemikoari dagokionez, euskaldun jabetuak agertzen dira, batez ere itsasoari lotutako zientzia eta teknologietan.

Abertzaleen azken aterpea

Zientzia ezagutza unibertsitateetan edo errege elkarteetan ekoizten hasten denean, ordea, xvii. mendetik aurrera, Euskal Herria eta zientzia urrundu egingo dira xx. mendera arte. Frankismoaren diktadurapean ere, esaterako, euskara eta zientzia, euskara eta unibertsitatea banatuta ulertzen ziren, bi mundu aparteko bezala.

Karlos Santamariaren belaunaldiak –1900-1920 artean jaiotakoek–, esaterako, ez zeukan Euskal Unibertsitatea bu-
ruan.² Ez zuten unibertsitate erakunderik sortzeko asmorik, indarrik edo ahalmenik; 36ko gerraren ‘galtzaileek’, trauma-
tizatuta, diktadura ankerrenaren zapatapean, ezer gutxi egin

zezaketen. Euskal Herri derro-
tatuaren maldan beherako ho-
rretan, *Akademia ibiltaria* eta
Aranzadi sortu zituzten 50eko
hamarkadan, helburu xume-
-xumeekin: noizean behin el-
karrekin biltzea, bazkaltzeko,
elkar ezagutzeko, erreferen-
tzia kultural batzuk elkarren
arteana banatzeko, euskal his-
toriako hainbat ‘zientzialariri’
balioa emateko eta abar. Eta
apur hori ere gaztelaniaz egi-
ten zuten. Ez zegoen Euskal
Unibertsitatearen surik, txin-

Eliza aipatu ohi da,
frankismoan programa
abertzalearen babesleku
izan zela; baina zientzia
ere izan da aterpea,
eliza bezala zientzia ere
jarduera ez-politikotzat
hartzen zelako.

Politikoki inofentsiboa,
beraz, toleragarria

garra edo brasa ahula bakarrik. Akademikoak baino, ‘afi-
zionatuak’ biltzen ziren; zientzialariak baino, liburuzaleak,
idazleak, medikuak, abokatuak eta halakoak. Luis Peña Ba-
surto Donostiako liburu-denda jabea aritu zen *Akademia
ibiltariaren* bilerak antolatzen, Angel Cruz Jakarekin batera.
Ahaztu ditugun izenak dira.

Peña Basurto deigarria da: indibidualismoa kritikatzeko
du. Gerraostean norberak ahal duena egiten duela eta

berekoikeria nagusitu dela esaten du, deshumanizazioa nagusitzen ari dela, hiritartzen ari dela euskal jendartea, hiritako auzoak zikinak daudela, ibaiak kutsatuta daudela... Herriaren hondoratzea deskribatzen du. Bere burua maite ez duen herria, bere indarretan sinesten ez duena. Nabaria da zerk mugiarazten zituen: galeraren kontzientziak. Euskararen galerak, herri izaeraren galderak eta herriaren konfiantza galerak. Herria, inguru bitala, hondatzen, gaizkitzen nabari dute. Indibidualismoa herri-galera da. Auzo zikinak eta ibai kutsatuak. Paisaian proiektatzen da herri mina. Euskal Herria herri hondatua da, besteak beste, unibertsitaterik ere ez duelako. Eta beroki ilustratua jantzita prehistoria aztertzeo biltzen dira, kobazulotara sartzen dira marrazki zaharren bila. Prehistoria da Euskal Herria, izan zitekeen baina ez den herria. Eta azterketa 'zientifikoa', ilustratua edo liberala da neutralitate politikoaren mozorroa. Programa abertzalea programa zientifikoa bihurtu dute, frankismoan zilegi izan dadin. Zientziaren baitan gorde da herri kontzientzia, zientzia-itxuran aurkituko du babeslekua.

Aterperik gabe euskaldunak badaki bizitzen. Edo aterpe prekariotan. Eliza aipatu ohi da, frankismoan programa abertzalearen babesleku izan zela; baina zientzia ere izan da aterpea, eliza bezala zientzia ere jarduera ez-politikotzat hartzen zelako. Politikoki inofentsiboa, beraz, toleragarria. Folklore. Proiektu abertzalea, herrigintza, horrelako tokitan gotortu da bestelako aterperik topatu ez duenean. Erresistentzia artea da, askotarikoa bezain kamaleonikoa.

60ko hamarkadaz geroztik, herrigintzaren mamitzea

60ko hamarkadan aldatzen da egoera: ETA, Oteizaren *Quous-que*, Krutwigen *Vasconia*, Gabriel Arestiren *Harri eta herri*, besteak beste, ikastolen mugimendua eta hazkunde ekonomikoa, industrializazioa, UEUren sorrera 1973an... Herrigintzak indarra hartuko du, eta berriz ere Euskal Unibertsitatea

irudikatzen hasiko da.³ ETAk eta sokakoek 'Euskal Unibertsitate Herrikoia' deituko dute.

EHU 1980an jaio zen, 1987an UPNA eta 1997an Mondragon Unibertsitatea. Unibertsitate ikasketak masifikatu egin dira, 30 urtetik gorakoen artean bitik batek goi mailako ikasketak ditu. EHUK aurre egin behar izan dio hamaika arazori, unibertsitate pobrea, eskas finantzatua, eta irakasleria ez-distiratsua, berritu ezinda. Jendartearen ez zen unibertsitatearekin identifikatzen. Hazkunde handia denbora gutxian, eta prestigio txikia. Balio sozial gutxiko titulazioak, endogamikoa, nazioartean saretu gabea, ikerlari propiorik gabe apenas, ikerkuntza eremurik gabe, euskara oso bigarren mailan. Eta aurre egin zitzaizen ahal zen moduan. Ez da idealizatzeko ere, oraindik EHUK arazo asko dituelako. Burokratizazioa inoiz baino itogarriagoa da, egonkortasun laborala berandu dator, prekarizazioa zabalduta dago bekadun eta ikerlarien artean, ikasleak pobretuta garraiorako ere iristen ez zaiela, euskara oraindik erabat bermatu gabe eta abar. Justuan finantzatutako unibertsitate publiko masiboa izaten jarraitzen du. Baina tresnak sortu dira eta prestigioa irabazi du. Saretu da: parke teknologikoak elikatzen ditu, katedrak eta institutuak sortu ditu, nazioarteko ikerketa sareetan sartu da. Zabaldu egin da irakaslegoaren ingeles eza-gutza, eta ikerkuntza bekak eta plazak ohikoak dira. Ikerketa polo potenteak ere sortu dira, gai estrategikotan. Mugikortasun aukerak ireki dira, eta datu base erraldoietarako sarbidea. Adituak sortzen ditu edozein gaitan, artikulu ekoizpen maila altua lortu da eta kultura akademikoa ere errotua nabari da. Kanpo-finantzaketa erakartzeko ahalmena ere handitu da.

Lorpen horiek guztiek Euskal Herria zientziarekin ber-radiskidetu dute, hain justu kontraesanez betetako garai postindustrialean.

Ezagutzaren garrantzia kapitalismo postindustrialean

Euskal Herria unibertsitatea asmatzen ari zen bitartean, Mendebalde garatua garai postindustrialean sartu da. Batzuek

kapitalismo kognitiboa ere deitzen diote, ezagutza zentrala delako kapitalean. Ezagutzak ekonomian, politikan edota etikan daukan pisua biderkatu egin da. Pandemian ikusi dugu, EHUko ikerketa talde batek berehala atera zituen PCRak egiteko test azkarak. Gaitasun teknologiko hori ez da egun batetik bestera sortzen. Azken 50 urteetan, Euskal Herrian ere ezagutza balio iturri gisa ulertu da. Zeharka, garapen teknologikoa eta, beraz, lehiakortasuna indartzen dituelako. Eta, zuzenean, ezagutza ekoiztea, jasotzea, biltzea, barreiatzea edo merkaturatzea ekonomia forma propio gisa antolatu delako.

Kapitalismo postindustrialean ezagutzak kapital gisa funtzionatzen duenez, ezagutza espezializatzeko eta pribatizatzeko joera nagusitu da eta, gero, prozesu orokor horiek digitalizazioarekin eta adimen artifizialarekin zeharkatu dira.

Orain, errealitate krisiak

Ikusi dugu Euskal Unibertsitatea proiektu bezala historikoki moldakorra izan dela, eta ibilbide horretan unibertsitate sistema zabal, konplexu, eraginkor eta sofistikatura iritsi garela, hain zuzen zientzia-ezagutza kapital forma bihurtu den garai postindustrialean. Hemendik aurrerakoak pentsatzeko, ordea, gakoa 'errealitate krisiak' datozela ohartzea dela esango nuke. Izan ere, errealitatea aldakorra da definizioz, eta krisiak ere, gertatu, gertatzen dira noizbehinka; baina uste dut XXI. mendea ez dela mugatuko ohiko aldaketetara edo noizbehinkako krisialdietara. Errealitate krisiak biziko ditugu.

XXI. mendea: aterperik gabeko mundua

Euskal Herriaren krisitik (Azurmendi 1999) errealitate krisira igaroko gara. Donna Haraway ekarriko dut XXI. mendean biziko dugun egoera irudikatzeko: «Babeslekurik gabeko mundua errefuxiatuz bete da». Aterperik gabeko mundu gordinean bizi gara. Gizaki eta ez-gizaki aterpe bila, aterperik gabeko munduan, milioika errefuxiatu noraezean, hara eta hona, existitzen ez diren babeslekuen bila. Irudi edo

metafora indartsu hori marko interpretatzaile gisa erabili nahi dut, euskaldunez nola erleez aritzeko eta xx. mendetik xxi. menderako jauziaz ohartzeko.

Zehatzago, 'errealitate krisia' esaterakoan, sakon-sakoneko barne eta kanpo krisiez ari naiz.

Kanpo-errealitate krisia: paisaiaren lau eraldaketak

Lurra astindua ematen hasi zaigu. Egonkortze-egiturek, bizitza bat, bizimodu bat edo herri bat garatzeko egonkor beharko luketenek, paisaia zirenek, bizia hartu dute. Kontrastatu moderniarekin. Makiavelo printzeari hurbiltzen zaionean aholku ematera, agertoki politikoa azaltzen dio, aktoreen mugimendu eta motiboak. Mendebaldeko zientziak hori egin du, agerikoak diren mugimendu eta indarren azalpenak bilatu, horiei aurre hartzeko. Paisaiari ez diote arretarik jartzen, paisaia egonkorra delako, geldirik dagoelako. xxi. mendeko zientziak eta teknologiak, ordea, agertokia bera mugiarazten dute. Paisaia da mugikorra, arreta eta zaintza handiena eskatzen duena. Markoa, ez piezak. Ekintza ez da soilik agertokian ematen, agertokia bera hasi da dantzan modu kaotikoan.

Egonkortze-zutabeak balantzaka dauzkagu, sakoneko transformazio azkarrean. Zein?

- Gorputzak. Gizakia animalia-espezie gisa ulertuta.
- Natura. Aldaketa klimatikoa eta antropozeno gisa ulertuta.
- Lan merkatua. Digitalizazioak, adimen artifizialak eta robotikak berehala irauliko duen eremu gisa ulertuta.
- Gobernu-sistema. Ezusteko ardazte geopolitiko eta demokrazia liberalen krisi gisa ulertuta.

Bizitza bati, edo bizimodu bati, edo herri bati, egonkortasuna ematen zieten lau zutabe oinarrizkoenak, paisaia mugiezin gisa ulertu ohi direnak, mutatzen ari dira: gorputza, natura, lana eta gobernu-sistema. Eta mutazio horiek *aldaketa* kontzeptua aldatzen dute, askoz basatiagoa delako gerta daitekeenaren eragite-eremua. Egitura sakonak ari dira transformatzen.

Sakontasun hori erabat berria da, eta dimentsio aldetik ez dauka zerikusirik monoteismoaren etorrerarekin, monarkia absolutuen erorketarekin edo iraultza industrialarekin. Sakonagoa eta azkarragoa da. Eta garai haietan dena aldatu bazen, pentsatzekoa da dena ari dela aldatzen gure begien aurrean.

Barne-errealitate krisia: gertakariak adosterik ez

Sakon-sakoneko errealitate krisi horiei gehitu behar dizkiegu, Mendebaldeko errealitate politikoan behintzat, indar zentralizatzaileak eta autoritarioak askatu dituztela. Kanpo-errealitate krisia larria denez, hain zuzen horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa da gizarte koordinazioa, erantzuna bateratua eta ahalik eta eraginkorrena izan dadin. Eta hain zuzen hori zailtzen du barne-errealitate krisiak, ezin dugula ezer adostu, errealitatea bera auzitan dagoelako. Auzitan jartzen dira datuak, gertakariak, kontsentsuak, neurriak eta abar. Gehienetan eszeptizismo manufakturatua da, programatua (Conway eta Oreskes 2010).

Pandemia garaian ikusi dugu, baina klima larrialdiari erantzunean ere nabari da. Gero eta errazagoa da jendartearen zati handi bat errealitatetik bereiztea, eta gertakarietako axo-lagabe bizitzea.

Bizitza bati, edo bizimodu bati, edo herri bati, egonkortasuna ematen zieten lau zutabe oinarritzkoenak, paisaia mugiezin gisa ulertu ohi direnak, mutatzen ari dira: gorputza, natura, lana eta gobernu-sistema

Ondorioa: ageriago gaude eta zer egin, jakin, ez dakigula

Errealitate krisiak zer esan nahi du praktikan? Herri bezala inoiz baino 'ageriago' gaudela eta ez dakigula, jakin, zer egin, besteren mendeko gaudelako. Ondorioz, ezegonkortasuna

izango da egoera ohikoena, mundu arraro ulertezin batek gure bizimodua modurik sakonenetan afektatu edo eragin dezakeelako. Ez dakigu nondik etorriko den hurrengo uhina, baina badakigu etorri eta astinduko gaituela.

Euskal Unibertsitate Sistema errealitate krisiei lokalki aurre egiteko

Azken 50 urteetan garatu dugun unibertsitate sistemak bizitzera goazen errealitate krisietan lur hartu eta horietan Euskal Herriari aterpea eskaini behar dio. Medikuek, ingeniariak, informatikari euskaldun horiek guztiak pentsalari zientifiko eta pertsona moral izatea behar dugu, errealitate krisiak interpretatzen dituztenak, lur honekiko konpromisoa erakusten dutenak, gure ibaiak zaintzeko, airea eta inguruko animaliak, elikagaiak bermatzeko, energia iturriak babesteko, ekonomia indartzeko, gure jendartea eta nortasuna garatzeko eta herria epistemikoki heltzeko.

Euskal Unibertsitate Nazionalik badaukagun eztabaidatan galdu beharrean, herri epistemikoki konpetente bat nola izan arduratu beharko genuke. Datozen ezegonkortasun egoerei aurre egiteko, errealitatearen kanpo eta barne krisiei erantzuteko, zientziak aukerak ireki behar dizkigu, kolektiboki ulertuko ditugun norabideak, minimoki adostu dezakegun errealitate zorua, erabaki-epistemologikoki-zuzenak hartzeko heldulekuak izateko.

Larrialdiei ez zaie erantzun egokirik ematen gobernutik bakarrik arituta. Larrialdiak maizago etorriko zaizkigunez, euskal jendartearen gaitasun epistemikoak eta kognitiboak sendotu behar ditugu. Ez da komunikazioa hobetzea bakarrik, edo jendeari obeditzeko eskatzea. Heldutasun epistemikoa behar da, heldutasun politikora iristeko. Eta, horretarako, unibertsitatearen zeregina gakoa da. Larrialdiei epistemikoki modu zuzenean erantzuteko, joera zentralizatzaileei aurre egiteko, jendartea koordinatzeko, errealitate zorua eraikitzeko, horretan guztian euskal erakundeak eta eragile politikoak

lagunduko, babestuko eta garatuko dituen herri kontzientzia indartu behar da, besteak beste, unibertsitate sistematik.

Laburbilduz, XXI. mendeko errealitate krisiei aurre egiteko euskaldunon aterpe izango den Euskal Unibertsitate Sistema mamitzen jarraitzea dagokigu. Unibertsitate lurtarra, euskal lurrari lotua, hainbat perspektiba irauliko dituen: euskarababesteko bezainbat, euskarak euskalduna babes dezan; merkatuari begirakoa bai, baina, batez ere, gobernurako den zientzia egingo duena; berrikuntzarako baino, politikoki erabaki epistemikoki funtsatuak hartzeko; eta etikoki, (errefuxiatuen/‘espuestoen’) inklusioa ordezkartzaren bitartez haziko eta handituko duena. 🍷

Oharrak

1. «Ilustrazioa elite txiki baten kontua izan da, eta hor ere oso partziala. Oldozkera bat zinez kritikoa (filosofikoki, erlijiosoki, politikoki) egon baldin bada, ezin izan du agerian agertu. [...] XVI. eta XVII. mendeetan Euskal Herria humanismo laurden batekin geratu da. XVIII.ean Ilustrazio erditxo batekin» (Azurmendi 2020: 183).
2. Eusko Ikaskuntzaren saiakerak hutsean geratu ziren (ikus Oihartzabal 1984: 24).
3. Aurrekari garrantzitsua Jokin Zaitegi da, 50eko hamarkada bukaeran hasia zelako Euskal Unibertsitatea eskatzen, euskararen salbamendurako behar-beharrezkoa zelakoan.

Bibliografia

- Azurmendi, J. (1999): *Euskal Herria krisian*, Donostia, Elkar.
- (2020): *Pentsamenduaren historia Euskal Herrian*, Andoain eta Donostia, Jakin eta EHU. *Ur-jauzia* bilduma 1.
- Conway, E.; Oreskes, N. (2010): *Merchants of Doubt*, New York, Bloomsbury Publishing.
- Diaz Egurbide, J. (2013): *Jokin Zaitegiren ekarpenak euskal curriculumean. Eginak eta asmoak*, Donostia, Utriusque Vasconiae.
- Eizagirre, A.; Udaondo, A. (2020): *Eraldaketa globalari neurria hartzen: euskal gizartea aro ekonomiko berrian*, Arrasate, Mondragon Unibertsitatea.

- Garcés, M. (2015 [2022]): *Filosofia amaitu gabea*, Andoain, Jakin. *Jakin Irakurgaiak* bilduma 50. Itzultzailea: Olatz Mitxelena Larreta.
- (2017): *Nueva ilustración radical*, Bartzelona, Anagrama.
- Oihartzabal, L. (koord.) (1984): *La UPV/EHU a debate*, Leioa, EHU.
- Rossi, P. (1998): *El nacimiento de la ciencia moderna*, Bartzelona, Crítica.
- Txapartegi, E. (2022): 'Euskal Unibertsitatea eta herrigintza-familiak', *Uztaro* 122, 39-56.

Euskal Unibertsitate Sistema: legea, erronkak eta etorkizuna

Anjeles Iztueta Azkue

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa sailburu ohia eta matematikaria*

Nire ibilbide pertsonalak emandako eskarmentutik idatzi dut artikulu hau. Gaian interesatutako adin-
kide askok bezala, Euskal Unibertsitatearen aldarria bizi izan genuen ikasle garaian, nire kasuan Valladoliden, gero UEUn zein Elhuyar inguruan ere, PNNen mugimen-
dua ere bizi izan genuen... Oso gerora Ibarretxe lehenda-
kariaren Jaurlaritzan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu izan nintzen, eta Euskal Unibertsitate Sistemaren (EUS)¹ 3/2004 Legea bultzatu eta aurrera ateratzea lortu genuen. Legea EAera mugatzen zen, baina nazio ikuspe-
gitik eman nahi izan genion erantzuna erronkari.

Aipatutako legea onartu zenetik bi hamarkada pasatuta, errepasoa egiterakoan, hauek dira datozkidan lehen ideiak. Batetik, harridura: asko egin da, ikerketan eta bikaintasunean pauso handiak eman baitira. Bestetik, konplexutasuna aipatu behar da: Euskal Unibertsitate Sistema asko zabaldu da, eta konplexutasun handiko ekosistema da gaur egun; EAetik Euskal Herri osora lankidetza zabaltzeko ere ahaleginak eta urratsak egin dira.

Artikulua hiru atal nagusitan dago banatuta: 1) EUS legearen deskribapena, 2) legearen lorpenak eta erronkak, eta 3) egiteke dagoen online unibertsitatea.

Testuaren oinarri gisa bi dokumentu bereziki interesgarri aipatu behar dira: Agirre Lehendakaria Centerrek eta Euskampusen egindako *Unibertsitate Sistemak euskal gizartearen eraldaketari egindako ekarpena*² eta Eusko Jaurlaritzaren *2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Plana*.³

Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legea

Herrigintzaren zerbitzura egongo zen unibertsitate sistema bat eraikitzeari babesa emango zion legea izan genuen helburu. Askoren arteko talde lana izan zen; gure ustez, herrigintzaren ikuspuntutik ere aukerak zabaltzen dituen legea da. Nekeak neke, egun benetan pozgarria izan zen legea onartu zenekoa.

Argi dago 3/2004 Legea Euskal Herriaren zati bati zegokion legea zela, Euskal Autonomia Erkidegoari, eskumenak hemen bakarrik baikenituen. Hala ere, ateak irekitzen zizkion Euskal Herriko beste unibertsitateekiko lankidetzari (Nafarroa zein Ipar Euskal Herrikoei), betiere Europako esparruan, eta baita mundu zabaleko beste unibertsitateei ere euskara eta euskal kultura gaitan.

Esan bezala, talde lana izan zen, eta kontsentsua bilatzeko Delphi metodoa erabili genuen. Politikoki gogorrek bezain itxaropentsuak izan ziren garaietan, entzute eta negoziazio prozesu luze baten ondoren onartu zen 3/2004 Legea. Esker onez izen asko aipatuko nituzke... Baina Juan Jose Ibarretxe eta Jon Barrutia aipatuko ditut, biak ala biak ezinbestekoak.

EAEn Unibertsitatea Antolatzeko 19/1998 Legea izan zen 3/2004 Legearen aurrekoa, eta hori soilik EHUri zegokion. Espainian, berriz, *Ley Orgánica 6/2001 de Universidades* izeneko legea zegoen indarrean, eta Europa Bolonia prozesuan zegoen bete-betean. Momentu zinez interesgarrian ari ginen.

EAEko hiru unibertsitateak sistema gisa eratzea

Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten unibertsitate guztien artean osatutako unibertsitate sistema bateratua da

3/2004 Legeak oinarrian duen printzipio nagusietakoa. Sistemaren grabitate-zentroa EAEn kokatzen da, EHUn, unibertsitate publikoan, eta irakasle-ikertzaile propioaren aukerari ateak irekitzen dizkio. Birkaintasuna du helburu. Euskal Herriko zein mundu zabaleko beste unibertsitateekin aliantza eta elkarlana ahalbidetzeko prestatuta dago. Unibertsitate sistemak euskara hizkuntza propio gisa garatzeko ardura du. Horrela, herriaren eta herrikideen orainaren eta etorkizunaren zerbitzura kalitatez irakatsi eta ikerketa egingo duen eta European egoki txertatuta egongo den sistema antolatzeke legea landu genuen.

Unibertsitate sistemaren gobernantza-organo nagusitzat hauek hartu ziren:

- Unibertsitateen Euskal Kontseilua sistemaren koordinazio-organoa da.
- Sistemaren laurtekoko planak eta oinarri estrategiko horiei lotutako kontratu-programak.
- Sistemaren kalitatea ebaluatzea, akreditatzea eta ziurtatzea helburu duen sistemaren kalitate agentzia.

Unibertsitate sistemaren Europarako konbergentzia bideratzea

Esan bezala, European Bolonia prozesua bete-betean garatzen ari zenean adostu eta onartu zen legea. Gure unibertsitate sistema sustatzeko eta unibertsitateak European sartzeko aukera bultzatzeko lege-eremu berri baten aurrean geunden, eta, herrigintzaren ikuspegitik, erronka hori aukera moduan hartzen saiatu ginen. Nazioarteko lan eta ikerketa sareetan

Herrigintzaren zerbitzura egongo zen unibertsitate sistema bat eraikitzeari babes emango zion legea izan genuen helburu. Gure ustez, herrigintzaren ikuspuntutik ere aukerak zabaltzen dituen legea da

aktiboki parte hartzea sustatu nahi zen, gurea bezalako nazio batentzat Europa izan baitaiteke integrazioarako eta jarduteko eremu naturala. Legearen ardatzetako bat, beraz, Europarekiko konbergentzia izan zen.

Europa mailako Bolonia prozesuaren helburu nagusiak, laburrean adierazita, hauek izan ziren:

- Ikasle, irakasle eta ikertzaileen mugikortasuna sustatzea.
- Titulazio-sistema bateragarria ezartzea, eta bi ziklotan oinarritutako sistema bat egituratzea.
- Irakaskuntza-metodologian eta ikasleen ikaskuntza-moduetan aldaketa sakonak bultzatzea.
- Goi mailako irakaskuntzak eduki beharreko alde europarra sustatzea.
- Kalitate-sistemen arteko lankidetzaz zehaztea.

EHUn irakasle eta ikertzaile propioari bidea irekitzea

Irakasle ez-numerarioen –PNNen– mugimenduan hasi eta urtetan luzatutako eskaerari⁴ ere erantzun nahi izan zion legeak: EHuko irakasle eta ikertzaile propioaren eskaerari, hain zuzen. Gogoratu behar dugu Espainiako irakasle-ikertzaile izaera ez zuten gure irakasle-ikertzaileek ez zutela garai hartan soldata-osagarrien eskubiderik ere. Legeak urtetako arazoari adostutako irtenbidea bilatzea izan zuen helburu, horretarako gure eskumenak eta lege zirrikitu guztiak ondo aprobetxatuz.

3/2004 Legeak EHUn erregulazioan jasotako berrikuntzarik nabarmenena irakasle eta ikertzaile kontratatuei buruzkoa da. Izan ere, legeak, batez ere, kontratatutako irakasle-ikertzaile doktoreentzat politika propioa taxutzeko aukera-eremu zabala ematen du.

Lorpen nagusiak eta erronkak

Hogei bat urte pasatuta, legeak eragindako lorpenak eta ditugun erronkak azpimarratu nahi ditut, umiltasunez eta, batez ere, euskalgintzatik eta herrigintzatik begiratuta.

Aurretik esan bezala, legeak jauzi kualitatibo handia zekarren, batetik erkidegoko hiru unibertsitateak –hirurak oso desberdinak izaeraz, tamainaz eta ibilbidez– bateratzeko asmoa zuelako; bigarrenik, aukeraz beterik eraikitzen ari zen Europako espazioan gure unibertsitate sistema indartsu txertatzeko aukera aprobetxatu nahi zuelako; eta, hirugarrenik, EHUn irakasle-ikertzaileei bide propioa ireki nahi zuelako.

Kontsentsua lortzeko Delphi metodoa erabili genuen.⁵⁶ Eskandinaviako herrialde demokratikoki aurreratuenetan erabili izan da legeak adostu eta egiterakoan. Parte-hartzea bultzatu eta egoeraren diagnostiko konpartitua egitea ahalbidetzen du. Bi bueltako Delphia egin zen, 130 aditu, irakasle, ikertzaile, sindikatu eta gainerako unibertsitate-estamenturekin elkarrietzeta sakonak eta aurrez aurrekoak eginez, betiere hiru unibertsitateen kezka eta premia nagusiak biltzeko helburuarekin. Horrela lortu zen diagnostiko konpartitua.

Diagnostiko konpartitu horretatik abiatuta, erantzuna birlatu zitzaien gakoei, banan-banan, betiere ardatz nagusiei jarraituz: Euskal Unibertsitate Sistema bat, Europa, elea-niztasuna, euskara, baliabideak, malgutasuna eta kalitatea, irakaslego propioaren ibilbidea.

Diagnostikoa eta lege berriaren ardatzak eta helburuak argi izanik, legea idaztera jo genuen; Eskandinaviako herrialdeetan egiten zena buruan hemen ere, normatiba laburra egitera jo genuen. Legeak printzipioak eta oinarritzko lerroak soilik markatzen ditu. Atal bakar batek izan zuen garapen handiagoa, EHUko irakasle eta ikertzaileen ibilbide berriak, hain zuzen. Beste atalak gerora joango ziren garatzen dekretu bidez.

Irakasle eta ikertzaile propioaren ibilbideak pauso sendoak EHUn

Lege berriak EHUko kolektibo batzuen urteetako aldarrikapen nagusiak jaso zituen: irakasleria propioa sortzea eta funtzionario-numerarioekin parekatzea. Kontratu laboral gisa gauzatuko ziren irakasle-ikertzaile propioen ibilbideak.

Betebeharrak (bikaintasuna, kalitatea...) eta eskubideak (soldata, osagarriak...) berdinak izango ziren kontratatuen eta funtzionario-numerarioen artean. Gogoan izan dezagun garai hartan soldata osagarriak funtzionario-numerarioen artean bakarrik banatzen zirela; *elkartu* gisa kontratatuak ziren irakasle-ikertzaileak lan baldintzetan nabarmen bigarren mailakoak ziren.

Gezurra ematen badu ere, PPK zabaldu zuen irakasle-ikertzaile propiorako atea Madrilen, CiUren proposamen bat onartuta, katalanen laguntza behar zutelako. Bide horretatik etorri zen legeak EHUren irakasleria propioaren ibilbidea gauzatzeko atea ireki zuen. Gainera, legeak gehigarri bat zeukan, kanpoan egondako irakasleei berriro sartzeko aukera ematen ziena, horretarako unibertsitatean bost urte lan egin izana eskatzen zela.

EHUri zegokion azken atal hori xehetasun askorekin garatu eta onartu zen lege berrian; gainera, aitortu eta eskertu behar da ondoren etorri ziren bi EHuko errektoreek (Juan Ignacio Perez Iglesias eta Iñaki Goirizelaiak) ardura osoz eta konpromiso handiz jokatu zutela. Esker ona ematea da-

Badugu zer egin:
diziplina anitzeko
proiektuak sustatzea,
kalitatea neurtzeko
baremoak gurera
egokitzea, gizarteari
ikerketaren berri ematea
eta lankidetzan aritzea...

gokigu, beti ez baita legea garaiz betetzen eta askotan bere egokitasuna ere luzapenetan gal bailezake.

Gaur egun, eta ia bi hamarkada pasatu direnean, irakasle-ikertzaile propioaren portzentajea handia da EHUn (erdia-
ren inguruan dago, Espainiako legeak uzten duen maximoa). Gainera, bai kontratatuen bai numerarioen lan baldintzak

parekatzea lortzen joan da, eta bikaintasuna nabarmena da alde bietan. Dena dela, beste lege bat egiterakoan, pertsonalaren atalak berriro ere arreta berezia jaso beharko duelakoan nago. Pertsonala baita unibertsitate sistemaren arima eta gorputza.

Gizartearen beharrei erantzun zientifikoak emateko unibertsitate sistema gauzatzen

Belaunaldi ezberdinak batzen dituen komunitate aberatsa da unibertsitatea. Bereziki esparru kritiko eta sortzailea. Argi dago irakasleek beren ikerketa eta ekoizpen zientifikoa oztoporik gabe jarraitzeko duten askatasuna errespetatu behar dela, baina ez dugu ahaztu behar ikerketa sustatzeak zernolako garrantzia duen finantziazioa jaso duen gizartearen erronkei eta beharrei aurre egiteko.

Gaur egungo eta etorkizuneko erronka konplexuei eraginkortasunez aurre egiteko, beharrezkoak dira diziplinarteko proiektu eta taldeak. Unibertsitate eta zientzia munduan askok pentsatzen dutenarekin bat eginez, diziplinarteko koordinazioa eta ko-sorkuntza gehiago bultzatu beharko genituzke, irakaskuntzan zein ikerketan. Bestalde, Boloniako prozesuak aldaketa sakonak egin nahi zituen irakaskuntza-metodologian eta ikasleen ikaskuntza-moduetan. Egia da askotan neurri kosmetikoak baino ez ditugula erabili. Bi alor horietan hobetzeko beharra dugu gure aurrean.

Horrez gain, ekoizpen zientifikoaren kalitate-adierazle kuantitatiboen ia erabilera eskusiboa gainditzera jo behar dugu, eta ikerketaren berri maizago eta hobeto eman beharko genioke gure gizarteari, elkarrekin gehiago arituz. Adierazleen gaiarekin lotuz, batzuetan Euskal Herriaren berezitasuna eta testuingurua kontuan hartzen ez dituzten baremoak erabiltzen dira, eta hori zuzendu behar da.

Beraz, badugu zer egin: diziplina anitzeko proiektuak sustatzea, kalitatea neurtzeko baremoak gurerako egokitzea, gizarteari ikerketaren berri ematea eta lankidetzan aritzea...

Unibertsitate sistemaren koordinazio-organoak indartzea

Legea landu genuenean, EAEn hiru unibertsitate genituen, hurrak osagarriak baina izaera guztiz desberdinekoak. EHU zen unibertsitate publiko bakarra, nahiko berria eta oso-oso handia. Aurreko etapa batzuetan planteatu zen EHU unibertsitatea

zatitzea campus tematikoen arabera, baita lurraldeka ere; baina hori bere momentuan ez zen egin eta horretan gelditu zen. Bigarrenik, Deustuko Unibertsitatea genuen, historia luzekoa eta izaera pribatu-erlijiosoa duena; eta, azkenik, Mondragon Unibertsitatea (MU), garai hartan sortu berria eta kooperatiba izaera duena. Gaur egun, hiru unibertsitate horiez gain, EUS sistemaren barne dira gerora sortzen joan diren Ikerbasque, BERCak (Basque Excellence Research Centre) eta mugaz gaindiko Euskampus.

EAEko hiru unibertsitateak sistema gisa planteatzeari abantailak ikusten zitzaizkion, batez ere sistema horren grabitate-zentroa hemen zegoelako eta horrek proiektu estrategikoak konpartitzeko eta elkarlanerako aukera eta indar gehiago ematen zuelako. Lankidetza-lehiakortasunarekin batera biziko zen esparrua sortzea zen helburu nagusia.

EAEko Unibertsitate Sistemaren grabitate-zentroan bi organo aurreikusi ziren. Biak ala biak zentralitate handiko gobernantza-organoak ziren, eta garai hartan gurean oso berritzaileak. Lehena, Euskadiko Unibertsitate Kontseilua, sistema koordinatzeko gobernantza-organo nagusia da. Kontseilu horretan, unibertsitateez gain, beste eragile eta erakunde batzuek ere hartzen dute parte, erakundeen arteko lankidetza bultzatzeko asmoz. Gainera, Unibertsitate Planaren esparru guztiez arduratzen da, azpimarratzekoak diren kontratu-programak barne. EUS sistema konplexuaren barruan lehia berezkoa da, noski, baina komunitateko askorekin bat nator lankidetza estrategikoa gehiago sustatu beharko litzatekeela esatean, sistema berria gehiketa kuantitatibotik harago doa-eta. Aurrerantzean ere ezinbesteko izango zaigu kontseilua sustatzen jarraitzea.

Bigarren grabitate-zentroa, Kalitatearen eta Akreditazioaren Euskal Agentzia (Unibasq), kalitatea ziurtatu eta titulazioen mapa koordinatzeko esparrua da. Sistema osoarentzat berebiziko garrantzia duen gobernantza-organo gisa diseinatu zen, eredutzat Kataluniakoa hartuz. Mendekotasun-arriskuak zaindu eta sisteman duen zentralitateari arretaz jarraitu behar zaio.

Unibertsitate sistemaren eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarearen arteko sinergiak

Ikerketa, unibertsitate sisteman ez ezik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen (ZTBES) erakundeetan ere egiten da. Joera hori areagotzen ari da. Kontuan hartu behar da unibertsitate sisteman ikerketa egiteaz gain irakaskuntza ere egiten dela, eta unibertsitateetako Zientzia, Teknologia eta Ingeniaritza fakultateetako ikerketa-taldeek unibertsitate sisteman eta ZTBES sarean parte hartzen dutela aldi berean. Beraz, unibertsitate sisteman ikerketa sustatzen jarraitzea ezinbestekoa da, horretan ez dago dudarik.

Bestalde, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua da ZTBESren goreneko organoa. Kontseilu horretan, unibertsitate sistemaz gain, beste eragile eta erakunde batzuek ere hartzen dute parte, eta, horrela, erakundeen arteko elkarlana sustatzen da. Eusko Jaurlaritzaren sail guztiek ere osatzen dute koordinazio organo goren hori.

Aipatzekoa da gaur egun ZTBES sareak eta EUS unibertsitate sistemak jasotzen duten finantziazio publikoa ia-ia berdinak direla. Aurrerantzean, behar-beharrezkoa izango da sinergiak aprobetxatzeko eta baliabideak era orekatuan banatzeko koordinazioa.

Euskara eta euskal gaiak Euskal Unibertsitate Sistemaren ardura

3/2004 Legeak azpimarratzen du euskara berezko hizkuntza dela Euskal Unibertsitate Sisteman. Honela dio legeak:

Herri-aginteei dagokie hizkuntza-normalizazioa bermatzea, euskararen aldeko ekintza positiboko hizkuntza-politikaren oinarriak ezarrita. Unibertsitateek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte, araudian eta berariazko planetan bere osotasunean bermatuz euskaraz ikasteko eta bizitzeko eskubidea.

Zoritxarrez, askotan oraindik unibertsitatean euskarak gehienbat itzulpen-hizkuntzaren kontsiderazioa jasotzen

du. Eleaniztasuna helburu estrategiko gisa behin eta berriz aipatzen dugu; baina, hori lortzeko, lehenik, euskara behin betiko sendotu beharko genuke.

2019-2022 planean euskarari dagokiona komunitate-ar-datzaren barruan jasotzen da. Jomuga hauxe da: 2022rako irakasle eta ikertzaile elebidunen ehunekoa %60,1era igotzea. Baita sistema osoan prestakuntza euskaraz jasotzen dutenen ehunekoa ere: graduatan %56,7ra igotzea, eta master eta doktoretzatan %13,8ra.

Euskara eta euskalgintza ere badira gure-gureak diren ikerketa-gaiak. Euskal Unibertsitate Sisteman bultzatu eta garatu beharko litzateke euskarari lotutako ikerketa-sistemaren zati handiena, eta plan estrategikoetan era espezifikoa lantzea komenigarria izan liteke. Bestetik, euskarak eta euskarari lotutako industria eta ikerketek beharrezko dute diziplina anitzeko ikuspuntua. Gaur egun ere hutsuneak ditugu, eta ez dugu horretara nahikoa arreta eta baliabide bideratzen, ez ZTBES sisteman, ezta EUS sisteman ere.

Esan bezala, legeak dio euskara berezko hizkuntza dela sistema osoan. Aurrerapausoak nabarmenak izan dira, baina EHU, MU eta Deustuko Unibertsitatearen arteko desberdintasunak handiak dira. Gure ardura da, komunitate osoaren ardura da, legea taxuz betetzea. Bidea luzea da oraindik...

Euskal Herriko unibertsitateen arteko aliantzei bidea irekitzen

3/2004 Legeak euskararen eta euskal kulturaren inguruan aritzen diren nazioarteko unibertsitateekin harremanak ahalbide-tzea aurreikusten zuen. Aurretik zetorren lankidetzaren aipatzekoa da. Lan bikaina egiten ari ziren, besteak beste, Oxford, Reno, Nevada edo Frankfurteko unibertsitateetan.

Ondoren, 2007an, Etxepare Euskal Institutua sortu zen Ibarretxe lehendakari zela, lehendakartzari lotutako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa. Etxepareren xedeen artean, honako hau aipatzekoa da: «Euskal kulturari buruzko ikerketa

sustatzea, bereziki unibertsitate eta goi mailako ikerketarako erakundeetan, baita euskararen irakaskuntza, ikasketa eta erabilera mundu osoan sustatzea». Ibilbide luze eta oparoa darama Etxeparek.

Geroago, 2011n, Euskampus sortu zen, EAEk, Akitania Berriak eta Nafarroak eratutako euroeskualdearen berrikuntza dinamizatzeko. Fundazioa unibertsitate sistemaren barruan kokatzen da, EHUren eta Bordeleko Unibertsitatearen arteko aliantza estrategikoaren barruan. Egiteko nagusia euroeskualdean goi mailako hezkuntza, ikerketa eta berrikuntzarako espazioa eraikitzea da. Hor kokatzen da, besteak beste, Agirre Lehendakaria Center, 2013an sortua eta lan bikaina egiten duena.

Legeak dio euskara berezko hizkuntza dela sistema osoan. Aurrerapausoak nabarmenak izan dira, baina EHU, MU eta Deustuko Unibertsitatearen arteko desberdintasunak handiak dira

Euskarazko Online Unibertsitatea egiteke

Euskarazko Online Unibertsitatea egiteke dugun egitasmoa da gaur egun ere. Egitasmoak garrantzia du Euskal Herriaren egituratze-prozesuan. Oraingoa proiektuari ekiteko une oso egokia izan daiteke, eta horrela eskatzen digu EAEko Legebiltzarrak eta EUSen eginiko AMIAk. Euskarazko online ikasketak merkatua dauka, eta herrigintzan eta euskalgintzan beharrezkotzat jotzen da. Erabat ondo kokatzen da Europak markatzen dituen eta guk denok onartzen ditugun lerro nagusiekin: digitalizazioa eta berrikuntza. Azken urteetan UEUren inguruan kontuan hartzeko moduko proposamen bat landu da gai honen inguruan.⁷

Universitat Oberta de Catalunya (UOC) 1995ean jarri zen abian; Kataluniako Gobernuak sortua, izaera publikokoa eta

guztiz berritzailea da. Gaur egun, nazioarteko erreferentzia da online erako hezkuntzan. Euskal Kalitate Agentziaren kasuan egin genuen bezala, honetan ere Kataluniara begira geunden. UNED transferentzia jasotzeko aukerarik ez genuen, eta gainera hori erdarazkoa zen. Hori dela eta, 3/2004 Legean zirrikিতua utzi genuen UOCen antzeko euskal unibertsitate irekia sortzeko EAEn. Euneiz unibertsitate pribatu berria bide horretatik sortu da. Azken urte hauetan saiakera desberdinak egin badira ere, oraindik Euskarazko Online Unibertsitatea sortzeko egitasmoa gauzatzeke daukagu.

2020ko abenduaren 1ean, COVID bete-betean ginela, UEUK web mintegi interesgarria antolatu zuen.⁸ Mintegi horren koordinatzaile-rola egokitu zitzaidan, eta hona hemen orduko ekarpen batzuk:

Online modalitatera pasatu ahal izateko, funtsezko aldaketak behar dira: materialak, jarrerak eta pertsonengana hurbiltzeko moduak. Onlineko ikasle mota diferentea da, presentzialera joaterik ez dutenentzako aukera da; ez da 18-25 urte dituen ohiko ikaslea.

Jon Barrutia (EHU)

Berrikuntza aldetik, ekarpen esanguratsuak egin behar dira: material aldetik, ikasle-irakasle komunikazioa, ebaluazioa...

Online/presentzial eredu mistoa arrakastaz erabiltzen dute.

Jon Altuna (MU)

Europako unibertsitateetako ikasleen %24 online aritzen dira.

Oso garrantzitsua litzateke edozein egitasmo izaera publikoan eta lankidetzan oinarrituta egotea.

Juanjo Alvarez (EHU)

Euskararen inguruko komunitatea indartu egin behar da.

Beharrezkoa eta estrategikoa da unibertsitateko ikasketak euskaraz eta online garatzea.

Xabier Barandiaran (MU)

Euskaraz ez daukagu horrelakorik. Sortu berriak pribatuak dira. UEU 2003tik ari da gai hau jorratzen.

Onlineko ikasle mota diferentea da. Digitalizaziorako ere garrantzitsua da egitasmo hau.

Iñaki Alegria (UEU)

UOC: Unibertsitatean presentzialki ikasi ezin zutenentzako ir-
tenbidea.

UOC: Eragile nabarmen bat izan da gizarte katalanaren digitali-
zazio-prozesuan.

UOC: Katalana sustatu dute Kataluniatik harago.

Beharrezkoa da motor bat egotea, lehenetsunak markatzeko, me-
todologiaz erabakitzeke, oinarriak jartzeko... Ezinbestekoa da.

Carles Sigalés (UOC)

Online irakaskuntza indartzea betebeharrak estrategikoa da egun.

1973tik dabil UEU euskararen eta unibertsitatearen munduak el-
karrengana hurbiltzen.

Kepa Sarasola (UEU)

Euskarazko Online Unibertsitatea... Norentzat? Nolakoa?

Euskarazko Online Unibertsitatearen ezaugarri nagusiak baino ez ditut zirriboratu nahi atal honetan. Eskaera han-
dieneko graduak eta graduondoko homologatuak eskaini beharko lituzke, nagusiki 25 urte beteta dituzten pertsonen-
tzat. Euskara ardatza izango litzateke, eta, erdaraz aritzen diren horiekin lehiatu ahal izateko, prezioek 'publikoak' izan beharko lukete. Metodologia berritzailea izan beharko luke, eta horretan UOC oso eredu interesgarria da. Nazioarteko eta Europako ikuspegia ere integratu beharko luke.

Esan bezala, ikasle gehienak ez lirateke ohiko unibertsitateetara joan ohi diren gazteak; gehienak lan-munduan murgildutako pertsonak lirateke, beren formazioa osatzeko, bizialdi osorako heziketaren paradigmaren barruan, titulua beharrezko ez duten beste batzuekin batera, jubilatutako, esaterako. Gazteek halako unibertsitateetara jotzen dute ohi-koetara joateko aukera ez dutenean, eta hori ere azpimarratu beharrezkoa da, baliabide falta edo bestelako zirkunstantzien-
gatik ohiko bidea itxita dutenentzat aukera berri bat da-eta.

Unibertsitate sistemaren barruko agentea izan beharko luke, beste unibertsitateekin eta bereziki EHUrekin osagarritasunean eta elkarlanean arituko litzateke. Aukera desberdinak egon daitezke: 1) euskal unibertsitate ireki bat sortzea,

unibertsitate berri bat litzatekeena (UOCen antzekoa), 2) EUS barruan kontratu-programa baten bidez hainbat unibertsitatek elkarlanean sortzea, 3) unibertsitate bakoitzak bere ‘campus birtuala’ konpartituz, unibertsitateen arteko elkargune batean antolatzea (G9 unibertsitateen arteko alian-tzaren antzera).⁹

Koordinazioaz eta alderdi metodologikoez UEUK sortu duen eta EHUrak duela gutxi atxiki den Goi-mailako Online Institutua (GOI) ardura liteke. UOCeko Carles Sigalések web mintegian oso argi esan zuen erroko berrikuntza funtsezkoa dela halako proiektu baterako, eta horretarako gune berezitu bat behar dela.

Eusko Legebiltzarrak onetsitako ebazpenak online unibertsitateaz

EAEko Legebiltzarrak ere hainbat ebazpen plazaratu ditu unibertsitate mailako online eskaintzaren beharraz. Horrela, Hezkuntza Batzordean 2019-2022 aldirako unibertsitate sistemen planari buruz onetsitako ebazpenen artean, honako hauek aipa daitezke:

- 1. ebazpena. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio garatu dezala unibertsitateko online formakuntza-plan bat ikasle potentzial gehiagorengana iristeko eta sareko irakaskuntzari segurtasuna, bermea eta prestigioa emateko.
- 3. ebazpena. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio gehitu dezala online eta bizialdi osoko prestakuntzarako euskarazko eskaintza Euskal Unibertsitate Sisteman.
- 10. ebazpena. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio azter eta susta ditzala euskararen hiztun elkar-tearen garapenerako informazio- eta komunikazio-teknologia berriek eta Internetek zabaltzen dituzten aukerak unibertsitateko titulazioak Interneten bitartez eskaintzeko. Bide horretan, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lagundu eta babestu dezala 2019an sortu berri den GOI zentro atxikiaren garapena.

Bestalde indarrean dagoen 2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Planean, EUS unibertsitate sistema osotasunean aztertzeko AMIA egin zenean, gaia mehatxu gisa aipatzen da: «Online prestakuntzaren eta prestakuntza jarraituaren erakunde-estrategiarik eza».

Beraz, argi dago EUS sisteman gabezia hori dugula eta gaiari heldu behar diogula.

Eskerrak

Euskara/Unibertsitatea eta Herrigintza/Unibertsitatea uztartzen ari (izan) diren guztioi nire esker ona adierazi nahi diet. Segi dezagun elkarlanean etorkizuna eraikitzen! 🍷

Oharrak

1. 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/l/2004/02/25/3/dof/eus/html/webleg00-contfich/eu).
2. Askoren artean (2018): *Unibertsitate Sistemak euskal gizartearen eraldaketari egindako ekarpena*, Bilbo, EHU (<https://addi.ehu.es/handle/10810/30918>).
3. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila (2019): *2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Plana* (www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/plan-gubernalmental/10-unibertsitate-plana-2019-2022).
4. Rubio Iturria, Miren (2019): 'Jose Ramon Etxebarriari elkarrizketa', *JAKIN* 230, 11-70.
5. Landeta, Jon (1999): *El método Delphi. Una técnica de previsión para la incertidumbre*, Bartzelona, Ariel.
6. Landeta, Jon; Barrutia, Jon (2011): 'People consultation to construct the future: A Delphi application', *International Journal of Forecasting* 27(1), 134-151.
7. Alegria, Iñaki (2018): 'Unibertsitate irekia euskaraz: erronka eta aukera', *Hermes* 57, 38-41.
8. *Unibertsitateko ikasketak euskaraz eta online*, UEUren web mintegia, 2020-12-01 (<https://youtu.be/V4Cum6cCZSE>).
9. Unibertsitateen G9 Taldea (www.uni-g9.net/quienes-somos).

Euskal Unibertsitatea behe-lainotan

Karmele Artetxe Sanchez

*UEUko zuzendari ohia eta UPV/EHUko Hezkuntza
Zientziak Saileko irakaslea*

Artikulu honetan, Euskal Unibertsitatearen aldeko proiektuaren etapa nagusiak eskematikoki azaldu eta saiatuko gara argudiatzen proiektua, 70eko hamarkadan egituratu zen gisa, neurri handi batean, agortuta dagoela. Izan ere, 50 urteren ostean, gaur egungo euskaldunok testuinguru erabat desberdina bizi dugu. Horregatik, ezinbestekoa da Euskal Unibertsitatearen proiektua gaurkotzea.

Euskara gerraurreko ‘Universidad Vasca’ proiektuan

Euskal Unibertsitatearen proiektuak bost hamarkada baditu ere, proiektuaren aurrekariak askoz zaharragoak dira.¹ Hala, ezaguna bada ere, ezin utz dezakegu aipatu gabe Eusko Ikaskuntza kultur elkarteak 1918-1936 urteen artean unibertsitate propio baten alde egindako lana. Babesle zituen orduko aditu entzutetsu batzuk, baita ikasle unibertsitario taldeak ere, eta mugimendu abertzale/autonomista zabala, orobat. Proiektu hori, sasoi hartan, gaztelaniaz aldarrikatu ohi zen: «¡Queremos la Universidad Vasca!». Batzuetan, garaiko euskarazko testuetan ere aipatzen zen, dela ‘Eusko

Ikastola Nagusi' izenpean, dela 'Euzko Irakastola Nagusi' gisa, dela bestelako izenez. Euskal ordainen ezegonkortasunak nahiko argi islatzen du orduko proiektuan euskarak zeukan bigarren mailako tokia. Izan ere, gerraurrean formulatu ohi zen bezala, 'Universidad Vasca' (Hego) Euskal Herrian errotutako goi mailako ikasketetara bideratutako hezkuntza erakunde bezala ulertzen zen. Unibertsitate asmo hartan euskararen eta euskal kulturaren azterketari arreta berezia jarri nahi zitzaion, baina ez zen aurreikusten irakaskuntza euskaraz izatea, baizik eta (nagusiki) gaztelaniaz. Proiektuak ezin zuen izan goranahi handiagorik, besteak beste, oraindik euskararen batasunik ez zegoelako, ezta arloz arloko aditu euskaldunen komunitaterik ere.

Gerraurrean, beraz, 'Universidad Vasca'-ren aldeko mugimenduak erakunde unibertsitarioa eskatzen zuen, baina ez euskarazko irakaskuntzarik. Bakanen batek erakunde berrian euskara ikasteko eskolak egon behar zirela aipatzen zuen. Testuinguru honetan, unibertsitateko eskolak euskaraz emateko proposamenik ausartena, ziurrenik, Aita Mikel Altzok egin zuen 1934an *Argia*-n argitaratutako iritzi artikulu batean. Altzok, unibertsitate hizkuntzen bilakaera aztertu ostean eta Belgika, Letonia eta Poloniako kasuak landu ondoren, unibertsitatean euskarazko irakaskuntza posible zela argi zuen: «Beraz Eusko-Ikastola Nagusiak ere alegiñak egin bear ditu euskeraz bere gaiak irakasten, batez gogo-gaiak, irudimen-gaiak, biotz-gaiak».² Hala ere, Altzoren planteamendua salbuespena izan zen Eusko Ikaskuntzaren baitan eta haren orbitan zeuden euskaltzaleen artean.

Euzko-Gogoa-ren ametsa

Gerraoste latzean, erbestean kaleratutako *Euzko-Gogoa* aldizkariak (1950-1959), euskara kultur hizkuntza bilakatzeko asmoa zuenez, Historia, Filosofia, Psikologia, Etnologia, Historia, Soziologia, Teologia eta beste hainbat gairen gainean euskarazko artikuluak argitaratu zituen, eta, beraz, euskarazko

unibertsitate baten oinarriak jarri nahi izan zituen. Esate baterako, 1957ko editorialak honelaxe zioen: «Banako berezi au euskaltzaleok buru-biotzetan iosita daramagun etorkizuneko Euskal-Ikastetxe Nagusiari eskeintzen diogu biotz-biotzez, ots, euskerazko Ikastetxeari». Ohartu: Jokin Zaitegi ez zen ari eskatzen Euskal Herrian kokatutako unibertsitate bat, preseski euskarazkoa baino. Bere artikulua honelaxe ixten zen: «Gure xedea auxe duzu: ederrez ta iakitez gure buruak iantzi, euskera geroago ta egokiagoa ta ederragoa erabil dezagun. Euskal-Ikastetxe Nagusia neurri, gu ibili».³ Hortaz, *Euzko-Gogoa*-k euskara kultur hizkuntza bilakatzeko saio bat egin zuen eta hori guztia Euskal Unibertsitatearekin lotu zuen. Nolanahi ere, Zaitegiren saio horretan agerikoak dira gerraurreko euskara-ren inguruko irizpideek zituzten mugak kultura eta jakintza arloko gaiak lantzeko orduan. Purismo linguistikoak terminologia zientifiko zehaztugabea eta nazioarteko moldeetatik urruna eragiten zuen. Dena den, proiektuak aurrera egin ez bazuen, ez zen izan hautatutako hizkuntza moldeagatik, bestelako faktore batzuegatik baino; tartean, ezintasun politikoa eta ekonomikoa aipa litezke.

Euskal Unibertsitate proiektu modernoak

Euskal Unibertsitate proiektuak hirugarren une erabakigarria bizi izan zuen 70eko hamarkadan. 60ko eta 70eko hamarkadetan Hego Euskal Herrian frankismoak ezarritako debekuen gainetik, borroka asko piztu ziren, hala nola hizkuntzaren aldekoa edota nazio-askapen prozesuaren aldekoa. Garai berean gertatu zen euskal gizartearen sekularizazioa. Bere-ziki azpimarratzekoa da apaiztegiak utzi zituzten euskaldun alfabetatu ikasien ekarpena euskal kulturgintzan, baita Euskal Unibertsitatearen proiektuan ere.

Orduko Euskal Unibertsitate proiektuak izaera desberdineko asmoak biltzen zituen. Artean erdaraz formulatutako ‘Universidad Vasca’ aldarrikapenetik ez zen guztiz bereizten. Hala, garaiko eskarietan hainbat gauza itxuraz elkarren

osagarri erreibindikatzen ziren: euskal barruti unibertsitaria, Hego Euskal Herrirako unibertsitate bat, euskarazko unibertsitatea... Baina, urte gutxiren buruan, behin EAEra-ko eta Nafarroarako unibertsitate barruti bana ezarrita, eta behin UPV/EHU eta UPNA/NUP sortuta, Euskal Unibertsitate proiektuak ñabardura bereizgarri bat hartu zuen: goi mailako euskarazko irakaskuntza proiektua bilakatu zen. Eta horren alde lan egin zuten, besteak beste, 70eko hamarkadan sortutako Elhuyar, UEU eta UZEI moduko erakundeek. Garai horretan batez ere beraiek izan ziren euskara unibertsitate bidean jarri zutenak, aldizkariak argitaratuz, hiztegi espezializatuak prestatuz, ikastaroak antolatuz eta unibertsitateko testuliburuak sortuz. Euskara eta zientzia uztartu nahi zituzten, eta batek baino gehiagok buruan zeukan Euskal Herri euskaldunaren unibertsitatearen oinarriak jartzea.

Proiektu berri horrek gerraurreko eta gerraosteko oihartzunak bazituen ere, benetan aurrekari zuzenak bi izan zituen: batetik, JAKIN aldizkaria eta bere kolaboratzaileak, eta,

xxi. mendearekin batera,
ematen du Euskal
Unibertsitate proiektua
laugarren epe batean
sartu dela, onlineko
irakaskuntzaren geruza
gehitu baitio aspaldiko
aldarrikapenari, ezintasun
politiko bezainbat
originaltasun erakutsiz

bestetik, euskararen batasun prozesuan parte-hartze zuzena eduki zuten garaiko euskaltzaleak (sarri pertsona berak). Batzuk Euskaltzaindiaren inguruan zeuden, baina handik kanpo kokatutakoak ere baziren. Denek euskara kultur hizkuntza bilakatzeko hautu argia egin zuten. Euskara kulturarekin salbatuko zela uste zuten, hizkuntzaren erregistro jaso garatu behar zela; horretarako, gerraurreko edo gerraosteko eredu garbizale desberdinek

ez zuten balio, garai hartako gazte euskaltzale askoren ustea baitzen purismo linguistikoak euskara kaleitsu batera zera-mala. Hortaz, batak bestea zekarren, hau da, hizkuntzaren

batasunaren alde zeudenak euskara kultur hizkuntza bilakatzeko lanetan aritu ziren, eta alderantziz. Testuinguru horretan sortu ziren 70eko hamarkadan UEU, Elhuyar eta UZEI.

Azken bost hamarkadetan, ordea, gauza asko gertatu dira esparru askotan, baina 70eko parametro gaurkotuetan errotutako Euskal Unibertsitate fisikoa sortzeko saiakera erreal bat baino gehiago egin da tartean, bereziki 90eko hamarkadan eta XXI. mendean. Baina, borondate politikorik gabe, ezinezkoa izan da asmo horiek gauzatzea. Bidea ez da antzua izan. Badago esperientzia, material eta harreman metaketa handia; Euskal Unibertsitate proiekturik egon izan ez balitz, euskarak egungo unibertsitateetan are presentzia txikiagoa izango zukeen. UEUn, UZEIn, Jakinen edo Elhuyarren ibilitalakoak 70eko, 80ko eta 90eko hamarkadetan eta XXI. mendean irakasle gisa unibertsitatean sartzean, batez ere UPV/EHUn, bakarka zein taldeka, proiektu desberdinak abian jarri izan dituzte euskara unibertsitatean txertatzeko, bereziki euskarazko irakaskuntza garatzeko. Egungo UPV/EHUko zientzietako karrerak euskaraz ikastea, Euskara Errektoreordetzaren atal desberdinak (Euskara Zerbitzua, Euskara Institutua...), lehen irakasle elebidunen kontratazioa, euskara plangintzak eta abar ezin dira ulertu erakundearen barne dinamika propioetik. Sorburua, neurri handi batean, kanpoan dagoelako, aipatutako euskal kulturgintzako elkarteetan eta bien arteko zubi lanak egin zituzten euskaltzaleengan.

XXI. mendeko erronkak

XXI. mendearekin batera, ematen du Euskal Unibertsitate proiektua laugarren epe batean sartu dela, onlineko irakaskuntzaren geruza gehitu baitio aspaldiko aldarrikapenari, ezintasun politiko bezainbat originaltasun erakutsiz. Proiektuaren ardatz nagusiak ez dira aldatzen, erdigunean euskara eta irakaskuntza kokatuta baitaude; baina aldaketa esanguratsu bi badira: batetik, xede taldea, 18-20 urteko gazte euskaldunak baino, euskaldun profesionalak dira; eta, bestetik,

formakuntzaren izaera aldatu da, hasierako prestakuntzari baino, etengabeko prestakuntzari lotzen baitzaio onlineko Euskal Unibertsitatea. Proiektu eraberritu horretan pauso ustez irmoak eman badira ere, proiektuaren izaera berriaren gaineko zalantzak zelatatzen gaitu. Subalternitate egoeraren formulazio gaurkotu bat ez ote den pentsatzen dugu sarri. Izan ere, gure ustez, Euskal Unibertsitatea ez da ez erronka teknologikoa, ezta pedagogikoa ere, erronka politiko eta intelektuala baizik. Irudipena dugu, ordea, agian Euskal Unibertsitate proiektuaren inguruko diskurtsoaren sakontasun maila apaldu egin dela.

Laburbilduz, Euskal Unibertsitate proiektua eraldatuz eta egituratuz joan da xx. eta xxi. mendeetan. Lehenengo formulazioetan Euskal Herrian kokatutako unibertsitate fisiko baten aldeko ekimena zen, gerora euskarazkoa ere izan beharra defenditu zen, eta, egun, badirudi onlinekoa behintzat izango balitz konformatuko ginatekeela. Edozein kasutan, 70eko hamarkadatik, Euskal Unibertsitate proiektuaren erdigunean euskarazko irakaskuntza kokatu izan da. Harentzat argitaratu dira material desberdinak (liburuak, testuliburuak, hiztegiak...) eta prestatu da ahozko erregistro jasoa eta akademikoa, arloz arloko lexiko zein diskurtsoak. Baina, neurri handi batean, batik bat 70eko hamarkadan finkatutako Euskal Unibertsitate proiektu hori agortuta dago, egungo euskaldun unibertsitarioen testuingurua, makro zein mikro ikuspegitik, goitik behera aldatu delako. Bizi (izan) ditugun aldaketa guztiak zehatz eta zorrotz aipatzea ezinezkoa da artikulu labur honetan, baina batzuk seinalatu nahi genituzke gaiarekin zerikusi zuzena dutelako:

- Orain arte ezagutzen genituen jarduteko molde ekonomiko, politiko, kultural edota sozialak, baita akademiakoak ere, aldatzen ari dira faktore askoren eraginez, eta horretarako ez daude soilik arrazoi teknologikoak.
- Agenda neoliberala ezarri da bizitzaren arlo guztietan, baita zientzia eta jakintzaren esparruan ere. Hala, tradizionalki merkatutik kanpo egondako erakundea,

unibertsitatea, merkatuko enpresa gisa aritzen da gero eta gehiago: dela ikasleak lortzeko, dela pertsonal kontratatuaren kudeaketa enpresariala eginez, dela merkatu balioa duten jakintza arloak lehenetsiz, dela beste unibertsitateekin harreman lehiakorrek ezarritik.

- Unibertsitateak, erakunde gisa, eraldaketa sakona jasan du azken hamarkadetan. 70eko hamarkadako unibertsitateak zerikusi oso txikia du egungoarekin hainbat arlotan. Tradizionalki Europan –eta Euskal Herrian– molde eta ikasketa desberdineko unibertsitateak izan baditugu ere, zenbait prozesuren ondorioz, unibertsitatea homogeneizatu egin da (adibidez, Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua bateratzearekin, kredituak eta tituluak bateratu dira).
- Modernitatean arruntak ziren proiektu politiko eta marko ideologiko handien garaia krisian dago, bai erlijioari, bai alderdiei, baita Euskal Unibertsitateari dagokiona ere. Horren lekuko da Euskal Unibertsitatearen proiektuaren inguruko eztabaiden apaltze orokorra. Edo beste hitz batekin esateko: desintelektualizazioa. Euskal Unibertsitate proiektua 70etan eta 80etan sustatu zuten intelektual nagusiek, 40-50 urteren ostean, adinez oso aurrera egin dute, eta berririk ez da nabarmentzen. Hala, euskara unibertsitatearekin uztartzearen alde daudenak ere ez dira Euskal Unibertsitatearen proiektuarekin identifikatzen. Ezezaguna edo arrotza egiten zaie, eta ez dute hor topatu norabide estrategikorik. Horren ondorioz, unibertsitateetan euskara sustatzeko ardura hartzen dutenak, onenean ere, jarduera sakabanatuak antolatu eta euskara kudeatzen ari dira. Estrategia orokor batekin bat egiten duen politikarik ez dago.

Baina garai post-postmodernoetan, egituratu nahi duen hizkuntza komunitate bat osatzen duten hiztunek ere, modernitatea gaingidutzat eman arren, garatzeko aukerak emango dizkieten proiektuak, estrategiak, markoak edo utopiak behar dituzte. Mesfidati begiratu arren, eta etengabeko berrikuspenera, are zailantza, behar izan arren, halakoak ezinbestekoak ditugu. Beraz, gure ustez, unibertsitatean eta, oro

har, goi mailako esparruan, euskararen egitekoaren inguruan proiektu orokor berria behar dugu. Hori ezinbestekoa da euskara zientzian eta jakintzaren ekoizpen eta transmisioan erabiltzen jarraitu nahi badugu eta jakintzaren arloz arloko (euskaldun) komunitate zientifikoak trinkotu nahi badira. Zertarako? Euskara XXI. mendeko erronkei aurre egiteko gai izan dadin, hau da, hizkuntza bizi horren inguruan komunitate batek funtzionatzen jarrai dezan. Horretarako, euskarak egungo prozesu sozioekonomiko esanguratsuetan parte hartu behar du, eta zientzia zein ikerkuntza da horietako bat. Hortik aldentzen bada, nekez biziraungo du gero eta teknologikoagoa den eta jakintza zientifikoan fede osoa duen gizarte batean. COVID-19arekin ikusi dugu Mendebaldeko jakintza zientifikoaren pisua eta indarra. Euskara eta euskaldunak ezin gara geratu prozesu garrantzitsu horietatik kanpo.

Erdigune berria proiektu zahar batentzat

Historikoki, Euskal Unibertsitate proiektuaren erdigunean, arestian aipatu dugun moduan, euskarazko irakaskuntza kokatuta zegoenez, hamarkada hauetan guztietan euskarazko irakaskuntza aitzineratzeko arrakasta desberdina izan duten mila eta bat ekimen jarri dira abian. Hainbat euskaltzale unibertsitarioren ekarpen anonimoa edo ez hain anonimoa metatu izan da helburu horretan, eta gaur egun Euskal Unibertsiterik ez dugun arren, berme gehiago edo gutxiagorekin graduako ehun bat karrera euskaraz ikas litezke unibertsitate desberdinetan. Graduondoko ikasketen egoera erabat etsigarria den arren, ikasle engaiatuek, oztopoak oztopo, tesia euskaraz egin dezakete eta goren mailako gradu akademikoa lortu. Doktore izanik, hala nahi badute, karrera akademikoa has dezakete, hau da, unibertsitateko irakasle edota ikertzaile gisa aritu. Horretarako, lehenengo eta behin, akreditatu behar da, hau da, kalitatearen ebaluaziorako agentziaren batean, estatukoan zein lurraldekoan, beraien ibilbide akademikoaren aldeko txostena lortu. Hau da, eskatzaileak egiaztatu beharko

du meritu nahikoa duela, eta horretarako ikerketa arloko ekarpen esanguratsuak egin dituela... erdaraz. Bai, erdaraz. Hots, liburuak –baina bereziki artikuluak– argitaratu dituela eragin handiko nazioarteko aldizkarietan, eta horietan erdaraz idatzi beharra dago. Bidenabar, gogoratu behar da ranking horiek ez direla estatuek sortuak, ezta gobernuen kanpoko erakundeek sortuak ere; interes ekonomiko handiko enpresak dira, zientzia eta jakintzaren kudeaketa alderdikoia eginez etekin handiak ateratzen dituztenak. Eta, hain zuzen ere, horietan argitaratu behar dituzte unibertsitario euskaldunek beraien lanak.

Beraz, unibertsitario euskaldun batek, Inguma datu-basearen bidez, bere euskarazko goi mailako produkzioaren gaineko ziurtagiria eskura eta aurkez dezake ebaluazio-agentziaren batean, nahiz eta deus gutxirako balioko dion. Larria bezain argia da ondoko baieztapena: karrera akademiko arrakastatsua egiteko, euskara (gehienetan) oztopo da.

Bestalde, euskarazko aldizkari akademikoak noraezean daude. Goi mailako dibulgazioa egin behar dute ala euskarazko komunikazio zientifikoaren euskarri izan? Dibulgazioa jomuga bada, ez dute zertan arduratu aldizkari zientifikoaren uesteko kalitate estandarrak jarraitzeaz edota nazioarteko aldizkariaren rankingez. Baina, alderantziz bada? Ba al dago estrategiarik euskarazko aldizkariarentzat?

Ez da harritzekoa, testuinguru akademiko berri honetan, euskarazko goi mailako produkzioaren hazkundera etenda egotea. Horretaz, jada aurreko lan batzuetan luze jardun dugu datu errealak aztertuz.⁴ Gaurkotuko bagenitu, are argazki larriagoa baino ez genuke izango.

Unibertsitario euskaldun
batek euskarazko goi
mailako produkzioaren
gaineko ziurtagiria
aurkez dezake ebaluazio
agentziaren batean,
nahiz eta gutxirako
balioko dion: karrera
akademiko arrakastatsua
egiteko, euskara
(gehienetan) oztopo da

Eman lezake horrek guztiak ez duela zerikusirik Euskal Unibertsitatearen aldeko proiektuarekin, mugatzen dela irakasle euskaldun unibertsitarioen afera sinple batera. Baina, gaur egun, goi mailako tituluak eskaintzeko, ezinbestekoa da akreditazioa; hau da, tituluak eta zentroak ere akreditatu behar dira, eta akreditaziorako berme gehien ematen duena ikerketa jarduera da.

Laburbilduz, Euskal Unibertsitate proiektu historikoa berri-ritu behar da eta garaiko testuingurura egokitu, bereziki testuinguru akademiko berriaren baitan birformulatu. Hau da, ematen du aldarrikapen historikoa neurri handi batean agortuta dagoela. Baina berririk ez dugu. Horra erronka intelektuala. Behe-lainotan ari gara. Ikerkuntza Euskal Unibertsitate proiektu berriaren erdigunean kokatzea aukera bat izan daiteke, eta ikerkuntzatik planteatzea liteke (euskarazko) irakaskuntza elikatzea, (euskarazko) goi mailako dibulgazioa egitea, (euskarazko) komunikazio zientifikoa ontzea, arloz arlo hiztegi berezituak prestatzea, euskaldunen karrera akademikoa egiteko eta ulertzeko molde berriak proposatzea... Ez dago ezer idatzita, oraindik, eta behe-lainotan ibiltzeak, noski, bere arriskuak ditu; baina ez gara ezer, egin arte. 🐸

Oharrak

1. Ez da gure asmoa Euskal Herrian egon edo eskatu diren unibertsitateen historia osoa errepasatzea. Soilik 'Euskal Unibertsitate' egitasmoarekin lotura izan duten etapa batzuk aipatuko ditugu, gure aurreko lan pare bateko ideia nagusiak laburbilduz (ikus: Artetxe, K. (2011): *Euskara unibertsitaterra bidean: eragileak eta proiektuak (1939-1990)*, UEU; Artetxe, K. (2013): *Einstein Euzkadin. Gerraurreko zientzia eta goi mailako kultura euskaraz*, Utriusque Vasconiae).
2. 'Eusko-Ikastola Nagusia ta euskera', *Argia*, 1934-07-22.
3. 'Atarikoa', *Euzko-Gogoa*, 1957ko iraila-gabonila.
4. Ikus JAKIN aldizkarian bertan argitaratu genuena: 'Euskararen azpi-instituzionalizazioa esparru akademikoan: datuak, galderak eta erronkak', JAKIN 207, 2015, 93-114.

EGUNEN GURPILEAN

139 Kultura

Geruzak proiektua: desiraz

Annie Ernaux eta Irati Jimenez: pasio
hutsez begiak zabaltzea

Nostalgia nostalgia eta ahanzturari
ahantzura

Maialen Akizu Bidegain

145 Glokalia

Ikusezinaren pedagogia

Ikusezinaren politika

Ikusezinaren erotika

Iñigo Martinez Peña



Geruzak proiektua: desiraz

Badira gure betiko lur hau berritzen duten zerak. *Geruzak* izeneko proiektua sortu da, «gazteen eguneroko kezka eta galderetatik abiatuta, euskaraz eta euskaratik, feminismoa, soziolinguistika, kultura eta pentsamendua lantzea helburu duen ikus-entzunezko sorta». Idazten ari naizen egun honetarako lehen kapitulua soilik dago ikusgarri, eta gazteen arteko hizketagai desira da. Bost gaztek desira nola ulertzen duten, zerekin lotzen duten, zertarako erabiltzen duten konpartitzen dute elkarrekin; eta, bide batez, pantailarekin ere bai.

Ez dizkizuet desiraren bueltan aipatuak kontatuko –horretarako baitago kapitulua sarean ikusgarri–. Gustatzen zaizkit Deleuze eta Guattarik desirez egindako gogoetak: desira, hutsune bat baino gehiago, indar baten moduan irudikatzen dute; normarekiko gatazkan dago desira, eta limiteak urratzeko gaitasuna du. Horregatik da, edo izan daiteke, transgresiorako formula. Gustatzen zait ere Meri Torras literatura konparatuko aditu katalanari entzundako hau: desirak ez du hutsik egiten; asmatu ere, ez du asmatzen.

Eta desira ere kulturgintzarekin lotua dago ezinbestean, edo hala nahi genuke. Gaur egungo kezka dira irakurzaletasunaren sustapena –irakurzaletasunarena baino, literaturarena behar lukeena–; edo galdetzen dugu nola bultza genezakeen zinemara joatea, norbere etxean, bertan goxo, serie edo pelikulak ikusteko aukera dugun honetan; edo ulertu nahi dugu zerk egin lezakeen antzerkia gustagarri.

Ernst Fischer filosofo, politikari eta idazle marxista austriarrak badu lan bat *Artearen beharritzana* izenekoa. Beti bueltaka

eta beti berri diren galderei nolabaiteko argitasuna ematen diela iruditu zitzaidan irakurri nuenean. Hala galdetzen du:

Milioika pertsonak liburuak irakurtzen dituzte, musika entzuten dute, antzerkira joaten dira, zinemara. Zergatik? Distrakzioaren, entretenimendu hutsaren bila doazela esatea benetako auzia al-bora uztea da. Izan ere, zergatik distraitzen, birsortzen edo entretenitzen du beste baten bizitza arazoetan sartzeak, pintura, musika-zati edo nobela bateko pertsonaiekin identifikatzeak? Zergatik erreakzionatzen dugu irrealitate horren aurrean, erreallitatearen areagotzea balitz moduan? Zer entretenimendu bitxi eta misteriotso da hori?

Fischerrek dio erantzun osatugabea dela bere ustez existentzia asegaitz batetik ihes egin nahi dugula esatea, edo horrek beste galdera bat ekarriko lukeela: zergatik ez dugu nahikoa geure bizitzarekin?

Kulturaren funtzioa eta erlijioarena antzerakoak direla esatea ez da berria. Fischerren ustez, gizakiak norbanako baino gehiago izan nahi du. Sinplea da arrazoa: gizakiaren nahimena norbanako izatea besterik ez bada, mundura sortzerako beteta luke gurari hori. Bizitzaren erreallitatea areagotzeko erabiltzen du, besteak beste, gizakiak artea. Baina, behin hori esanda, Fischerrek beste behin sartzen dio galdera forman ziria irakurleari:

Ez al da erromantikoezia artea «bizitzaren erreallitatea areagotzeko» erabiltzen dugula esatea? Osotasuna lortzen al dugu artearen bidez? Ez al da aho-bero xamarra esatea artea ez dela entretenimendu, ikusleak ez duela bere burua itsuki identifikatzen, urruntzen dela, eta artean aurkitzen duela eguneroko bizitzaren zamak kentzen dion askatasuna?

Pentsalari marxistak artea prozesu razional eta kontzientea dela azpimarratzen du, baina, era berean, jatorrian *magia* duela. *Magia*. Uau.

Axut! konpainiak eta Artedramak urriko hilabetea plaza-ratu dute *Hondamendia* izeneko lana. Zaldibarko zaborte-giaren drama du abiapuntu. Uste dut sinatuko luketela Bertolt Brechtek antzerkiaz esandako hau:

Gure antzerkiak ulermenaren emozioa sustatu behar du, eta herriari errealitatea aldatzeko plazera erakutsi behar dio. Gure publikoak Prometeo nola askatu zen ikusteaz gain, bera askatzeko plazera sustatzea da helburu. Irakatsi behar diegu gure antzerkiarekin esperimentatzen, sortzaileak izandako poztasun eta min guztia deskubritzen.

Horregatik nago irakurzaletasuna, zinemara joateko ohitura edo, bere osoan, euskararen erabilera sustatu beharrean, akaso datu hobeak eta magia gehiago genukeela askatasuna, pasioa edo desira balira gure helburu.

Annie Ernaux eta Irati Jimenez: pasio hutsez begiak zabaltzea

Diru-sariak zorren ordain izaten dira askotan. Txanpon berarekin ordaintzen dira bi-biak. Onartu behar dut, ordea, poztu nautela aurtengo udazkenean literaturan izandako bi azpimarrek.

Lehena, Annie Ernaux idazle frantziarrarentzat izan da 2022ko Literaturako Nobel saria. Nire idazle kuttunetako bat da Ernaux, eta orori gomendatzen dizkiot euskaratutako bere lanak: *Pasio hutsa* (Igela, 2002, Joseba Urteagak itzulua), *Gertakizuna* (Igela, 2003, Joseba Urteagak itzulua), *Lekua* (Igela, 2003, Joseba Urteagak itzulua), *Emakume bat* (Txalaparta, 2011, Itziar de Blas Fernández de Gamarrak itzulua) eta *Begira zenbat argi, maitea* (Igela, 2015, Xabier Aranburuk itzulua).

Bestetik, 2022ko saiakerako Euskadi literatura saria Irati Jimenezek jaso du *Begiak zabalduko zaizkizue* liburuagatik. Begiak beste eztabaidak zabaltzen dituen liburuak beti dira interesgarri. Jimenezek dio, besteak beste, euskara dela euskararen gai nagusia, eta, era berean, banitate konplexuz betea dela gurea; hotz egiten duela euskal literaturan eta umorearen falta dugula.

Arkatzezko galdera-ikur, izar eta ixaz betea dut liburua, eta okasioa probestu nahi nuke Jimenezek proposatzen duen

zerrenda hona ekartzeko. Zuek jarri galdera-ikur, izar eta ixak: «Euskaraz gaizki idazten dugunean egiten ditugun gauzatxoak».

1. Gauza bat adierazteko bi hitz daudenean, ondo idaztea hitz arrunta aukeratzea da, mundu guztiak ulertuko duen hitza, hizkuntzaren baitan bizirik mantendu den hitza.
2. Hobe da modak ebitatzea.
3. Bi hitzen artean ezaguna hautatzea aukeraketa eskasa da, baina okerragoa izan liteke. Izan liteke ezezaguna eta itsusia.
4. Elkarrizketak belarrirako idatzi behar dira.
5. Kontuz hitanoarekin.
6. Ez du zertan egon eta zorionez ez dago euskara batua-ren eta euskalkien arteko inolako lehiarik, elkarrekin lortu dugu euskara batzea eta elkarrekin lortuko dugu euskara zabaltzea ere.
7. Naturala ez denak eztena dauka.
8. Hitz-jokoak gehiegi gustatzen zaizkigu.
9. Ortotipografiarekin kakaztadak egiten ditugu.
10. Hitz egin normal.
11. Idatzi normal.

Ernauxek hitanoarena ez beste guztiak betetzen dituela uste dut.

Nostalgiari nostalgia eta ahanzturari ahanztura

Ibil Bedi talde nafarrari lapurtu diot izenburua. Badu kanta bat halaxe dioena: *nostalgiari nostalgia eta ahanzturari ahanztura*. Eta berriz ere errepikatzen da nostalgia eta ahanztura: *nostalgiari nostalgia eta ahanzturari ahanztura*.

Kantaren izena *Hiraeth* da. Galesezko hitz zahar horrek herri- edo etxe-minari egiten dio erreferentzia, hutsuneari, baina ez zentzu negatiboan; kontrara, goxoki oroitzeko bidea litzateke hiraeth, hitzez adierazten zaila baina sentitzen erraza den sentimendu hori. Badakizu zertaz ari naizen.

Lagun batek beti esaten du laurogeiak bizitzea gustatuko litzaiokeela: sozialki, kulturalki, ekonomikoki demasa litzaitekeela kale horietan egotea. Musikazale sutsua da bera eta 'laurogeiak' deitzen diegun hori Euskal Herriko Rock Erradikalaren sinonimotzat du. Niri ere galdetzen dit ea nora joan nahi nukeen. Ez dakit erantzuten. Gaurtik etzira egingo nuke salto, edo orain dela hilabeteko egun hartara, baina izan ez nintzen garaietan egon da norbait. Benito Lertxundik kantatzen du: *ibilbide guztiak etxera itzultzeko izan*.

Izan da nostalgiarik gabeko sasoi bat. XVII. mende amaierakoa omen da nostalgia kontzeptua, Johannes Hofer izeneko medikuak sortua. Armadetan atzematen zituen sintomen multzoari erreferentzia egiteko erabili zuen kontzeptua: gogobetetasuna, ahulezia edo apatia sentitzen zuen soldadua erietxera bidaltzen zuten nostalgiak jota. Tratamenduen artean, besteak beste, musika entzutea debekatu. Europar artxi-bo militarretan, lubakietan hildako eta zauritutako erregistratuez gain, «nostalgiagatik» izandako bajak ere ageri dira.

Nostalgia horixe baita: berreskuraezinak diren eta, egia esan, berreskuratu nahi ez ditugun gauzen nostalgia sentitzen dugu. Desiraren eta borondatearen oreka; iragana delako desiratzen duguna, baina gerora begira zer ez dugun nahi erabakitzeke ere balio digu.

Jira eta buelta dezente eman zaizkio kontzeptuari. Eztabaidatu da zein diren bere esanahiaren mugak, nola bereizten den melankoliatik, etorkizunaren nostalgia ere badagoela aldarrikatu du zenbaitek edo nostalgia sinesmen bat gehiago dela salatu.

Interesgarria da beti denbora debate hutsez betetzea, baina egunerokora salto egiten duzu eta orainaldia anakronikoa bihurtu dela ohartzen zara: Hertzainak musika-taldea bueltan da; *Mihiluze* lehiaketa omen ETB1en denboraldi honetako erabakirik bikainena; eta 2022ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa ondo, maila polita eta ahots interesgarriak, baina Andoni Egañak apuntatzeko imintzioren bat egin balu, orduantxe nostalgikoak uluka.

Kezkatzen nau pasatutakoa berriro bizitzeko dugun nahiak. Hala dio Ana Urkizak: garai bakoitzak kutsatzen duen esperientzia jasotzen duen parentesia da kultura. 🍷



Ikusezinaren pedagogia

Denok jolastu izan dugu ezkutaketan gure haurtzaroan. Nahi-koa izan zitekeen aurpegia tapatzea eta begiak ixtea jolasa martxan jartzeko, barrea eragiteko, emozionatzeko: «Banago ala ez nago?». Desagertzeak eta agertzeak poza eragiten zuen. Baina zein ote da hain ohikoa zaigun jolas horren funtzioa? Ezkutatzea ezinbestekoa zaigu sinbolizazio prozesua gauzatzeko: horra hor, giza bizitzaren hasieratik, tarteka ikusezina izatearen garrantzia. Horrela jartzen dugu jokoan, bai gure nia, eta baita besteen desira ere. Uneren batean ez geunden, orain bagaude: «Gal nazakezu? Ni bilatzeko adina maite nauzu? Zein da mundura ekarri nauen desira?». Baina galderak ez dira beti galdera ikurrarekin idazten, zuzenean adierazten; batzuetan antzeztu ere egiten dira. Horregatik, galdera gisa interpretatu behar dira umeen hainbat jolas.

Psikologikoki ezinbestekoa zaigu, beraz, ikusezinaren eremua: norbera, gauzak edo pentsamenduak ezkutatzeko. Ohikoa da umeek sinestea helduek haien pentsamenduak ezagutzen dituztela. Jainko kristauak gure edozein burutazio ezagutzeko ahalmena zeukan moduan, gurasoek ere pentsamenduak ikusteko botere ahalguztiduna omen daukate! Des-kubrimendu izugarria da konturatzea besteek ez dutela zertan jakin guk pentsatzen duguna. Gure haurtzaroko momenturen batean garrantzi handiko aurkikuntza izaten da hori. Eta zein da frogatzeko bidea, testatzeko modua? Gezurrak esatea. Egia ezkuta dezaket eta ez dira enteratuko! Horrela konturatzen dira haurrak espazio pribatu baten jabe direla, haien burutazioentzako babesgune bat daukatela. Beraz, gezurra badirudi ere, aurrerapauso handia da gezurrak esan ahal izatea norbere

pentsamenduak ikusezinak direla bermatzeko. Kontuz umeak egia esatera behartzen ditugunean! Aurretik pentsatu beharko genuke gezur horrek umearentzat betetzen duen funtzioaz.

Beraz, ikusezinak subjektibotasuna eraikitzeke erabateko garrantzia baldin badu, zer gertatzen da ezkutalekurik gabeko egungo subjektibotasunarekin? Nolako eragin psikologikoa dauka horrek? Norbere buruari begiratu ahal izateko, ezinbestekoa da, noizbehinka, begirada orotatik kanpo egotea. Eta horrek, hala ere, ez du esan nahi geure buruarekiko gardenak izango garenik! Gure barru-barrukoak ere enigmatikoa izaten jarraitzen du, ulertzen ez ditugun geure korapiloak subjektibotasunaren parte direlako. Pentsa dezagun, adibide gisa, gure ametsetan: ez dira batere gardenak, sarritan interpretazioa eskatzen dute. Kontua ez da ametsak 'ikustea', baizik eta ikusitako hori, hieroglifikoen modura, desfizatzea. Ametsetan egoteko, gainera, begiak itxi behar dira. Itxi eta zabaldu, agertu eta desagertu.

Ikusezinaren politika

Bi katastrofe subjektibo posible daude: sekula begiratuak ez izatea eta une oro begiratuak izatea. Gure garaiak, tamalez, biak batzen ditu. Une oro begiratzen gaituzte, baina makina baten begiradapean gaude: gizakiak baino, zifra anonimoak gara. Gizatasunik gabeko begirada algoritmiko eta matematiko batek jarraitzen gaitu, eta den-dena datuetara pasatzea du helburu.

Aurpegien errekonozimendurako teknika informatikoez, adibidez, aurpegiko simetriaren arabera datuak jasotzen dituzte: begien posizioa, haien arteko distantzia... Datuen bilduma horrekin aurpegien txantiloak sortzen dituzte, gure aurpegiaren ezaugarri biometrikoak beste milioika aurpegiarekin alderatzeko. Irudiak, prozesuan, pxeletan deskonposatzen dira; unitate matematikoetan, alegia. Begi mekanikoez, beraz, konputagailuetara itzultitako datuak baino ez dituzte ikusten, hiperbegirada itsuan.

Hori salatzeke eta begi algoritmikoen aurrean ikusezin izateko estrategia diseinatu du Robinson Meyer kazetariak: aurpegia guztiz makillatu ondoren, errekonozimenduetarako pixeletan akatsak egotea lortu zuen. Konputagailuek ezin izan zuten haren aurpegia detektatu! Klean, berriz, inoiz baino gehiago begiratzten zioten, gehiegizko makillaje horrek arreta deitzen baitzuen. Zelako aldea begirada sozialaren eta begirada algoritmikoaren artean!

Dena den, begirada algoritmikotik ihes egiteko saiakera bitxiak egon daitezke, baina egun ez da batere erraza ikusezin bilakatzea. Nola egingo luke Arthur Rimbaud poetak Afrikara ihes XXI. mendean? Arrastorik utzi gabe desagertu zen 1880an, hogeita zazpi urte zeuzkala. Hiperkonexioak eta begirada digitalak askoz zailago bihurtuko luke ihesaldia gaur egun. Agian horregatik izan da hain arrakastatsua Frank Ahearnen *Nola desagertu?* liburua. Desagertzeko, egun, informatikari aditu baten laguntza ezinbestekoa zaigu. Fun-tsezkoea ez baita bizitoki berri bat bilatzea, Interneteko gure datuak ezabatzea baizik. Horretarako, «distrakzio birtualaren» metodoa erabiltzen du Ahearnek: zure izenarekin Facebooken, Twitterren eta Instagramen milaka orri sortzen ditu, guztiak aldi berean. Horrela, norbaitek webgunean bilatu nahi bazaitu, ezinezkoa izango zaio sarrera kopuru kontaezin hori kontrastatzea. Desagertzearen logikak hiperidentitatearen forma hartu du! Izan ere, nortasun digitala kentzea oso konplikatua da, ia-ia ezinezkoa. Dirutza behar da horretarako. Pentsa! Brad Pittek hamar milioi dolar ordaindu zituen Internetetik bere emaztearen argazki batzuk ezabatzeko. Herritar arruntori ordainezina zaigu sarean ikusezinak izatea.

Bada kontrako fenomeno bat ere: desagertu baino, bizitza pribatua Interneten saltzen duten youtuberrena. Kasu asko eta oso bitxiak daude. Jovan Hill gazteak, adibidez, 75.000 jarraitzaile lortu zituen bere arazo ekonomikoak bideo batean azaldu ondoren: premiazkoa zuen 7.000 dolar jasotzea. Hori baino askoz gehiago lortu, eta, geroztik, bere eguneroko bizitza *streaming* bidez transmititzen du, Periscope deituriko

aplikazioaren bidez. Horixe da bere lana, gora egiten duen jarraitzaile birtual kopuru izugarriari esker. Baina zer era-kusten du Hillek bere *streamer* lanean? Ohean etzanda agertzen da, hanburgesa bat jaten edo marihuana erretzen... Bere intimitatea saltzen du, ezer berezirik kontatu gabe. Egia esan, enigmatikoa da milaka pertsonak denbora eta dirua eskaintzea ezezagun gatzgabeko baten bizitza ikusten. Zein ote da ikusleen pasioa?

Hillena, noski, ez da kasu bakarra: jende askok bere eguneroko bizitzaren *streaming*-a egiten du. Badirudi gero eta erosoago gaudela kameraren aurrean! Horrelako bideoen produktzioa, behintzat, etengabe handitzen doa. Eta egungo sistemarekin bat egiten du horrek: ez al da produktzioa gure sistemaren funtsa? Kurioski (horra hor etimologiaren pista), 'pro-dukzio' hitzak 'aurrean jarri' esan nahi du latinez: erakutsi, ikusarazi. Horixe dugu erakusleihoen logika kapitalista, produktuen ikusgarritasunaren bila.

Agian, bestelako politika bat litzateke ikusezintaren alde egingo lukeena: ez hain produktiboa, ez hain espektakularra, baina gizaki moduan jasangarriagoa. Hasiera batean, botereetsuen inpunitatearen aurkako diskurtso gisa aldarrikatu zen gardentasuna. Egungo botere neoliberalak, ordea, bere interesen zerbitzura jarri du, jendearen kontrola areagotzeko. Horrek begirada digitalaren objektu bihurtu gaitu. Baina faltsua da: herritarrentzako gardentasun orokorrak ez dauka zerikusirik enpresa erraldoi batzuen gardentasun faltarekin. Merkantzien jatorria, ekoizpenaren lan-baldintzak, eragindako ondorio ekologikoak, paradisu fiskaletan gordetako kapitala..., datu horiek ezkutatu egiten dira. Horra hor enpresa erraldioen kutxa beltza, *black boxing* deiturikoa.

Ikusezintasun horrek, dena den, ez dauka aipatu dugun ikusezintasun inkontziente eta beharrezkoarekin zerikusirik. Subjektibotasunak iluntasuna behar du bizirauteko. Diruaren eta esplotazioaren ikusezintasunak, berriz, helburu oso argiak dauzka. Ez da batere iluna eta ez dauka maitasunarekin edo erosarekin harremanik.

Ikusezinaren erotika

Bada lotura zuzen eta misteriotsu bat ikusezinaren eta erotismoaren artean. Erotismoak ezkutatutakoarekin jolasten du, ezer ez da erabat erakusten. Eta agertzearen zein desagertzearen arteko dantzan, irudimenak eraiki behar du eszena. Iluntasuna, sekretua eta enigma dira fantasiaren akuilu; informazioa, fantasiaren aurkari. Hutsune ikusezinek zabaltzen dizkiote irudimenari ateak, begiak itxiz fantasia irekitzen da; gabeziaren eta presentziaren txandakatzeak amestera eramaten gaitu.

Pornografian, berriz, dena emanda dago, dena da gardena, garbia. Era horretan, gardentasunaren gizartea pornografikoa dela esan genezake. Hala deskribatzen du Byung-Chul Han pentsalariak: digitalizazioaren gizarte garden/pornografiko batean bizi gara. Baina gardentasunak magiaren amaiera dakar, munduaren lilura galtzea. Kontrakoa badirudi ere, erotismoa iluna da, zikina. Orbanetz beteriko begiradek gidatzen dute gizakion desira. ‘Zikin’ hitza, kurioski, latinezko ‘zuku’ hitzetik dator: bizitzaren zukua eta zikinkeria korapilaturik daude. Pornografia, ordea, higienikoa da: dena oso agerian eta oso garbi dago! Eta gertatuko dena jakitea, dena kalkulagarri eta kontrolagarri egitea, erotismoaren kontrakoa da. Ez du batere liluratzen etenik gabe erabat presente dagoenak. Erotikak sorpresak behar ditu. Ikusitakoak gudan nahi gabe eragindako zauri batekin dauka zerikusia, zabaldutako irrika eta hutsune batekin. Horregatik, irudiaren jaun eta jabe izan nahi badugu, irudia erabat menderatu nahi badugu, erotikak alde egingo digu: agur alteritateari!


Boterea eta erotika ez datoz bat. Boterea niarekin lotzen da; erotika, aldiz, alteritatearekin, bestearekin. Erotikak gauzekiko desjabetze sakona behar du, eta botereak erosaren heriotza baino ez dakar. Horixe gertatu zitzaion Herodes erregeari dantzariak berarengan eragindako desira erabat ezagutzera eta harrapatzera heldu nahi izan zuenean. Dantzariak haren aurrean zazpi beloen dantzaren erritmora mugitzen ziren eta

erregea bati begira geratu zen, adi. Une batean, bere kitzikapenaren 'azken egia' ikustea bururatu zitzaion, eta dantzari-beloak kentzea agindu zion. Neskak zazpi beloak kendu zituen, bata bestearen atzetik. Baina azken beloa kendu ondoren, biluzik zegoela, hurrengo beloa ere kentzea agindu zion. Zer ote dago bere azalaren azpian? Zer ezkututzen du? Krudeltasunez, dantzariari larrua kendu zion, baina errege harroputzak ez zuen bere desiraren azken sekreturik aurkitu. Beloaren atzean ez baitzegoen beste errealiterik, gorputza bera beste belo bat baino ez baitzen. Baina erregeak ikerketa makabroa jarraitu zuen dantzaria hil arte, ezertaz enteratu gabe. Horrela irudikatzen du istorioa Alphonse Allais idazle frantsesak, eta pultsioak erabat ikusgarri egiteko proiektu ororen ezintasuna salatzen du. Nola bururatu zitzaion sexualitatearen misterioa gorputzaren azpian ezkuta zitekeela?

Giza pultsioek ez daukate irudirik, ezin dira erresonantzia magnetikoen bidez harrapatu. Ahalegin horiek guztiak porrotera kondenaturik daude hasiera-hasieratik! Eta porrot horretaz barre egiten du Wim Delvoye artistak: musuak, felazioak eta koitoak irudikatzeko X izpiak erabili zituen 2000. urteko erakustaldian. Eta zer zen erradiografietan ikusi zena? Hezurak, organoak... irudiek ez dute desiraren enigma inondik inora harrapatzen. Herodes tragikoa dugu; Delvoye, berriz, komikoa. Baina, finean, biek ala biek ematen dute aditzera bizitzaren motorra, pultsioa, ezin dela ikusi, ezta guztiz menderatu ere. Beste kontu bat da berarekin egiten duguna. Herodesen bidea dugu beldurgarriena, odoltsuena.

Ikusezina, beraz, onartu eta zaindu egin behar dugu, ez baditugu bide odoltsuak hartu nahi. Hitz hauen artean ikusezina egotea nahiko nuke, irakurle. Zertan datza, bestela, hitzen erotika? Ulermenaren hutsuneetan, hitzek sorrarazten dituzten galderetan, hortxe zabaltzen da elkar ulertzeko eta hitzak interpretatzeko gogoa. Humboldték, jada, adierazi zuen giza hizkuntza ororen gardentasun eza: «Hitz bat entzutean, ez daude bi lagun gauza bera pentsatzen edo ulertzen dutenak, eta alde hori, txikia bada ere, hizkuntza osoan

hedatzen da». Hizkuntza gardena makina-hizkuntza litzateke, anibalentziarik gabekoa, sormenik eta jolasteko tarterik gabekoa. Hizkuntza erotikoa gaizki-ulertuz beterik dago, baina baita elkarri entzuteko zein elkar ulertzeko gogoz beterik ere. Zorionez, hitz egiten jarraitzen dugun heinean, ez dugu inoiz lortuko erabateko ulermen borobilik. Eta horrela eutsiko diogu, era berean, hitz egiten jarraitzeko desirari. Dena argi dagoela esaten digutenean (era dogmatikoan, askotan) isildu egiten gara. Horregatik, artikulua hau ere gardenegia ez izatea nahiko nuke, elkarriketarako gogoa piztuta mantentzeko gai izan dadin. 🍷



 **euskadi
irratia**
gertu

JAKIN 2021

Jakin 242

RUBIO, Miren: *Pilare Baraiazarrari elkarriketa*
GURRUTXAGA, Alexander: *Ihesa zilegi balitz: Xabier Lete eta trantsizioko poetikak*
Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; ALTUNA, Jaime; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 243: Gazteak eta politika

LARRINAGA, Ane; IRAOLA, Iker; ODRIOZOLA, Onintza; AMURRIO, Mila;
ZABALO, Julen; EPELDE, Maddalen: *Oraingo gazteak axolagabe? Gazteen eta politikaren arteko harremanak aztergai*
OLARIAGA, Andoni: *Garai baten mugetan*
BARANDIARAN, Ander: *Konpromisoa krisi garaiotan. Aitana Agirre, Iñigo Etxezarreta, Izar Hernando, Unai Martinez eta Naiara Rodriguez*
Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; ALTUNA, Jaime; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 244

LEKUONA, Ane: *Arteak euskal identitate bati forma eman zionean. Kultur politikak, artearen historia eta generoa*
ARRUTI, Nerea: *Traumaren ondoren: gehiegizko oroimena eta ahanzturak euskal literaturan*
ARANGUREN, Gaizka: *Zoparen Teoria Orokorra. Identitatearen atarietan*
GOROSTIDI, Juan: *Lekeitio Lemoizen da*
Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; ALTUNA, Jaime; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 245-246: Krisi ekosoziala: desazkundea irtenbide?

PASCUAL, Unai: *Klima eta biodibertsitatearen krisi bikoitzari aurre egiteko gobernantza eraldatzailearen aldeko aldarria*
BEGIRISTAIN, Mirene: *Ekofeminismoaren txirikordak*
ELOSEGI, Arturo: *Euskal Herriko ingurune naturalen etorkizuna*
ZABALETA, Ane; ANTIGUEDAD, Iñaki: *Ur berdearen garrantzia klima-krisiaren aurrean*
AUSEJO, Belen: *Uraren kudeaketa Nafarroan: gatazkak eta proposamenak*
FLORES, Lorea: *Abeltzaintza industrialaren ajeak. Nafarroako kasua*
ENDARA, Sabine; HARLUXET, Xabier: *Bizi!, larrialdi klimatikoaren, metamorfosi ekologikoaren eta justizia sozialaren haritik borrokatzen*
AZKARATE, Aitor: *Esne-behi gutxiagorekin bizi daiteke?*
GALLEGO, Sergio; JERÓNIMO, Cristina: *Non daude gure basoak?*
GOIKOETXEA, Ibon: *Usurbil Atez Ate. Hondakinen desazkundearen bidetik*
MURGOITIO, Eider: *Energia berriztagarriak. Euskal Herrian badugu alternatiba propioa*
Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; ALTUNA, Jaime; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 247: Euskal kultura 2021

MANTEROLA, Ismael: *COVID edo postCOVIDaren urtea?*
URIEN, Ainhoa: *Euskal kultura segurua da?*
BARANDIARAN, Alberto; TXAKUR GORRIA; FANO, Dani; ARBELBIDE, Nora;
GURRUTXAGA, Amagoia; AGIRREAZKUENAGA, Irati; GARTZIANDIA, Maitane; ZUMALABE, Maddi; BASAGUREN, Jon; EZKERRA, Estibalitz; AXPI; ARANDIA, Izaskun; JOSEVISKY; AGIRRE, Manex; CABALLERO, Maite;
LARRAIOZ, Mikel; MIMENZA, Libe: *Euskal kultura 2021*
EIZAGIRRE, Xabier: *Euskal liburugintza 2019*

Sailaren arduraduna: Joxe Azurmendi

- 1 URIBARRI, Ibon: *Immanuel Kant: bizitza eta filosofia*
- 2 GALPARSORO, Jose Ignacio: *Betiereko itzulera Nietzschearen pentsaeran*
- 3 KANT / HEGEL: *Kant eta Hegel: gerra eta bakeaz gogoetak*
- 4 DUCHET / MARQUARD: *Gizakiaren filosofia ilustratutik antropologia filosofikora*
- 5 LEIBNIZ, Gottfried Wilhelm: *Metafisikako diskurtsoa*
- 6 ADORNO, Theodor W.: *Musikaren filosofia*
- 7 MARX / ENGELS: *Alderdi Komunistaren Manifestua*
- 8 FOUCAULT, Michel: *Gizakiaren heriotzaz*
- 9 FREUD, Sigmund: *Ilusio baten etorkizuna*
- 10 LEYTE, Arturo: *Heidegger: Hermeneutika eta Funtsezko Ontologia*
- 11 PLATON: *Sokratesen Defentsa*
- 12 BACON, Roger: *Unibertsitatea eta Zientzia Erdi Aroan*
- 13 PORTALIS, J.E.M.: *Frantziako Kode Zibilaren lehen proiektua: Atariko hitzaldia*
- 14 BENGOTXEA, Juan Bautista: *Filosofia eta Zientzia. Vienako Zirkulua*
- 15 WITTGENSTEIN, Ludwig: *Etika, zientzia eta antropologia*
- 16 PLATON: *Ion*
- 17 URIBARRI, Ibon: *Kanten ezagutzaren teoria*
- 18 GARATE, Jenaro: *Gizakia maitagogoia da (Nire aitorpen filosofikoa)*
- 19 RILKE, Rainer Maria: *Poeta gazte bati idatziak*
- 20 BENTHAM, Jeremy: *Panoptikoa*
- 21 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *Zertaz dihardu filosofiak?*
- 22 PLATON: *Sinposioa*
- 23 DOMAT, Jean: *Legeen Tratatuak*
- 24 BENGOTXEA, Juan Bautista / EIZAGIRRE, Xabier: *Dogmak zientzian?*
- 25 ARREGI, Xabier: *Descartes*
- 26 NIETZSCHE / FREUD: *Nietzsche eta Freud, filosofian eragile*
- 27 ALVAREZ SANTA CRISTINA, Jose Luis: *Etikaren oinarrien bila*
- 28 GROTIUS, Hugo: *De iure belli ac pacis. Gerra eta bakearen zuzenbidea. Testuak*
- 29 AIESTARAN, Ignazio (arg.): *Kant eta modernitatearen iraultza*
- 30 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *W. von Humboldt: hezkuntza eta hizkuntza*
- 31 ITURRIOTZ, Ander: *Giza abere heroikoa kultura homerikoan*
- 32 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *David Hume: ekintzak, sentimenduak, balioak*
- 33 ZAPIAIN, Markos: *la guztiaren funtsaz. Kojève globalizatzaile*
- 34 ITURRIOTZ, Ander: *Lehen filosofia Heladen*
- 35 PUFENDORF, Samuel: *De officio hominis et civis juxta legem naturalem libri duo*
- 36 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *Paidea eta hizkuntza: euskal hezkuntza*
- 37 AGUIRRE, Javier: *Aristotelesen Metafisikari sarrera*
- 38 INSAUSTI, Xabier / ARRIETA, Idoia: *Hic Hegel, hic saltus*
- 39 FOUCAULT / BENSÂID: *Historiaz mintzo*
- 40 JIMENEZ, Jon / OLARIAGA, Andoni: *Modernitatearen auziaz*
- 41 SUAREZ, Francisco, S. J.: *Tractatus De legibus ac Deo legislatore*
- 42 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *Hizkuntzaren zientziak hizkuntzaren pedagogian*
- 43 AZURMENDI, Joxe (arg.): *Filosofia eta poesia*
- 44 INSAUSTI, Xabier / OLIDEN, Irati: *Konpromisorik gabeko filosofia. Alain Badiou*
- 45 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *Arimak eta balioak*
- 46 ETXARTE, Hedoi: *Wagner auziaz. Wagermée, Clément, Žižek, Badiou*
- 47 AZURMENDI, Joxe: *Gizabere kooperatiboaz*
- 48 SARTRE, Jean-Paul: *Begirada*
- 49 URDANGARIN IRASTORZA, Mikel: *Simone de Beauvoir, norbanakoa eta burujabetza*
- 50 GARCÉS, Marina: *Filosofia amaitu gabea*

IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

Harpidetuz

- ☐ Euskal Herria **60 €**
- ☐ Europa **75 €**
- ☐ Mundua **85 €**

Nola jaso nahi duzu?

- ☐ Paperean bakarrik
- ☐ Digitalean bakarrik
- ☐ Paperean eta digitalean

Harpidetuz gero, %30 aurreztuko duzu.

Babesle izanez

120€ ordainduz, Jakinen proiektu berria sustatuko duzu eta paperezko aldizkaria eta aldizkari digitala jasoko dituzu etxean.

Ekarpena eginez

Nahi duzun kopurua

EROSI

Aldizkaria

PAPERA

- ☐ Euskal Herria **14 €**
- ☐ Europa **17,50 €**
- ☐ Mundua **20 €**

DIGITALA

- ☐ **14 €**

3 urtetik gorako zenbakiak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN.

Artikuluak

DIGITALA

- ☐ Jakinkide bazara **Doan**
- ☐ Jakinkide ez bazara **3 €**

3 urtetik gorako artikuluak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN

Liburuak

PAPERA

- Jakinkide bazara
- Jakinkide ez bazara

- ☐ **10 €**
- ☐ **12 €**

DIGITALA

- ☐ **4 €**
- ☐ **7 €**



Izena

Abizenak

Helbidea

Herria Posta kodea

Telefonia

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia |

Kontuaren jabea



Jakin *eus*
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 218092
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus





Jakin • *eus*
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

